

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

13180 14/2018 Errege Lege Dekretua, irailaren 28koa, Balore Merkatuaren Legearen testu bategina –urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua– aldatzen duena.

I

Errege lege-dekretu honen helburua da honako zuzentarau hauek transposizioz lege-mailako arauetan jasotzea osatzea: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentaraua, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira 2002/92/EE Zuzentaraua eta 2011/61/EB Zuzentaraua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko ekainaren 23ko 2016/1034 Zuzentaraua, zeinaren bidez aldatzen baita 2014/65/EB Zuzentaraua (finantza-tresnen merkatuei buruzkoa); 2016ko apirilaren 7ko 2017/593/EB Eskuordetutako Zuzentaraua, zeinaren bidez osatzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua bezeroak jabe diren funtsen eta finantza-tresnen babesari, produktuen gobernantzaren arloko betebeharrari, eta ordainsariak, komisioak edo bestelako diruzko zein ez-diruzko onurak emateari edo jasotzeari aplikatu beharreko arauak dagokienez.

2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentaraua partzialki jaso zen transposizioz lege-mailako arauetan, abenduaren 29ko 21/2017 Errege Lege Dekretuaren bidez (Espainiako zuzenbidea Europar Batasunak balore-merkatuari buruz emandako araudiaren arabera egokitzeko premia neurri buruzkoa). Errege lege-dekretu honen bidez osatu egin da lege-mailako arauetan transposizioz jaso behar diren zuzentzarauko xedapenen transposizioa. Zehazki, honako xedapen hauek jaso dira, funtsean, transposizioz errege lege-dekretu honetan: inbertsio-zerbitzuen enpresen baimentze-, jokaera- eta gainbegiratze-araubidea arautzen dutenak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari gainbegiratze-ahalmen berriak aitortzen dizkietenak, eta lankidetzeta-betebehar berriak ezartzen dituztenak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren, Europar Batasuneko gainerako agintaritzak nazional gainbegiraleen eta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziaren artean.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da errege lege-dekretu honek jarraipena eman diola 21/2017 Errege Lege Dekretuak hasitako arrazionalizatzeko eta hobekuntza teknikoko lanari. Bi tresnek helburu dute Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren edukia murriztea (zeina urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen) lege-mailako arauetan egoteak eskatzen duen gutxieneko edukira. Hartara, errege lege-dekretu hau onetsi ondoren, balore-merkatuak eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak arautuko dituen benetako esparru-legea izango da testu bategina, Estatu Kontseiluak emandako gomendioari jarraituz.

21/2017 Errege Lege Dekretua ez bezala, egokiagotzat jo da errege lege-dekretu hau Balore Merkatuaren Legearen testu bategina aldatzen duen testu bat izatea. Izan ere, kontratazio-zentroak 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentzarauaren arabera arautzeko, edukia azpiegitura horiei aplikatzekoak zaizkien arauak egokitzeaz gain, testu bateginean horretarako erabilitako sistematika ere berrikusi beharra zegoen. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak, inbertitzaileei babes egokia bermatzen dioten jokabide-arauak eta gainbegiratze-, ikuskatze- eta zehatze-araubidea arautzeak jarraitzen dio zuzentzarauak gai horietaz egiten duen planteamenduari, egituran zein sistematan; horrenbestez, segurtasun juridikoa handitzen du zuzentzaraua lege-mailan transposizioz jasotzea osatzeko testu bategina aldatzeak.

II

Kasu horretan, ezohiko eta presazko beharraren arrazoiak ere gertatzen dira, abenduaren 29ko 21/2017 Errege Lege Dekretua onartzean bezala.

Lehenik, presakoa da transposizioa osatzea; izan ere, zuzentarauaren transposiziorako epea igarota dago, eta Europako Batzordeak auzitara eraman du Espainiako Erresuma Europar Batasuneko Justizia Auzitegian, zuzentarauaren transposizioa guztiz ez osatzeagatik.

Baina Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek kalte larriak izan ez ditzaten ere presakoa da zuzentarauaren transposizioa osatzea. Transposizioa epean ez osatzearen ondorioz enpresa horiek bizi duten erregulazio-ziurgabetasunak kostu handia dakarkie, eta Europako merkatuetan duten lehiakortasunari ere eragiten dio; eta ziurgabetasun hori ez da desagertzen zuzentarauek zuzeneko eragina deritzonaren bidez.

Halaber, transposizioa epean egin ez izana eragiten hasia zaio Espainiako merkatuak beste herrialde batzuetako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak ezar daitezkeen merkatu gisa izan dezakeen erakargarritasunari. Horrelako enpresek gero eta mugikortasun handiagoa dute, eta gaur egun, horietako asko ari dira aztertzen beren helbide soziala Europar Batasuneko beste estatu kideren batera aldatzeko aukera; testuinguru horretan, erregulazio-esparru ziurra eta egonkorra egotea ezinbesteko baldintza bilakatu da, eta enpresa horiek egiten dituzten inbertsio-erabakiak eragiten ditu. Kontuan hartu behar da, gainera, Europar Batasunaren «Kapital Merkatuen Batasuna» izeneko ekimenak areagotuko egingo duela kapitalen eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen mugikortasuna Europar Batasunaren barruan. Ondorioz, nahitaezkoa eta premiazkoa da 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentaraua eta haren Eskuordetutako Zuzentaraua transposizioz jasotzen duen lege-esparru osoa edukitzea.

Azkenik, errege lege-dekretu hau onestea justifikatzen da behar berezia eta premiazkoa dagoelako Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari gainbegiratze-ahalmen eta administrazioen arteko lankidetzaren tresna berriak emateko, zeinak zuzentarauek ematen baitizkie inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak eta balore-merkatuak gainbegiratzen dituzten Europar Batasuneko erakunde publikoei. Zuzentarauek handitzen ditu agintari eskudunei aitortutako esku hartzeko ahalmenak, beraien gainbegiratze-jardueren eraginkortasuna handitze aldera, eta areagotzen ditu agintaritzaren horien eta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziaren arteko lankidetzaren betebeharrak. Horrenbestez, ahalmen berri horien eraginkortasuna bermatzeko, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Europar Batasuneko beste agintaritzaren nazional eskudunekin eta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziarekin lankidetzan jardutea sustatzeko, ezinbestekotzat jotzen da zuzentarauaren transposizioa ahalik eta lasterren osatzea.

Errege lege-dekretu honek, gainera, ez du eraginik izango estatuaren oinarritzko erakundearen antolamenduan, Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean, ez eta hauteskunderen buruzko zuzenbide orokorrean ere.

III

Beharraren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioei erantzuten die errege lege-dekretu honek. Beharraren eta eraginkortasunaren printzipioei dagokienez, tresna ezin hobea da 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren transposizio partziala gauzatzeko eta, hala, Europako zuzenbidearen arauak gure sistema juridikoan sartzeko Espainiako Erresumak dituen betebeharrak betetzeko.

Proportzionaltasunaren printzipioari dagokionez, zinez, behar den oreka gordetzen du 2014/65/EB Zuzentarauaren transposizioak: batetik, gure finantza sektorearen garapena eta lehiakortasuna sustatzen duen esparru juridiko egoki eta arina ematen du, eta, bestetik, inbertitzaileak babestea bermatzen du; horrek finantza-sektorean konfiantza handiagoa

ekarriko du, bai eta sektoreak Espainiako ekonomian bete behar dituen eginkizunak hobeto gauzatzea ere.

Segurtasun juridikoaren printzipioa indartuta geratzen da, errege lege-dekretuak bakarrik jasotzen baititu transposizioz lege-mailako arauetan jaso behar diren zuzentarauaren gaiak; aurrerago erregelamenduz garatzeko utzi ditu erregelamendu-mailako arauetan arautu behar diren gaiak (dela xehetasun maila handia dutelako, dela izaera nagusiki teknikoa dutelako).

Horrela, errege lege-dekretuak aurrera egiten du indarrean dagoen Balio Merkatuaren Legearen testu bategina finantza-merkatuen benetako esparru-lege bilakarazten, balore-merkatuen printzipioak eta oinarriak finkatzen dituen araua baita eta errespetatzen baitu legearen eta erregelamenduaren arteko bereizketa. Hori errege lege-dekretu honen lehentasunezko helburua ez bada ere, zeregin hori positiboa da, zalantzarik gabe, eta ziurtasun handiagoa ekarriko dio aplikatzekoa den sistema juridikoari. Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua (segurtasun juridikoaren printzipioari buruzkoa) berekin dakar arauak argitasuna izan behar dutela helburu, eta ez arau-nahasmena, eta saihestu behar dituztela objektiboki nahasgarriak diren egoerak. Horrela, errege lege-dekretu honen bidez aurreratutako legearen eta erregelamenduaren arteko banaketak errazten du arauen hartzaileek hobeto ulertzea arauak eta haien interpretazioa, eta aukera emango du ordenamendu juridikoa egokitzen joateko, legeak etengabe aldatzen jardun gabe, edo, behintzat, ahalik eta aldaketa gutxien eginda.

Gardentasunaren printzipioa aplikatuz, kontsulta publikoko fasean eta entzunaldi publikoko fasean, interesdunek eskuragarri izan zuten Balore Merkatuaren Legearen Aurreproiektuaren zirriborroa, eta aurreproiektu horretatik sortu dira errege-dekretu hau eta Ekonomia eta Enpresa Ministerioaren egoitza elektronikoan dauden beste zenbait dokumentu lagungarri.

Azkenik, efizientziaren printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honek ez du inolako zama administratibo gehigarririk ezartzen, salbu eta 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarautik eratorritako betebeharrak betetzeko ezinbestekoak direnak.

IV

Ondoren, errege lege-dekretu honen eduki nagusia aurkeztuko dugu, era laburrean eta oso-osorik zehaztu gabe.

Lehenik eta behin, atariko titulua aldatu egin da: xedapen orokorrak biltzen ditu, eta zehazten du zer erakunde geratzen diren Balio Merkatuaren Legearen testu bateginaren aplikazio-eremutik kanpo, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentaruarekin bat datorren edukiari dagokionez.

IV. tituluaren V. kapituluak aldatu egin da, eta jasotzen du, batetik, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aukera duela zenbait deribatutan eduki daitekeen posizio garbiaren bolumenari mugak ezartzeko, eta, bestetik, negoziazio-zentroek zenbait deribatutan dauzkaten posizioak jakinarazteko eta hedatzeko dituzten betebeharrak. Halaber, aipu egiten zaie Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduari eta hura garatzen duten Europako Batzordearen eskuordetutako egintzei eta exekuzio-egintzei, horiek baitira negoziazioaren aurreko eta osteko gardentasun-betebeharrak arautzen dituzten arauak negoziazio-zentroentzat; arlo hori da aldaketaren osotasunaren funtsezko osagarri bat.

Errege lege-dekretuak, batez ere, testu bateginaren V. tituluaren III., V. eta VI. kapituluak aldatu ditu; titulu horrek biltzen du inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresei aplikatzekoa zaien araubide juridikoa, eta berrikuntza nagusi hauek ditu: mugaz gaindiko jarduketan esparruan, sukurtsalak ezartzeari eta zerbitzuak aske ematearen inguruko gaiak arautzen dira, eta bereizi egiten dira Europar Batasunaren esparruko erregulazioa eta hirugarren herrialdeen esparrukoa. Nabarmena da, halaber, beste estatu kide batzuetan baimendutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen sukurtsalak jartzeko ez dela behar Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren alde aurreko baimenik, eta alde aurretik jakinaraztea besterik ez dela behar. Aipatzekoa da,

orobat, gure herrialdean zerbitzuak emateko askatasun-araubidean jarduten duten sukurtsalek edo erakundeek izenda ditzaketen agente lotetsien gaineko erregulazioa.

Europar Batasuneko estatu kide ez diren estatuekiko mugaz gaindiko jarduketari dagokionez, azpimarratzekoa da hirugarren herrialdeetako enpresen Espainiako jardueraren erregulazioa; nahitaez sukursal bat jarri beharko dute baldin eta txikizkako bezeroei zuzenduta badago emango duten inbertsio-zerbitzu eta -jarduera.

Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen jarduerarako betekizunen esparruko beste berrikuntza batzuk dira, hala nola negoziazio algoritmikoko jarduerak egiten dituztenean bete behar dituzten betebeharrak, testuinguru horretan merkatua sortzeko jarduera egiten denean kontuan hartu beharreko berezitasunak, eta merkatu baterako zuzeneko sarbide elektronikoa ematen dutenean bete behar dituzten eskakizunak.

Gehitu egin da V. bis titulua, Europako zuzentarau batean lehenengoz heltzen zaion errealitate bat arautzeko, datu-hornidurako zerbitzuak, hain zuzen ere, eta zehazten ditu zerbitzu horien hornitzaileek izan behar duten baimentze-prozeduraren alderdi nagusiak, eta barne-antolaketako zer eskakizun bete behar dituzten.

VII. titulua ere aldatu egin da; horretan, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek inbertitzaileen babes egokia bermatzeko bete behar dituzten jokabide-arauek jorratzen dira. Titulua luzea da, eta 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarautik datozen zenbait berrikuntza garrantzitsu txertatzen ditu. Arretaz eta gardentasunez jokatzeko eta interes-gatazkek kudeatzeko betebeharrak indartzeaz gain, nabarmentzekoak dira finantza-produktuen zaintzari eta kontrolari buruzko agindu berriak; horien ondorioz, bezeroei saltzeko finantza-tresnak diseinatzen dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek bermatu behar dute gutxieneko kalitatea dutela eta helburu duten merkatu-segmenturako egokiak direla.

Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek bezeroei eman behar dieten informazioari dagokionez, lehenik eta behin, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek bezero eta bezero potentzialeari zerbitzua eman aurretik eman beharreko informazioaren edukia zehazten da, batik bat, eskaintzen den aholkularitza motari buruz, bai eta proposatutako finantza-tresnei eta inbertsio-estrategiei, eta inbertsio-zerbitzuarekin lotutako kostu eta gastuei buruz ere. Aurreikusten da formatu normalizatu bat egotea informazio hori guztia emateko. Bereziki aipatu beharra dago zuzentarauak aholkularitza eginarazten duen bereizketa, aholkuak era independentean ematen diren ala ez argitzeko.

Bigarrenik, zerbitzua eman ondoren, inbertsio-zerbitzuetako enpresak egindako eragiketen eta zerbitzuen kostuei buruzko informazioa ere eman behar du, aintzat hartuta finantza-tresnen mota eta konplexutasuna eta zerbitzu mota.

Azkenik, arreta berezia eman zaie inbertsio-zerbitzu bat finantza-produktu baten barruan eskaintzen den kasuei, eta inbertsio-zerbitzu bat beste zerbitzu edo produktu batekin batera edo pakete baten barruan edo akordio edo pakete baten baldintza moduan eskaintzen den kasuei. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak bezeroari jakinarazi behar dio aukera duela osagaiak bereiz erosteko edo ez erosteko, eta horietako bakoitzak zer kostu eta karga dakartzan.

VII. tituluaren I. kapituluaren 7. atalak zerbitzuak ematearen ordainketei eta ordainsariei heltzen die, eta 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauko berrikuntzarik garrantzitsuenetako batzuk dakartza. Hala, esanbidez adierazi da arau orokorra non ordainsariek gatazkarik ez baitute sortzen inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak bezeroen interes onenaren arabera jarduteko duen betebeharrarekin. Zehaztu egin da zer baldintza onar daitezkeen, aholkularitza independentea eta zorroen kudeaketa diskrezionala emateko. Pizgarriak hartzeko zer betebeharrak eta baldintza bete behar diren ere zehaztu da. Hala, zenbait betebeharrak bete ezean (hala nola bezeroarentzako zerbitzuaren kalitatea handitzea), ezin izango da merkaturatzeko pizgarriak jaso jarduera egiteagatik, merkaturatzen den finantza-tresna sortu duen sozietatearen etekin orokorrak banatetik ateratzen direnez gain (bertikalki txertatutako finantza-erakundeen kasuan). Azkenik, atala amaitzen da bezeroei aholkularitza edo informazioa ematen dieten pertsonak izan behar dituzten jakintzak eta gaitasunak aipatuz.

VII. tituluaren I. kapituluaren 8. atala (azkena) bezeroen aginduak kudeatzeari eta betetzeari buruzkoa da; arlo hori ere indartu egin da inbertitzaileei babes hobea bermatzeko. Nabarmentzekoak dira prezio mugatuko aginduak betetzearen berezitasunak. Halaber, guztirako kontraprestazioaren kontzeptua sartu da, zehazteko zein den bezeroarentzako balizko emaitzarik onena beraren aginduak betetzean, eta nola alderatu behar diren exekuzio-zentroak bezeroarentzako balizko emaitzarik onena zein den zehazteko.

Beste bi elementu berri garrantzitsu agertu dira arlo horretan: lehenengoa da inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek debekatuta daukatela ordainsariak, beherapenak edo ez-diruzko onurak jasotzea aginduak negoziazio- edo exekuzio-zentro jakin batera bideratzeagatik. Eta bigarrena da urtero argitaratu behar dutela zer bost exekuzio-zentro nagusirekin lan egiten duten, eta horri gehitu behar diotela exekuzioaren kalitateari buruzko informazioa.

Ikus daitekeenez, berberak dira, funtsean, inbertitzailearen babes egokia bermatzeko Europako Zuzenbideak erabiltzen dituen tresnak eta 2004/39/EE Zuzentaraua (zeina «Mifid I» Zuzentaraua izenez ezagutzen baita eta 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren berehalako aurrekaria baita) transposizioz jasotzeko Baloreen merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legea aldatu zuen abenduaren 19ko 47/2007 Legean jasotakoak. Bien arteko aldea da orain zorrotzagoak direla bezeroa informatzeko betebeharren eskakizunak eta zehaztasuna eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa baten interes gatazkei eragiten dien edozein egoerari buruz exijitzen den kontrol maila.

Gainbegiratze-ahalmenei dagokionez, horiek aldatu egin dira, eta baten batzuk gehitu dira, 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentaruaren xedatutakoari jarraituz. Adibidez, gehitu da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ahalmenak izatea posizio baten bolumenari buruzko informazioa eskatu edo errekeritzeko, lehengaien gaineko deribatuen kontratua sinatzeko edozein pertsonaren ahalmena mugatzeko, edo zenbait finantza-tresna merkaturatzea edo saltzea eteteko.

Halaber, aldaketa nabarmenak sartu dira VIII. tituluaren II. kapituluaren (zeina beste agintaritza batzuekiko lankidetzari buruzkoa baita). Europar Batasuneko beste agintaritza batzuekiko lankidetzari dagokionez, txertatu dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduan jasotako gaiak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak isurtze-eskubideei eta Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoarekiko lankidetzari buruzkoak, bai eta nekazaritzako lehengaien gaineko deribatuei buruzko eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin lankidetzan aritzeari buruzkoak ere.

Orobat, gehitu egin da artikulua bat, horren bidez gehitzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzari jakinarazi behar diola posizioak mugatzeko edozein exigentzia eta finantza-tresna bat kontratatzeko pertsonen ahalmenari ezartzen zaion edozein muga ere.

Europar Batasuneko kide ez diren estatu batzuetako agintari eskudunekin Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak informazio-trukea barne hartzen duten lankidetzakordioak egiteko aukerari dagokionez, aipatzen da berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen eta nekazaritzako lehengaien gaineko deribatuen merkatuetan jarduten duten pertsonak gainbegiratzea, hartara, finantza-merkatuen eta eskudiruko merkatuen ikuspegia izateko.

Era berean, lau salbuespen gehitu zaizkio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak sekretu profesionala gordetzeko duen betebeharrari, honako informazio honi buruzkoak: isurtze-eskubideei buruzko informazioa, nekazaritzako lehengaien gaineko deribatuei buruzko informazioa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazional Europar Batasuneko beste agintari eskudunei ematen dien informazioa, eta Europar Batasuneko kide ez diren estatuetako beste agintari eskudun batzuekin trukatzeko duen informazioa. Betiere, aplikatu beharreko araudiaren esparruan eta berak ezarritako muga eta betekizunekin.

X. tituluan beste bi kapitulu gehitu dira, arau-haustek komunikatzeari eta haiek argitara emateari buruzkoak; horien bidez, transposizioz jasotako Europako arauditik eratorritako berrikuntzak txertatu dira.

Horren arabera, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimena baliatuta, Ekonomia eta Enpresako ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2018ko irailaren 28ko bilera eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Aldatzea urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Balore Merkatuaren Legearen testu bategina.*

Honela geratzen da urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Balore Merkatuaren Legearen testu bategina:

Bat. Honela geratzen da idatzita 1. artikulua:

«1. artikulua. *Xedea eta edukia.*

Lege honen xedea da Espainian baloreen merkatua eta inbertsio-zerbitzuak eta jarduerak erregulatzea; honako gai hauei buruzkoa da, besteak beste: finantza-tresnak jaulkitzea eta eskaintzea; finantza-tresnen konpentsazio-, likidazio- eta erregistro-sistemak eta negoziazio-zentroak; inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak baimentzeko araubidea eta funtzionatzeko baldintzak; Espainian hirugarren herrialdeetako enpresek inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak ematea; datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileak baimentzea; eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko araubidea.»

Bi. Honela geratzen da idatzita 2. artikulua:

«2. artikulua. *Lege honen mendeko finantza-tresnak.*

1. Lege honen esparruaren barruan sartzten dira eranskinean jasotako finantza-tresnak. Ahalmena ematen zaio Gobernuari artikulua honetan ageri diren finantza-tresnen zerrenda aldatzeko, Europar Batasunaren araudian ezartzen diren aldaketei egokitzea helburutzat hartuta.

2. Balore negoziagarrietz besteko finantza-tresnei lege honetan balore negoziagarrietarako aurreikusitako arauak aplikatuko zaizkie, kasuan kasu behar diren egokitzapenekin.

3. Lege honen eranskinaren b), f), g) eta j) apartatuak Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan xedatutakoarekin bat etorritz aplikatu behar dira (erregelamendu horrek osatu egiten du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen antolaketa-betekizunei, funtzionamendu-baldintzei eta zuzentarau horren ondorioetarako definitutako baldintzei dagokienez).

4. Finantza-tresnak dituen sistema aldeaniztun guztiek xedapen hauei jarraituz jardun beharko dute: edo Espainiako zuzenbidea negoziazio-sistema aldeaniztunetarako (SNM) edo Kontratazio-sistema antolatuetarako (SOC) balore-merkatuari buruz Europar Batasunak emandako araudiaren arabera egokitzeko premia neurrien abenduaren 29ko 21/2017 Errege Lege Dekretuaren xedapenei jarraituz, edo merkatu arautuetarako errege lege-dekretu horren eta lege honen xedapenei jarraituz.

5. Bezeroen aginduak betetzen dituztenean era antolatu, sarri eta sistematikoan, merkatu arautuetatik, SMNetatik eta SOCetatik kanpo beren kontura negoziatzen duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa guztiek

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren III. tituluaren arabera jardungo dute.

6. Ezertan eragotzi gabe Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoa, aurreko paragrafoetan aipatutako finantza-tresnekin egiten diren eta sistema aldeaniztunetan edo barneratzaile sistematikoetan burutzen ez diren eragiketa guztiek bete beharko dituzte dagozkien Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren III. tituluaren xedapenak.»

Hiru. Ezabatu egiten da 3. artikulua, eta ez dira berriro zenbakitzen gainerako artikulua.

Lau. Honela geratzen da idatzita 4. artikulua:

«4. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Lege honetako xedapenak aplikatu beharko zaizkie estatuko lurraldean jaulkitzen, negoziatzen edo merkaturatzen diren finantza-tresnei, egoitza Espainian duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresei, egoitza Espainian duten merkatu arautuen, SNMen edo SOCen zuzentze-erakundeei eta egoitza Espainian duten datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileei.

2. Inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak ematen dituzten edo sukurtsal bat jarriz edo sukurtsalik jarri gabe zerbitzuak emateko araubidean inbertsio-jarduerak egiten dituzten hirugarren herrialdeetako enpresei ere aplikatu behar zaizkie lege hau eta bera garatzeko xedapenak.»

Bost. Aldatu egiten da IV. tituluaren V. kapituluaren izenburua, eta gehitu egiten dira 85.etik 89.era bitarteko artikulua; honela geratzen dira idatzita:

«V. KAPITULUA

Lehengaien gaineko deribatuetako posizioen mugak

85. artikulua. *Lehengaien gaineko deribatuetako posizioen mugak eta haien kudeaketaren kontrolak.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak posizio-mugak ezarriko eta aplikatuko dizkio pertsona batek Espainiako negoziazio-zentroetan negoziatutako lehengaien gaineko deribatuetan eta negoziazio-zentrotik kanpo negoziatutako kontratu ekonomikoki baliokideetan edozein unetan izan ditzakeen posizio garbiaren bolumenari, Batzordearen 2016ko abenduaren 1eko 2017/591 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan eta lege hau garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2. Honako helburu hauekin hartuko dira aurreko apartatuan aipatutako posizio-mugak:

a) Merkatu-abusua saihesteko.

b) Prezioen eratze eta likidazio-baldintza ordenatuak errazteko, merkatua distortsionatzen duten posizioak saihestea barne hartuta: berrmatuko da, bereziki, elkarrengana hurbiltzen direla hornitze-hilabeteke deribatuen prezioak eta horiek oinarri dituzten lehengaien eskurako prezioak; horrek ez du eragotziko, haatik, deribatuek oinarri dituzten lehengaien merkaturako prezioak eratzea.

3. Posizio-mugak ez zaizkie aplikatuko erakunde ez-finantzario batek dituen edo haren izenean edukitzen diren posizioei, baldin eta objektiboki neurtu daitekeen modu batean txikiagotzen badituzte erakunde ez-finantzario horren jarduera komertzialarekin zuzenean lotutako arriskuak.

4. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek edo lehengaien gaineko deribatuak negoziatzen dituen merkatua kudeatzen duten zuzentze-erakundeek

posizio-kudeaketaren kontrolak aplikatuko dituzte, eta, horretarako, honako ahalmen hauek izango dituzte, gutxienez:

- a) Pertsonen interes irekiko posizioak gainbegiratu ahal izango dituzte.
- b) Pertsonak duten informazio honetarako sarbidea izango dute, dagokion dokumentazioa barne: hartutako posizioaren edo esposizioaren bolumenari eta xedeari buruzkoa, benetako edo azpiko onuradunei buruzkoa, hitzartutako neurriei buruzkoa, eta dagozkien azpiko merkatuko aktibo eta pasibo guztiei buruzkoa.
- c) Pertsona bati errekeritu ahal izango diote posizio bat itxi edo txikiagotu dezala, aldi baterako edo era iraunkorrean (kasuan kasukoa), eta ixtea edo txikiagotzea bermatzeko behar diren neurriak alde bakarretik hartzea, pertsona horrek betetzen ez badu errekerimendua.
- d) Beharrezkoa bada, pertsona bati errekeritu ahal izango dio aldi baterako likidezia emateko merkatuari, hitzartutako prezioan eta bolumenean, posizio zabal edo dominatzaile baten ondorioak murrizteko.

Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek edo negozioazio-zentroak kudeatzen dituzten merkatuaren zuzentze-erakundeek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinaraziko dizkiote aplikatu behar dituzten kontrolen datu xehatuak.

5. 1. eta 2. apartatuetan aipatutako posizio-mugek eta 4. apartatuan aipatutako posizio-kudeaketaren kontrolek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Gardenak izango dira, eta ez dira diskriminatzaileak izango.
- b) Zehaztuko da nola aplikatuko zaizkien pertsonari.
- c) Kontuan hartuko da merkatuko parte-hartzaileak nolakoak diren eta zer osaera duten, eta nola erabiltzen dituzten negoziatzen diren kontratuak.

6. Espainiako lurraldean dagoen edo jarduten duen edozein pertsonak errespetatu egin beharko ditu lehengaien gaineko deribatuen kontratuetarako beste estatu kide batzuetan agintari eskudunek ezarritako mugak.

7. 244. eta 245. bis artikulua betez, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak jakinaraziko dizkie Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzari eta gainerako agintari eskudunei 1. eta 2. apartatuei jarraituz ezarritako muga guztien eta 4. apartatuan aipatutako posizioak kontrolatzeko sistemen datu xehatuak.

86. artikulua. *Lehengaien gaineko deribatuetako, isurtze-eskubideetako edo isurtze-eskubideen gaineko deribatuetako posizioak jakinaraztea, posizioen titularren kategoriaren arabera.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek edo lehengaien gaineko deribatuak, isurtze-eskubideak edo isurtze-eskubideen gaineko deribatuak negoziatzen dituen merkatua kudeatzen duten zuzentze-erakundeek:

a) Asteko txosten batean argitaratuko dute zer posizio multzokatu dauzkan pertsona mota eta erakunde mota bakoitzak, beren negozioazio-zentroan negoziatzen diren lehengaien gaineko deribatuei, isurtze-eskubideei edo horien gaineko deribatuei dagokienez.

b) Egunean behin, gutxienez, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari emango diote beren negozioazio-zentroan pertsona eta erakunde guztiek dauzkaten posizioen informazio banakatu osoa, kideek edo parte-hartzaileek eta beren bezeroek dauzkaten posizioena barne.

2. Lehengaien gaineko deribatuak, isurtze-eskubideak edo horien gaineko deribatuak negozioazio-zentro batetik kanpo negoziatzen dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, astean behin, gutxienez, beren posizioen eta beren bezeroen eta haien bezeroen posizioen (azken bezeroarenetara iritsi arte) informazio banakatu osoa emango diote finantza-tresna horien negozioazio-bolumen

handiena egiten den negoziazio-zentroaren gaineko eskumena duen agintaritza nazionalari.

3. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako ondorioetarako inbertsio-zerbitzuetako enpresen funtzionatze-baldintzei eta antolaketa-betekizunei dagokienez, zuzentaru hura osatzen duen Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan ezartzen dira 1.a) apartatuan jasotako asteroko txostena egiteko betebeharrak hasten deneko gutxieneko atalase-mailak.

4. Batzordearen 2017ko ekainaren 20ko 2017/1093 (EB) Exekuzio Erregelamenduari jarraituz argitaratuko dira aurreko apartatuetan araututako txostenak eta posizioen komunikazioak (erregelamendu horren bidez ezartzen dira inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta merkatuaren zuzentze-erakundearen posizio-txostenen formatuari buruzko gauzatze-arau teknikoak). Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, bere titularraren ebazpen baten bidez, zehaztuko du apartatu horietan aurreikusitako inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta merkatuaren zuzentze-erakundearen posizio-txostenen formatua, Batzordearen 2017ko ekainaren 20ko 2017/1093 (EB) Exekuzio Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz.

5. Erregelamendu bidez garatu ahal izango dira artikulua honetan ezarritako betebeharrak.

87. artikulua. *Informazioa banakatzea.*

Aurreko artikuluan aipatutako informazioan, honako hauek bereiziko dira:

- a) Objektiboki neurtu daitekeen modu batean merkataritza-jarduerei zuzenean loturiko arriskuak txikiagotzen dituzten posizio gisa identifikatu diren posizioak.
- b) Bestelako posizioak.

88. artikulua. *Lehengaien gaineko deribatuetako posizio garbi baten bolumenari ezarritako posizio-mugak gainbegiratzea.*

86. artikuluan xedatutakoa betetzen dela gainbegiratzearen ondorioetarako, merkatu arautuetako eta SMNetako kideek edo parte-hartzaileek eta SOCen bezeroek gutxienez egunean behin jakinaraziko dizkiote dagokion zuzentze-erakundeari negoziazio-zentro horretan negoziatutako kontratuen bidez dauzkaten posizioen datu xehatuak, bai eta beren bezeroei eta haien bezeroei dagozkienak ere, azken bezeroarenetara iritsi arte.

89. artikulua. *Negoziazio-zentroen gardentasuna.*

Negoziazio-zentroek dituzten negoziazio aurreko eta osteko gardentasun-betebeharren araubidea, akzioetarako eta parekatutako tresnetarako eta bestelako tresnetarako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduan eta hura garatzen duten Europako Batzordearen eskuordetutako egintza eta exekuzio-egintzetan jasotakoa da.»

Sei. Honela geratzen dira idatzita 138. artikulua 2. eta 3. apartatuak:

«2. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, beren araubide juridiko espezifikoarekin bat etorritik, kapitulu honetan jasotzen diren inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak eta zerbitzu osagarriak; merkatu arautuetako kide izan daitezke IV. tituluaren III. kapituluaren xedatutakoari jarraituz eskatzen badute hala, eta, orobat, negoziazio-sistema aldeaniztunetako eta kontratazio-sistema antolatutako erabiltzaile izan daitezke, abenduaren 29ko 21/2017 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

3. Lege honetan inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresei eta Europar Batasuneko kide diren estatuetako agintariei buruz egiten diren aipamenek Europako Esparru Ekonomikoko estatuetakoak ere hartzen dituzte. Halaber, lege honetan

Europar Batasuneko estatu kideei buruz egiten diren aipamenek Europako Esparru Ekonomikoko estatuak ere hartzen dituzte».

Zazpi. Honela geratzen da idatzita 139. artikulua:

«139. artikulua. *Aplikazio ezaren kasuak.*

1. Lege hau ez zaie aplikatuko honako pertsona hauei:

a) Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legea aplikatu behar zaien erakundeei, lege horretan jasotako jarduerak egiten dituztenean.

b) Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak beren enpresa nagusiei, beren enpresa filialei edo beren enpresa nagusien beste filial batzuei baino ematen ez dizkieten pertsonak.

c) Inbertsio-zerbitzu bat ematen duten pertsonari, baldin eta zerbitzu hori modu osagarrian ematen badute lanbide-jarduera baten esparruaren barruan, eta jarduera hori legezko edo erregelamenduzko xedapenek araututa badago, edo zerbitzu hori ematea baztertzeko ez duen kode deontologiko profesional batek araututa badago, Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan jasotako baldintzetan.

d) Lehengaien gaineko deribatuez, isurtze-eskubideez eta horien deribatuez besteko finantza-tresnekin beren kontura negoziatzen duten pertsonari, baldin eta beste inbertsio jarduera bat ere egiten ez badute, eta beste inolako inbertsio-jarduerarik egiten ez badute lehengaien gaineko deribatuez, isurtze-eskubideez eta horien deribatuez besteko finantza-tresnekin, salbu eta pertsona horiek:

1. Merkatu-sortzaileak badira.

2. Merkatu arautu bateko edo SMN bateko kide edo parte-hartzaileak badira, edo, bestela, negoziazio-zentro baterako zuzeneko sarbide elektronikoa badute, salbu eta objektiboki neurtu daitekeen modu batean beren jarduera komertzialarekin edo beren edo beren taldeen diruzaintza-finantzaketa zuzenean lotutako arriskuak txikiagotzen dituzten eragiketarako negoziazio-zentro batean egiten dituzten erakunde ez-finantzarioak.

3. Maiztasun handiko negoziazio algoritmikoko teknikaren bat erabiltzen badute.

4. Beren kontura negoziatzen badute bezeroen aginduak betetzen dituztenean.

a), i) edo j) letren babesean salbuetsita dauden pertsonak ez dute d) letra honetan ezarritako baldintzak bete beharrik izango salbuetsita egoteko.

e) Martxoaren 9ko 1/2005 Legearen (Berotegi efektuko gasak aireratzeko eskubideen salerosketa-erregimena arautzen duena) arabera betebeharrak dituzten eragileei, baldin eta isurtze-eskubideak negoziatzean betetzen ez badituzte bezeroen aginduak eta beren konturako negoziazioa beste inbertsio-zerbitzu edo -jarduerarik ematen ez badute, betiere maiztasun handiko negoziazio algoritmikoko teknikak erabiltzen ez badituzte.

f) Soilik langileen partaidetza-sistemen kudeaketan dautzan inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak ematen dituzten pertsonari.

g) Soilik langileen partaidetza-sistemen kudeaketan edo eskusiboki beren enpresa nagusiei, beren filialei edo beren enpresa nagusien beste filial batzuei inbertsio-zerbitzuak ematean dautzan inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten pertsonari.

h) Banku zentralen Europako sistemako kideei, Europar Batasuneko antzeko eginkizunak dituzten beste erakunde nazional batzuei, Europar Batasunean zor publikoa kudeatzeaz edo horretan parte hartzen duten beste erakunde publiko batzuei, eta Europar Batasuneko bi estatu kide edo gehiago kide diren nazioarteko

finantza-erakundeei, baldin eta funtsak mobilizatzeko asmoa badute finantza-arazo larriak dituzten edo izateko arriskua duten beren kideen onurarako.

i) Inbertsio kolektiboko erakundeei, molde itxiko inbertsio kolektiboko erakundeei eta pentsio-funtsei, Europar Batasunaren esparruan koordinatuta egon zein ez egon, ez eta erakunde horien sozietate kudeatzaile eta gordailuzainei ere.

j) Lehengaien gaineko deribatuekin, isurtze-eskubideekin edo haien deribatuekin beren kontura negoziatzen duten pertsonai, merkatu-sortzaileak barne, salbu eta bezeroen aginduak betetzean beren kontura negoziatzen duten pertsonak, besteren kontura lehengaien gaineko deribatuei, isurtze-eskubideei edo haien deribatuei buruzko inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak beren jarduera nagusiko bezeroei edo hornitzaileei ematen dizkietenak, baldin eta:

1. Banakatuta zein multzokatuta ikusita, taldearen jarduera nagusiaren jarduera osagarria bada, eta jarduera nagusi hori ez bada inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematea, lege honen ikuspegitik, edo ekainaren 26ko 10/2014 Legearen arabera legez kreditu-erakundeei erreserbatutako jarduera ez bada, edo merkatu-sortzaile jarduten badute lehengaien gaineko deribatuei dagokienez.

2. Maiztasun handiko negoziazio algoritmikoko teknikarik erabiltzen ez badute.

3. Urtero jakinarazten badiote dagokion agintari eskudunari salbuespen horretan sartzan direla, eta, eskatzen dienean jakinarazten badiote zergatik irizten dioten osagarri beren jarduerari jarduera nagusiaren aldean.

Apartatu honen ondorioetarako jarduera bati osagarri irizteko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua osatzen duen Batzordearen 2016ko abenduaren 1eko 2017/592 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan xedatutakoari jarraituko zaio, jarduera bat jarduera nagusiaren osagarri dela jotzeko irizpideei buruz erregulatzeko arau teknikoei dagokienez.

k) Lege honetan araututa ez dagoen lanbide-jarduera bat burutzearen esparruan, inbertsio-arloari buruzko aholkua ematen duten pertsonai, baldin eta aholku-emate hori ez badago berariaz ordainduta.

l) Garraio-sarearen kudeatzaileei, Elektrizitatearen barne-merkatutarako arau komunei buruzko eta 2003/54/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72/EE Zuzentarauaren 2. artikulua 4. apartatuko definizioaren arabera edo gas naturalaren barne-merkatutako arau erkideei buruzko eta 2003/55/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/73/EE Zuzentarauaren 2.4 artikulua 4. apartatukoaren definizioaren arabera, baldin eta zuzentarau horiek edo Elektrizitatearen mugaz haraindiko merkataritzarako sarerako sarbide-baldintzei buruzko eta 1228/2003 (EE) Erregelamendua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 714/2009 (EE) Erregelamenduak edo Gas naturalaren garraio-sareetara sarbidea izateko baldintzei buruzko eta 1775/2005 (EE) Erregelamendua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 715/2009 Erregelamenduak, edo erregelamendu horiei jarraituz hartutako sare-kodeek edo gidalerroek ezarritako zereginak betetzen badihardute; aipatutako zuzentarau edo erregelamenduen arabera edo horiei jarraituz hartutako sare-kodeen edo gidalerroen arabera beren izenean zerbitzu-hornitzaile jarduten duten pertsonai, eta energia konpentsatzeko mekanismo baten, banaketa sare baten edo energia-eskaintzaren eta -eskaeraren arteko orekari eusteko helburua duen sistema baten operadore edo administratzaileei, horrelako jarduerak egiten dituztenean.

Salbuespen hori aplikatuko zaie goian aipatutako jardueretan parte hartzen duten pertsonai, baldin eta inbertsio-jarduerak egiten badituzte edo lehengaien gaineko deribatuekin lotutako inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematen badituzte jarduera horiek gauzatzeko. Salbuespena ez zaio aplikatuko bigarren mailako

merkatu baten kudeaketari, garraioko finantza-eskubideetarako bigarren mailako negoziazioko plataformak barne.

2. Lege honek emandako eskubideak ez zaizkio zabalduko zerbitzu publikoak kontrako alderdi gisa emateari, baldin eta eragiketa egiten badute zor publikoak negoziatzen duten erakunde publikoek edo BZESeko kideek, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren eta Europako Banku Zentralaren (EBZ) eta BZESren estatutuen 4. protokoloaren arabera, edo xedapen nazionalen arabera eginkizun baliokideak betetzean.

3. Artikulu honen babesean salbuetsita dauden pertsoneri ere aplikatuko zaie 85. eta 86. artikuluetan xedatutakoa.»

Zortzi. 139. bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«139. bis artikulua. *Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematearen inguruko beste salbuespen batzuk.*

1. Honako pertsona hauek lege honetan eta bera garatzeko xedapenetan ezarritako betekizun eta betebeharretatik kanpo geratuko dira:

a) Honetarako baimenik ez duten pertsonak eta erakundeak:

1. Bezeroen funtsak edo baloreak edukitzeko (beraz, ezin dira inoiz zor-posizioan egon bezeroekin).

2. Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak emateko, salbu eta balore negoziagarrien gaineko aginduak jasotzea eta transmititzea, edo inbertsio arloko aholkularitza ematea finantza-tresna horiei buruz.

b) Soilik lehengaietan, isurtze-eskubideetan edo horien deribatuetan inbertitzeko zerbitzuak eta jarduerak ematen dituzten eta horretan bezeroen merkataritza-arriskuei estaldura emateko beste helbururik ez duten pertsonak, baldin eta bezeroak hauek besterik ez badira: tokiko elektrizitate-enpresak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72/EE Zuzentarauaren 2.35 artikuluko definizioaren arabera, edo gas naturalaren konpainiak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko urriaren 13ko 2009/73/EE Zuzentarauaren 2. artikulua 1. apartatuko definizioaren arabera; betiere, bezero horien artean pertsona horien kapitalaren edo boto-eskubideen % 100 badute, kontrola elkarrekin badute, eta 139.1.j) artikulua arabera salbuetsita badaude inbertsio-zerbitzu eta -jarduera horiek bere kontura ematen badituzte.

c) Soilik isurtze-eskubideetan edo horien deribatuetan inbertitzeko zerbitzuak eta jarduerak ematen dituzten eta horretan bezeroen merkataritza-arriskuei estaldura emateko beste helbururik ez duten pertsonak, baldin eta bezeroak hauek titularrak besterik ez badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauaren 3.f) artikuluko definizioaren arabera, eta bezero horien artean pertsona horien kapitalaren edo boto-eskubideen % 100 badute, kontrola elkarrekin badute, eta 139.1.j) artikulua arabera salbuetsita badaude inbertsio-zerbitzu eta -jarduera horiek bere kontura ematen badituzte.

2. Aurreko apartatuaren a) letran jasotako pertsonak honako erakunde baimendu hauei transmititu diezazkiekete aginduak:

a) Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa baimenduei.

b) Zuzentarau honen arabera baimendutako kreditu-erakundeei: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/36/EB Zuzentaraua, 2013ko ekainaren 26koa, kreditu-erakundeak jardunean hasteari eta kreditu-erakundeen eta inbertsio-zerbitzuetako enpresen zuhurtziazko gainbegiratzeari buruzkoa, 2002/87/EE Zuzentaraua aldatzen duena eta 2006/48/EE eta 2006/49/EE Zuzentarauak indargabetzen dituena.

c) Hirugarren herrialde batean baimendutako kreditu-erakundeen edo inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen sukurtsalei, baldin eta zuhurtziazko arauen mende badaude eta horiek betetzen badituzte, eta agintari eskudunek araei irizten badiete lege honetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduan edo ekainaren 26ko 10/2014 Legean ezarritakoak bezain zorrotzak.

d) Estatu kide baten legeriaren arabera publikoari edo erakunde horietako kudeatzaileei partaidetzak saltzeko baimenduta dauden inbertsio kolektiboko erakundeei.

e) Kapital finkoko inbertsio-sozietateei, zuzentarau honen 17.7 artikuluko definizioaren arabera: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/30/EB Bigarren Zuzentaraua, estatu kide bateko merkatu arautu batean kotizatzen diren edo negoziatzen diren obligazioak dituen sozietate anonimoa sortzeari eta haren kapitala mantentzeari eta aldatzeari dagokionez bazkide eta hirugarrenen interesak babeste aldera, eta berme guztiak baliokide bihurtzeko, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 54. artikulua bigarren paragrafoan definitzen diren sozietateei estatu kideetan exijitzen zaizkien bermeak koordinatzera jotzen duena.

3. Lege honetan eta bera garatzeko xedapenetan ezarritako betekizunak eta betebeharrak aplikatuz kanpo geratzeko baimena lortzen duten 1. apartatuan aurreikusitako pertsonak:

a) Erregelamendu bidez ezartzen diren betekizunen eta gainbegiratze-araubidearen mende egongo dira.

b) Ezin izango dute inbertsio-zerbitzurik eta -jarduerarik eman, ez eta zerbitzu osagarrikeri ere, ez sukurtsal bat ezarrita, ez zerbitzuak aske ematearen bidez edo sukurtsalik gabe zerbitzuak aske ematearen bidez, V. tituluaren III. kapituluaren ezarritako baldintzetan.»

Bederatzi. Ordeztu egiten dira 140. eta 141. artikulua beste artikulua hauekin:

«140. artikulua. *Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak.*

1. Honako hauek joko dira inbertsio-zerbitzu eta -jardueratzat:

a) Bezeroen aginduak jaso eta transmititzea, finantza-tresna bati edo gehiagori buruz. Joko da zerbitzu honen barruan dagoela bi inbertitzaile edo gehiago elkarrekin harremanetan jartzea, beren artean finantza-tresna bat edo gehiago dela-eta eragiketarako egiteko.

b) Bezeroen kontura aginduak betetzea.

c) Norberaren kontura negoziatzea.

d) Zorroak kudeatzea.

e) Finantza-tresnak kokatzea, konpromiso sendo batean oinarritu gabe.

f) Finantza-tresnen aseguramendua edo finantza-tresnak kokatzea konpromiso sendo batean oinarrituta.

g) Inbertsioaren arloko aholkularitza ematea.

Ez da joko aholkua ematea denik, apartatu honetan xedatutakoaren eraginetarako, baloreak eta finantza-tresnak merkaturatzearen esparruan gomendio orokor eta ez-pertsonalizatuak ematea. Gomendio horiek merkataritza-izaerako komunikaziotzat hartuko dira. Halaber, ez dira gomendio pertsonalizatutzat joko publikoari bakarrik zabaltzen zaizkion gomendioak.

h) Negoziazio-sistema aldeaniztunen kudeaketa.

i) Kontratazio-sistema antolatutako kudeaketa.

2. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek inbertsio-zerbitzu bat ematen prestatzeko egiten dituen egintzak zerbitzu horren partetzat jo behar dira.

141. artikulua. *Zerbitzu osagarriak.*

Honako hauek joko dira inbertsioko zerbitzu osagarritzat:

a) Finantza-tresnak bezeroen kontura zaintzea eta administratzea, horren barnean hartuta lotutako zerbitzuak eta zaintza, hala nola diruzaintzaren eta bermeen kudeaketa, eta kanpo utzita mailarik altueneko balore-kontuen mantentzea.

b) Inbertitzaileei kredituak edo maileguak ematea, 2. artikuluan jasotakoetatik tresna bati edo gehiagori buruzko eragiketa bat egin ahal izan dezaten, baldin eta eragiketa horretan esku hartzen badu kreditua edo mailegua ematen duen enpresak.

c) Enpresei aholkua ematea kapitalaren egiturari, estrategia industrialari eta antzeko gaietarako buruz, eta enpresen bat-egite eta eskuratzeko direla-eta ematen diren aholkuak eta gainerako zerbitzuak.

d) Seguritatearekin loturiko zerbitzuak.

e) Inbertsio-txostenak eta finantza-azterketak egitea edo finantza-tresnen gaineko eragiketei buruzko bestelako gomendio orokorrak, Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 36. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Edonola ere, Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 36.1 artikuluko bi baldintzak betetzen ez dituzten gomendioak publizitate-komunikaziotzat joko dira, eta horiek aurkezten edo zabaltzen dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek bermatu behar dute hala identifikatzen direla argi eta garbi.

Halaber, gomendioak adierazpen argi eta nabari bat eduki behar du, edo, ahozko gomendioen kasuan, eragin baliokideko neurriren bat; horretan adierazi behar da gomendia ez dela egin inbertsio-txostenen independentzia sustatzeko zuzendutako xedapen arauemaileen arabera, eta ez dagoela inolako debekurik txostena hedatu aurretik negoziatzea eragozten duenik.

f) Dibisen truke-zerbitzuak, inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematearekin lotuta daudenean.

g) Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak, bai eta eranskinaren e), f), g) eta j) apartatuetan jasotako finantza-tresna eratorrien azpiko ez-finantzarioari buruzko zerbitzu osagarriak ere, inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak edo zerbitzu osagarriak ematearekin lotuta daudenean. Ulertuko da entregagarriak diren salgaien gordailua edo entrega barne dagoela.»

Hamar. Aldatu egiten da 142. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Finantza-tresnei buruzko bezeroen aginduak betetzen inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek beren kontura eduki ahal izango dituzte finantza-tresna horiek, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Posizio horiek inbertsio-enpresak bezeroengandik jasotako agindu zehatzak bete ezin izanaren ondorio baino ez izatea.

b) Posizio horien guztizko merkatu-balioak enpresaren hasierako kapitalaren % 15 gainditzen ez badu.

c) Kreditu-erakundearen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko betekizunei buruzko eta 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen duen 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduaren laugarren zatian eta 92.etik 95.era bitarteko artikuluetan ezarritako betekizunak betetzen baditu.

d) Posizio horiek ezustekoak eta behin-behinekoak badira eta delako transakzioa egiteko beharrezkoa den denbora tartera soilik mugatuta badaude».

Hamaika. Aldatu egiten dira 143. artikulua 4. eta 5. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«4. Zorroak kudeatzeko sozietateak dira 140.d) eta g) artikuluan aurreikusitako inbertsio-zerbitzuak baizik eman ezin dezaketen inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak. Halaber, 141. artikulua c) eta e) letretan ezarritako zerbitzu osagarriak eman ahalko dituzte. Enpresa horiek ez dute baimenik izango bezeroen funtsak edo baloreak edukitzeko; hori dela eta, inolaz ere ezingo dira beren bezeroekiko zordun-posizioan jarri.

5. Finantza-aholkularitzako enpresak dira soilik 140.g) artikuluan ezarritako inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak eta 141. artikulua c) eta e) letretan ezarritako zerbitzu osagarriak eman ditzaketen pertsona fisikoak eta juridikoak.

Finantza-aholkularitzako enpresen jarduerak ez ditu inola ere estaliko VI. tituluan arautzen den inbertsioen berme-funtsak. Enpresa horiek ez dute baimenik izango bezeroen funtsak edo baloreak edukitzeko; hori dela eta, inolaz ere ezingo dira beren bezeroekiko zordun-posizioan jarri.

Balore-agentziek, zorroak kudeatzeko sozietateek eta finantza-aholkularitzako enpresek ezin izango dute beren kontura egin baloreen edo eskudiruaren gaineko eragiketarik, salbu eta beren ondarea kudeatzeko, erregelamenduz ezarritako mugei lotuta betiere.»

Hamabi. Aldatu egiten dira 144. artikulua 1. eta 2. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Inongo pertsonak edo erakundeek ezingo ditu modu profesionalean edo ohikoan egin 140. artikulua eta 141. artikulua a), b), d), f) eta g) letretan ezarritako jarduerak, aginduzkoa den baimenik lortu gabe eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren edo Espainiako Bankuaren dagozkion erregistro administratiboetan izena emanda egon gabe, 2. artikuluan ezarritako finantza-tresnak direla eta; ondorio horretarako, dibisei buruzko eragiketarik sartuko dira horren barruan.

Halaber, inbertsio-zerbitzuak emateko baimena duten erakundeek baino ezin izango dituzte zerbitzu eta jarduera horiek merkaturatu eta bezeroak berenganatu profesionalki, beren kabuz edo 146. artikuluan araututako agenteen bidez.

2. «Balore-sozietatea», «Balore-agentzia», «zorroak kudeatzeko sozietatea» eta «Finantza-aholkularitzako enpresa» izendapenak, bai eta haien laburdurak ere —«B.S.», «B.A.», «Z.K.S.» eta «F.A.E.», hurrenez hurren—, erreserbatuta gelditzen dira Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren dagozkien erregistroetan izena emandako erakundeentzat, eta erakunde horiek beren izenetan jaso beharko dituzte. Beste inongo pertsonak edo erakundeek ezingo ditu izendapen edo laburdura horiek erabili, ez eta «inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa» izendapena edo inolako izendapen edo laburdura nahasgarrikerik ere.»

Hamahiru. Aldatu egiten da 145. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«145. artikulua. *Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak emateko baimendutako beste erakunde batzuk eta gordailu egituratuak merkaturatzeari aplikatu beharreko arauak.*

1. Kreditu-erakundeek, nahiz eta lege honen arabera inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak ez izan, 140. eta 141. artikuluetan ezarritako zerbitzu guztiak egin ahalko dituzte, baldin eta beren araubide juridikoa, beren estatutuek eta beren berariazko baimenak horretarako gaikuntza ematen badiete.

Kreditu-erakundeei inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak edo zerbitzu osagarriak emateko baimena ematen dien prozeduran, aginduzkoa izango da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren txostena.

Honako agindu hauek aplikatuko zaizkie kreditu-erakundeei, zerbitzu bat edo gehiago ematen dutenean edo inbertsio-jarduera bat edo gehiago egiten dutenean:

a) Lege honen 182. artikulua 1. eta 2. apartatuak, 183. artikulua 1. eta 2. apartatuak, 192. bis, 193., 194., 195., 195. bis, 196. eta 196. bis; eta abenduaren 29ko 21/2017 Errege Lege Dekretuaren 27., 30., 31., 32., 33., 34., 38., 40. eta 43. artikulua.

b) Lege honen 146. artikulua eta VII. titulua.

c) Lege honen 69. eta 164. artikulua eta abenduaren 29ko 21/2017 Errege Lege Dekretuaren 25. eta 37. artikulua.

d) Lege honen 179. eta 276. bis artikulua.

e) Lege honen VIII. titulua.

2. Honako xedapen hauek aplikatuko zaizkie inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileei eta molde itxiko inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileei, zorro-kudeaketako, aholkularitzako, zaintzeko eta administratzeko eta aginduak jaso eta transmititzeko inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dituztenean xedapen hauen mende egongo dira:

a) Lege honen 139.2 artikulua; 152. artikuluan aipatutako hasierako kapitala; 193.2 artikulua a), b), c), d), e) f) eta h) letrak; 193.3 artikulua b), d) eta e) letrak; 168.2 artikulua; eta 208. eta 209., 211., 213. eta 214., 216., 217., 218. eta 219. artikulua 1. eta 3. apartatuak.

b) Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetua (erregelamendu horrek osatu egiten du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen antolaketa-betekizunei, funtzionamendu-baldintzei eta zuzentarau horren ondorioetarako definitutako baldintzei dagokienez), Erregelamendu Eskuordetu horretan xedatutako baldintzetan.

3. Lege honen honako agindu hauek aplikatuko zaizkie kreditu-erakundeei eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresei, beren bezeroei gordailu egituratuak merkaturatzen dizkietenean edo horiei buruzko aholkuak ematen dizkietenean:

a) 182. artikulua; 183. artikulua 1. eta 2. apartatuak; 193.2 artikulua a), b), c), d) eta e) letrak; eta 194. artikulua.

b) 208.etik 220. sexiesera bitarteko artikulua.

c) 146., 147. eta 221. artikulua.

d) 197. eta 207. artikulua; 276. bisetik 276. quinquiesera bitarteko artikulua; eta lege honen VIII. titulua.

Gordailuak Bermatzeko Funtzaren gordailuak bermatzeko konpartimentuak bermatuko du kreditu-erakundeak jasotako gordailu egituratuen zenbateko nagusia.

4. 195.etik 196.era bitarteko artikulua aplikatu zaizkie 139.1 artikulua a), e), i) eta j) letratan jasotako salbuespenen arabera lege honen babesean baimena lortzera behartuta ez dauden eta merkatu arautuetako eta SMNetako kide edo parte-hartzaile direnei ere.

Hamalau. Aldatu egiten da 146. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«146. artikulua. *Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresetako agenteak.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, finantza-aholkularitzako enpresak izan ezik, agente lotetsiak izendatu ahal izango dituzte emateko baimena

duten inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak eta zerbitzu osagarriak sustatzeko eta merkaturatzeko. Halaber, agenteak izendatu ahalko dituzte negozioa erakartzeko eta, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren izenean, bezeroen aurrean ohikotasunez emateko 140.1 artikulua a) eta e) letretan jasotako inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak, bai eta finantza-tresnei eta enpresak eskaintzen dituen inbertsio-zerbitzu eta -jardueri buruzko 140.1.g) artikuluko inbertsio gaietako aholkularitzako inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak emateko ere.

2. Agenteek une oro jardungo dute haiek kontratatu dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen kontura eta haien erantzukizun osoaren eta baldintzarik gabearen pean.

3. Erregelamendu bidez arautuko da artikulua honetan eta hurrengoan xedatutakoa, eta berariaz ezarriko dira agenteen eta haiek zerbitzua ematen duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen jarduketak gainerako zein baldintza bete beharko dituen, hala nola jarduketa eskusiboa eta egokitasun-eskakizunak.».

Hamabost. Aldatu egiten da 147. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«147. artikulua. *Agenteen erregistroan inskribatzea.*

Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek kontratatutako agenteak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroan erregistratu behar dira, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan has dezaten beren jarduerak.»

Hamasei. Kendu egiten da 148. artikulua.

Hamazazpi. Aldatu egiten da 149. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«149. artikulua. *Baimentzea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak izango du inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak sortzea baimentzeko ardura. Nolanahi ere, bitarteko elektronikoz egingo da prozedura.

Baimenean jasoko da zer motatako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa den, eta zer inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak, zerbitzu osagarri eta finantza-tresna eta 142.2 artikuluan aipatutako jarduerak osagarri baimendu zaizkion.

2. Ebazpena arrazoitua izango da, eta eskaera jaso ondoko sei hilabeteko epearen barruan jakinarazi beharko dute, edota eskatutako agiriak aurkeztean bestela. Epe horretan eskaerari erantzun ez bazaio, ezezkoa eman zaiola ulertuko da.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak emandako baimena baliozkoa izango da Europar Batasun osoan, eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresari aukera emango dio Europar Batasun osoan emateko edo egiteko baimendu zaizkion zerbitzu eta jarduerak, bai kokatzeko eskubidearen babesean, sukurtsalena barne, bai zerbitzuak aske ematearen babesean.

Baimena lortzeko eta kontserbatzeko, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek une oro bete behar dituzte baimena lortzeko betekizun orokorrak eta espezifikoak, bai eta kapitulu honetan eta IV. eta V. kapituluetan, VI. kapituluaren 1., 2., 3. eta 4. ataletan eta VII. tituluaren, eta abenduaren 29ko 21/2017 Errege Lege Dekretuaren II. tituluaren jasotako xedapenak ere.

3. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek ezingo dute egin 1. apartatuan aipatzen den baimenean esanbidez jasota ez dauden finantza-tresnen gaineko inbertsio-zerbitzurik eta -jarduerarik eta zerbitzu osagarriarik. Halaber, inoiz ere ez da baimenik emango soilik zerbitzu osagarriak egiteko.

4. Negoziazio-sistema aldeaniztun baten edo kontratazio-sistema antolatutako kudeaketa-zerbitzua emateko, orobat, merkatu arautuen zuzentze-erakundeak baimendu ahalko dira, bai eta zuzentze-erakunde batek edo batzuek horretarako eraturiko erakundeak ere; horiek helburu sozial eskusibo izan beharko dute sistema

kudeatzea, eta zuzentze-erakunde batek edo batzuek eduki beharko dute haien partaidetzaren % 100, eta, betiere, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan eta egokitzapenekin, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek kapitulu honetan ezarritako baimena lortzeko bete beharreko betekizunak bete behar dituzte.

5. Erregelamenduz arautuko da inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak baimentzeko administrazio-prozedura.»

Hemezortzi. Aldatu egiten da 151. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«151. artikulua. *Beste enpresa batzuek kontrolatutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak baimentzea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aldez aurretik kontsultatuko du Europar Batasuneko dagokion estatu kidearekin inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa baten baimena, finantza-gainbegiratzearen pean dagoen beste erakunde batek kontrolatu behar badu enpresa berria. Erregelamenduz garatuko da artikulua honetan aurreikusitakoa, kontsulta horiek egin behar diren kasuak barne.

2. Europar Batasuneko kide ez den estatu batean baimendutako edo helbideratutako enpresa batek edo batzuek zuzenean edo zeharka kontrolatuta egongo diren inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen sorreraren kasuan, eskatutako baimena ematea eten beharko da edo haren eraginak ukatu edo mugatu beharko dira, baldin eta Espainiari Europar Batasunak hartutako erabaki bat jakinarazten bazaio, zeinean egiaztatzen baita Europar Batasuneko inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek ez dutela estatu horretan hartzen erakunde nazionalak ematen zaizkien lehia-baldintza berak eskaintzen dituen tratamendua, eta ez direla betetzen merkatura sarrera efektiboa edukitzeko baldintzak.»

Hemeretzi. Aldatu egiten da 152. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«152. artikulua. *Baimena emateko betekizun orokorrak.*

1. Erakundeek honako betekizun hauek bete beharko dituzte: sozietatearen, finantzen eta gobernu korporatiboaren arloko betekizunak; inbertsioen berme-funtsari atxikita egotea; erregelamendu bidez zehaztutako kapitalen zuriaketa saihestearekin loturiko prozedurak, barne-antolakuntzako prozedurak eta jokabide-arauak betetzea.

2. Artikulu honetan jasotako betekizunak erregelamendu bidez garatzean kontuan hartu beharko da zer inbertsio-zerbitzu eta -jarduera eta zerbitzu osagarri emateko baimena duten enpresek, bereziki, gutxieneko kapital soziala eta gutxieneko baliabide propioak ezartzeari dagokionez.»

Hogei. Aldatu egiten da 153. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«153. artikulua. *Baimena emateko berariazko betekizunak.*

1. Finantza-aholkularitzako enpresa gisa jarduteko baimena eskatzen duten pertsona fisikoek erregelamendu bidez zehaztutako diren baimena emateko berariazko betekizunak bete beharko dituzte.

2. Baimen-eskaera SMN edo SOC bat kudeatzeko zerbitzu bat emateko izanez gero, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak, zuzentze-erakundeak, edo, hala badagokio, zuzentze-erakunde batek edo gehiagok horretarako sortutako erakundeak, SMNaren edo SOCaren funtzionamenduko barne-arauak aurkeztu behar ditu Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onar ditzan, erregelamendu bidez zehaztutako diren baldintzetan.»

Hogeita bat. Aldatu egiten dira 155. artikulua a), e) eta f) letrak, eta honela geratzen dira idatzita:

«a) Baldin eta balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi ez bazaio zer akziodunek edo bazkidek dauzkaten partaidetza handiak (zuzenekoak nahiz zeharkakoak izan, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan) eta zein den partaidetza horien zenbatekoa, eta entitatearen kudeaketa on eta zuhurra bermatzeko behararen ikuspegitik egoki irizten ez bazaio partaidetza handia izango duten akziodunen edo bazkideen egokitasunari, 174. artikuluan definitzen den moduan, eta Batzordearen 2016ko uztailaren 14ko 2017/1943 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 9. artikuluari jarraituz.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak txosten bat eskatuko dio Kapitalen Zuritzeari eta Arau-hauste Monetarioei Aurrea Hartzeko Batzordeko Zerbitzu Exekutiboari, Batzordearen 2016ko uztailaren 14ko 2017/1943 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 9.c) artikuluan xedatutakoaren balioespen egokia lortze aldera; eta Zerbitzu Exekutibo horri helaraziko dio partaidetza handia izango duten akziodunei edo bazkideei buruz jaso duen eta balioespenerako garrantzitsua izan daitekeen informazio guztia. Zerbitzu Exekutiboak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari txostena igorriko dio, hogeita hamar egun balioduneko gehieneko epean, aipatutako informazioa duen eskaera jasotzen duen egunetik hasita.

Artikulu honetan akziodunei edo bazkideei buruzko erreferentziak enpresaburuei buruzkoak direla ulertuko da pertsona fisikoak diren finantza-aholkularitzako enpresen kasuan.»

«e) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala konbentzita ez badago merkatuaren zuzentze-erakundeko zuzendaritza-organoko kideek zintzotasun, ezagutza, gaitasun eta esperientzia nahikoa dutela eta behar adinako denbora ematen dutela beren zeregina betetzen, edo arrazoi objektiboak badaude uste izateko inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren administrazio-organoko edo haren benetako zuzendaritzaz arduratzen diren pertsonak arriskua dakartela hura eraginkortasunez, egokiro eta zuhurtasunez kudeatzeko eta kontuan hartu beharreko merkatuaren osotasunerako.

f) Interes-gatazka larriak daudenean, batetik, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren administrazio-organoko kideen, edo enpresaburuaren, pertsona fisikoak diren finantza-aholkularitzako enpresen kasuan, kargu, erantzukizun edo eginkizunen, eta, bestetik, aldi berean dituzten beste kargu, ardura edo eginkizunen artean.»

Hogeita bi. Gehitu egiten zaio 5. apartatua 156. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«5. Ez dute Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren alde aurreko baimenik behar, eta ez zaizkio gero Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi behar aurreko apartatuetan jasota ez dauden estatutu sozialen aldaketak, baldin eta loturarik ez badute sozietatea inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa gisa duen izaera espezifikoarekin, edo horrelako erakundeek bete behar dituzten betekizunekin.»

Hogeita hiru. Aldatu egiten da 158. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«158. artikulua. *Administrazio- eta zuzendaritza-kargu berriak izendatzea.*

1. Erregelamendu bidez zehaztuko diren moduan eta epeetan, izendapen hauek jakinarazi behar zaizkio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari:

a) Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresako administrazio-organoko edo goi-zuzendaritzako kide berriak.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 4.1.2).c) artikuluan jasota ez dauden inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak kontrolatzen dituzten erakundeetako administrazio-organoko edo goi-zuzendaritzako kide berriak, baldin eta kontrola duten erakunde horiek zorroko finantza-sozietateak edo zorroko finantza-sozietate mistoak badira.

2. Halaber, erregelamendu bidez zehaztuko diren eran eta epeetan, izendapen hauek jakinarazi behar zaizkio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, administrazio-organoko kide ez badira: barne-kontrolako eginkizunen arduradunak, finantza-zuzendari berriak eta giltzarrizko beste lanpostu batzuk, baldin eta, arriskuan oinarritutako ikuspegi baten arabera, hala izendatu badira inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren eta 1. apartatuaren b) letran aipatutako kontrola duten enpresen jarduera egunero gauzatzerako, eta baldin badira:

- a) Oinarri kontsolidatuko erakunde handiak.
- b) Talde baten barruan dauden erakunde handiak, baldin eta inbertsio-zerbitzuetako enpresa erakunde handia ez bada oinarri kontsolidatuari dagokionez.
- c) Talde baten barruan ez dauden erakunde handiak.

2. apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, erregelamendu bidez zehaztuko da zer inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa joko diren erakunde handizat.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala izendapen horien aurka egin ahalko du, arrazoiak emanez, komunikazioa jaso eta lau hilabeteko epean, baldin eta jotzen bada pertsona horiek ez dituztela egokitasun-eskakizunak betetzen 184. bis artikuluan xedatutakoaren arabera, edo arrazoi objektibo eta frogagarriak daudenean sinesteko proposatutako aldaketek arriskuan jar dezaketela erakundearen edo hura kide deneko taldearen kudeaketa egokia eta zuhurra, eta kontuan hartu beharreko merkatuaren osotasunerako eta bezeroen intereserako.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabakitzen badu dokumentazio eta informazio gehiago behar dituela ebaluazioa osatzeko, lau hilabeteko epea eten ahal izango da dokumentazio eta informazio gehigarriak eskatzen den unetik haiek jaso arte, eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean ebatzi beharko da aldi hori hasten den unetik.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari kargu berriak jakinaraztea nahikoa izango da kasu hauetan: administrazio-organoko edo goi-zuzendaritzako kideak, barne-kontrolako eginkizunen arduradun, eta finantza-zuzendariak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresa kontrolatzen duen erakundeko giltzarrizko postuak baldin eta Europar Batasunaren beste erakunde gainbegirale batzuen baimena behar duten inbertsio-zerbitzuetako enpresa kontrolatzen duen erakunde barneko beste giltzarrizko postuak.»

Hogeita lau. Honela geratzen da idatzita 160. artikulua:

«160. artikulua. *Baimena errebokatzea.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako enpresa bati edo 145.2 artikuluan aipatzen diren erakundeetako bati edo Europar Batasuneko kide ez diren estatuetan egoitza duen erakunde baten sukurtsal bati emandako baimena honako kasu hauetan errebokatu ahalko da:

a) Baldin eta ez badie hasiera ematen baimendutako jardueri baimena jakinarazi eta hurrengo hamabi hilabeteetan, interesdunari egoztekoa zaion arrazoi bat tarteko.

b) Baldin eta baimenari espresuki uko egiten badio, alde batera utzita beste erakunde bat bihurtzen den edo desegitea erabakitzen duen.

c) Baldin eta baimendutako berariazko jarduerak egitez eteten baditu sei hilabetez baino denbora gehiagoz.

- d) Baldin eta erregelamenduz normaltzat ezarritakoaz beherako jarduerabolumen bat baldin badauka urtebetez.
- e) Baldin eta geroztik urratzen badu baimena lortzeko edozein betekizun.
- f) 190.1.a) eta 193.2.c), e) eta f) artikuluetan ezarritako betebeharren ez-betetze larri eta sistematikoaren kasuan.
- g) 180.1 artikuluan ezarritako kasua gertatzen denean.
- h) Inbertsio-zerbitzuetarako enpresa edo pertsona edo erakundea epaiketa bidez konkurtsopean dagoela adierazi bada.
- i) Zehapen modura, lege honen VIII. tituluaren aurreikusitakoaren arabera.
- j) Baldin eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak VI. tituluaren xedatutako inbertsioen berme-funtseko kide izateari uzten badio.
- k) Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 360. eta 363. artikuluetan aurreikusitako desegite-kausetako bat gertatzen denean.
- l) Baimena adierazpen faltsuen bidez edo arauz kanpoko beste edozein modutan eskuratu badu.
- m) Baldin eta era larriz eta sistematikoz hausten badira inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen funtzionamenduari eta beraren inbertsio- buruzko xedapenak, lege honen, lege hau garatzeko araudiaren edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera.

2. Salbuespenez baino ezin izango da errebokatu baimena bazkideren baten egokitasun-faltagatik, 180. artikuluan jasotakoaren arabera.

Administrazio-organoko edo goi-zuzendaritzako kideen merkataritza- edo lanbide-zintzotasunik ezagatik bakarrik errebokatu ahal izango da baldin eta ukituek beren karguak uzten ez badituzte hilabeteko epean, horretarako Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak helarazten dion errekerimendua jasotzen dutenetik. Ez da joko gerora sortutako zintzotasunik eza dagoela, kontseiluko kideren edo zuzendariren bat bere karguaren jardunean ari dela delituren batengatik ikertua edo auzipetua izate hutsagatik.»

Hogeita bost. Aldatu egiten da 161. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«161. artikulua. *Baimena errebokatzeko prozedura.*

1. Baimena errebokatzera Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera egingo da, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala arduratuko da hura izapidetzeaz eta ebazteaz.

2. Erregelamendu bidez garatuko da artikulua honetan jasotakoa, errebokatzearen ondorioz erakundea nahitaez desegitea Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabaki ahal izatea barne.»

Hogeita sei. Aldatu egiten da 162. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Etetea erabakiko da soilik aurreko apartatuan jasotako arrazoietakoa bat gertatu eta neurria beharrezkoa denean erakundearen kaudimena segurtatzeko edo inbertitzaileak babesteko. Erabakitako etetearen iraupena ezin izango da urtebete baino luzeagoa izan, eta beste urtebeteko luzapena izan dezake, zehapena denean izan ezik.»

Hogeita zazpi. Aldatu egiten da V. tituluaren III. kapitulua, eta honela geratzen da idatzita:

«III. KAPITULUA

Sukurtsalak eta zerbitzuak libreki ematea

1. atala. Europar Batasuna

164. artikulua. *Xedapen orokorrak.*

1. Atal honetan arautzen den Europar Batasuneko mugaz gaindiko jarduketako araubidea aplikatzekoa zaie Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresei eta Europar Batasuneko beste estatu kideren bateko agintari eskudunek baimendutako eta gainbegiraturako enpresei, bai eta Europako Esparru Ekonomikoko beste herrialderen bateko agintari eskudunek baimendutako eta gainbegiraturako enpresei ere, baldin eta inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak edo zerbitzu osagarriak ematea erabaki badute, horiek guztiak baimenaren barruan egonda, Espainian edo Europako Eremu Ekonomikoko beste estaturen batean.

2. Aurreko atalean aipaturako zerbitzuak edo jarduerak emate hori eman ahal izango da zerbitzuak aske emateko araubidean, sukurtsal bat eratuz, edo agente lotetsiak erabiliz, sukurtsalik eduki ezean.

165. artikulua. *Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen sukurtsalak eta agente lotetsiak Europar Batasuneko estatu kideetan.*

1. Europar Batasuneko beste estatu kide baten lurraldean sukurtsal bat jarri nahi duen edo sukurtsalik izan ezean han finkaturako agente lotetsiak erabili nahi dituen Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako edozein enpresak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko dio alde zuzenetik.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, bere erantzukizunak egikaritzean eta harrerako estatu kideko agintari eskudunari jakinarazi ondoren, «in situ» ikuskapenak egin ahal izango ditu Europar Batasuneko beste estatu kide baten lurraldean zerbitzuak ematen ari den Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen sukurtsaletan.

3. Erregelamendu bidez garatu ahal izango da artikulua honetan jasotakoa, bereziki, 1. apartatuan jasotako jakinarazpenaren edukia, eta, hala badagokio, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak berari Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak helarazitako informazioa harrerako estatu kideko agintari eskudunari igortzea.

166. artikulua. *Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek Europar Batasuneko estatu kideetan zerbitzuak aske ematea.*

1. Zerbitzuak aske emateko araubidean Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko lurraldean inbertsio-zerbitzuak edo -jarduerak edo zerbitzu osagarriak lehenengo aldiz eman nahi dituen, edo araubide horren pean ematen dituen inbertsio-zerbitzuen edo -jardueren edo zerbitzu osagarrien gama aldatu nahi duen Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa orok horixe jakinarazi beharko dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

2. Erregelamendu bidez garatu ahal izango da artikulua honetan jasotakoa, bereziki, 1. apartatuan jasotako jakinarazpenaren edukia, eta, hala badagokio, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak berari Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak helarazitako informazioa harrerako estatu kideko agintari eskudunari igortzea.

167. artikulua. *Europar Batasuneko estatu kideetako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen Espainiako sukurtsalak.*

1. Europar Batasuneko beste estatu kideren batean baimendutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek Espainiak sukurtsalak jartzeko, edo, sukurtsalik eduki ezean, agente lotetsiak erabiltzeko, ez da aldez aurreko baimenik beharko, baldin eta dagozkion zerbitzuak eta jarduerak jatorrizko estatu kidean enpresari eman zaion baimenaren barruan badaude.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, Espainian sukurtsal bat irekitzeko, edo, sukurtsalik ezean, Espainian kokatutako agente lotetsiak erabiltzeko, baldintza izango da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren jatorrizko estatu kideko agintari eskudunaren komunikazio bat jasotzea. Komunikazio horrek dagozkion erregelamenduzko xedapenetan zehaztutako informazioa jaso beharko du.

Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak Espainian kokatutako agente lotetsi bat erabiltzen badu, agente lotetsia sukurtsal baten parekotzat joko da, sukurtsalen bat ezarri bada, eta lege honetan sukurtsaletarako ezarritako araubidea aplikatuko zaio.

3. Erregelamendu bidez garatu ahal izango da artikulua honetan jasotako, eta, bereziki, sukurtsalak irekitzeko eta ixteko prozedura eta zer araubide aplikatuko zaion agente lotetsiaren jardunari.

168. artikulua. *Europar Batasuneko estatu kideetako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen Espainiako sukurtsalak gainbegiratzea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erantzukizuna izango da egiaztatzea Espainiako lurraldean sukurtsalak edo, hala badagokio, sukurtsalik ez dagoenean, agente lotetsiak, ematen dituen inbertsio-zerbitzu edo -jarduerak edo zerbitzu osagarriek betetzen dituztela lege honetan, eta, bereziki, 203.etik 224.era bitarteko artikuluetan, V. tituluaren I. kapituluaren eta horiek garatzeko xedapenetan ezarritako betebeharrak, bai eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 14.etik 26.era bitarteko artikuluetan ezarritakoak ere.

2. Halaber, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak 194. artikuluan ezarritako betebeharraren kontrola bere gain hartuko du sukurtsalak, edo sukurtsalik egon ezean agente lotetsiak, egindako eragiketen erregistroari dagokionez; horrek ez du eragozten, baina, jatorrizko estatuko agintari eskudunak erregistro horretan zuzenean sartu ahal izatea.

3. 1. eta 2. apartatuetan adierazitakoa gorabehera, jatorrizko estatu kideko agintari eskudunak sukurtsalaren gaineko bertatik bertarako ikuskapenak egin ahaliko ditu, bere erantzukizunetan diharduela eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari informazioa eman ondoren.

4. Erregelamendu bidez garatu ahal izango da artikulua honetan ezarritakoa, artikulua honetan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak dituen ahalmenak barne.

169. artikulua. *Europar Batasuneko estatu kideetako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek Espainian zerbitzuak aske ematea.*

1. Europar Batasuneko estatu kide batean baimendutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak lehenengo aldiz Espainian inbertsio-zerbitzu edo -jarduerak zein zerbitzu osagarriak zerbitzuak aske emateko araubidean egiten hasi ahal izango dira Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erakundearen jatorriko estatu kideko agintari eskudunaren jakinarazpen bat jaso ondoren, erregelamendu bidez ezarritako informazioarekin eta baldintzetan.

2. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak edo kreditu-erakundeak bere jatorrizko estatu kidean kokatutako agente lotetsiak erabiltzeko asmoa badu,

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Espainiako Bankuak publikoko emango dute haiek nor diren, jatorrizko estatu kideko agintari eskudunak informazio hori helarazi ondoren.

170. artikulua. *Prebentzio-neurriak.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak arrazoi argiak eta frogagarriak dituenean uste izateko sukurtsal baten bidez edo, hala badagokio, sukurtsalik ez dagoenean Espainian kokatutako agente lotetsi baten bidez, edo zerbitzuak aske emateko araubidean, Espainian diharduen Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek hausten dituela 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren ondorioz hartutako xedapen nazionalak, egitateak jakinaraziko dizkio jatorrizko estatu kideko agintari eskudunari.

Baldin eta, jatorrizko estatu kideko agintari eskudunak hartutako neurriak gorabehera, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak jarduera argi eta garbi kaltegarri bat atxikitzen badu inbertitzaileen Espainiako interesetarako edo merkatuen funtzionamendu zuzenerako, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, jatorrizko estatu kideko agintari eskudunari horren berri eman ondoren, egoki diren neurri guztiak hartuko ditu, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa arau-hausleek Espainiako lurraldean eragiketa gehiago egitea galarazteko aukera barne. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak luzamendurik gabe emango die neurri horien berri Europako Batzordeari eta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari eskatu diezaioke jardun dezala 2010eko azaroaren 24ko 1095/2010 (EB) Erregelamenduaren 19. artikulua ematen dizkion ahalmenen arabera.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, baldin eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egiaztatzen badu erkidegoko inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa baten Espainiako sukurtsalak, edo sukurtsalik ez dagoenean enpresa horren agente lotetsiak, ez dituela betetzen lege honetan (berezi V. tituluaren I. kapituluaren eta 203.etik 224.era bitarteko artikuluetan, eta horiek garatzeko xedapenetan) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 14.etik 26.era bitarteko artikuluetan ezarritako betebeharrak, bere egoera irregularra amai dezala exijituko dio inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresari.

Baldin eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak ez badu horretarako neurri egokirik hartzen, egoera horri amaiera emateko behar diren neurri guztiak hartuko ditu Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, eta jatorrizko estatu kideko agintari eskudunari jakinarazi beharko die zer neurri hartu dituen.

Baldin eta, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak hartutako neurriak gorabehera, enpresak lege honetan eta beronen garapen-arauetan jasotako xedapenak urratzen jarraitzen badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak enpresa zigortu dezake, jatorrizko estatu kideko agintari eskudunari horren berri eman ondoren, eta, hala badagokio, Espainiako lurraldean eragiketa gehiago egitea debeka diezaioke. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak luzamendurik gabe emango die neurri horien berri Europako Batzordeari eta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari eskatu diezaioke jardun dezala Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko azaroaren 24ko 1095/2010 (EB) Erregelamenduaren 19. artikulua ematen dizkion ahalmenen arabera.

3. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzeko hartutako neurri oro, zehapenak edo inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa baten jardueren murrizketak dakartzana, behar bezala arrazoitu beharko da, eta ukitutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresari jakinarazi beharko zaio.

4. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako kreditu-erakundeen kasuan, baimenduta badaude Espainiako lurraldean inbertsio-zerbitzuak edo -jarduerak edo zerbitzu osagarriak emateko, dela zerbitzuak emate askearen araubidean, dela establezimendu askearen araubidean.

2. atala. Hirugarren estatuak

171. artikulua. *Xedapen orokorrak.*

1. Honako arlo hauek arautzen ditu atal honek:

a) Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek inbertsio-zerbitzuak edo -jarduerak edo zerbitzu osagarriak Europar Batasuneko kideak ez diren estatuetan ematea, zerbitzuak aske emateko araubidean edo sukurtsal bat jarrita edo Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratutako beraren enpresa talde kontsolidagarriko erakunde batek han kokatutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren bat eratuta edo eskuratuta.

b) Hirugarren herrialdeetako enpresek inbertsio-zerbitzu edo -jarduerak eta zerbitzu osagarriak Espainian ematea, sukurtsal bat jarrita edo zerbitzuak aske emateko araubidean, baldin eta, azken kasu horretan, enpresak ez badaude erregistratuta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziaren hirugarren herrialdeetako enpresen erregistroan, zeina Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 48. artikuluan aipatzen baita.

2. Hirugarren herrialde bateko enpresa batek lege honen 205. artikulua aipatzen dituen bezero profesional edo txikizkariari inbertsio-zerbitzu edo -jarduerak (zerbitzu osagarriekin zein horiek gabe) eman nahi badizkie, sukurtsal bat ezarri beharko du Espainian, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari (inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa bada) edo Espainiako Bankuari (kreditu-erakundea bada) dagokion baimena eskatu behar dio, lege honen 173. artikuluan eta hura garatzeko xedapenetan jasotako baldintzetan (inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen kasuan) edo ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 13. artikuluan eta hura garatzeko xedapenetan jasotako eran eta baldintzetan.

Halaber, jarduera-bolumenaren eta produktu eta zerbitzuen konplexutasunaren ondorioz, edo interes orokorreko arrazoiengatik, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak 205. eta 207. artikuluek hurrenez hurren aipatzen dituzten bezero profesionalari edo kontrako alderdi hautagarriari inbertsio-zerbitzu edo -jarduerak (zerbitzu osagarriekin zein horiek gabe) eman nahi dien hirugarren herrialdeko enpresari exijitu ahal izango dio Espainian sukurtsala jar dezala; enpresak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari (inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa bada) edo Espainiako Bankuari (kreditu-erakundea bada) dagokion baimena eskatu behar dio aurreko paragrafoan azaldutako eran eta baldintzetan.

3. Erregelamendu bidez garatu ahal izango da artikulu honetan xedatutakoa, Espainian kokatutako pertsona bati bere ekimen hutsez inbertsio-zerbitzuak edo -jarduerak ematek eratorritako berezitasunak eta bezeroak erakartzea barne.

172. artikulua. *Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen mugaz gaindiko jarduketa Europar Batasuneko kideak ez diren estatuetan.*

1. Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, Europar Batasuneko kide ez den estatu batean sukurtsal bat ireki nahi badute edo sukurtsalik gabe zerbitzuak eman nahi badituzte, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimena lortu beharko dute aldez aurretik.

2. Halaber, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimena beharko da Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek edo beraren enpresa talde kontsolidagarriko erakunde batek atzerriko inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa bat sortzeko, edo dagoeneko existitzen den enpresa bateko partaidetza bat eskuratzeko, baldin eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa hori Europar Batasuneko kide ez den estatu batean eratzekoa bada edo helbideratuta badago.

3. Erregelamendu bidez garatuko dira artikulua honetan jasotako baimentze-prozedurak, eskaerak ezesteko arrazoiak barne.

173. artikulua. *Hirugarren herrialdeetako enpresen mugaz gaindiko Espainiako jarduketa.*

1. Espainian inbertsio-zerbitzu edo -jarduerak ematen dituzten hirugarren herrialdeetako enpresei (zerbitzu osagarriekin zein horiek gabe) lege hau eta bera garatzeko arauak aplikatuko zaizkie.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimena beharko dute (erregelamendu bidez zehaztuko diren eran eta baldintzetan) beren administrazio zentrala edo egoitza soziala Europar Batasuneko kide ez den estatu batean dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak Espainian emateko, zerbitzu osagarriekin zein horiek gabe, sukurtsalen bat jarrita zein zerbitzuak aske emateko araubidean, baldin eta, azken kasu horretan, enpresak ez badaude erregistratuta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziaren hirugarren herrialdeetako enpresen erregistroan, zeina Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 48. artikuluan aipatzen baita. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eman behar duen ebazpena aldekoa zein aurkakoa izan, gehieneko epea esanbidezko ebazpenik jakinarazi gabe igarotzeak ebazpena aurkakoa izatea ekarriko du berekin.

Halaber, aurreko paragrafoaren arabera Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak emandako baimenaren baldintzetan aldaketarik egonez gero, horien berri emango dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, idatziz, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak. Erregelamendu bidez garatuko da zer aldaketak beharko duten Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimena, eta nola eta zer baldintzatan tramitatuko diren.

3. Espainiako Bankuaren baimena beharko dute (ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 13. artikuluan eta bera garatzeko xedapenetan ezarritako baldintzetan) beren administrazio zentrala edo egoitza soziala Europar Batasuneko kide ez den estatu batean dituzten kreditu-erakundeek, inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak Espainian emateko, zerbitzu osagarriekin zein horiek gabe, sukurtsalen bat jarrita zein zerbitzuak aske emateko araubidean, baldin eta, azken kasu horretan, ez badaude erregistratuta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziaren hirugarren herrialdeetako enpresen erregistroan, zeina Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 48. artikuluan aipatzen baita, erregelamendu horren 46. artikuluan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

4. Esparru juridikoa eta gainbegiratze-esparrua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 47.1 artikuluan arabera Europako Batzordeak baliokide gisa aitortu dizkien hirugarren herrialdeetako enpresek, baldin eta baliokidetza-erabakia indarrean badago, eta inbertsio-zerbitzu edo -jarduerak emateko (zerbitzu osagarriekin zein horiek gabe) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren edo Espainiako Bankuaren baimena daukan sukurtsalik badu Espainian, zerbitzu edo jarduera horiek eman ahal izango dizkie Europar Batasuneko beste estatu kideetan bezero profesionaleri eta kontrako alderdi hautagarriari, zeinak lege honen 205. eta 207. artikuluetan definitzen baitira, lege honen 166. artikuluan ezarritako informazio-betekizunak bete ondoren.»

Hogeita zortzi. Aldatu egiten da 174. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Lege honen ondorioetarako, handitzat joko da Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa bateko partaidetza, baldin eta gutxienez enpresaren kapitalaren edo enpresako akzioei esleitutako boto-eskubideen % 10ekoa bada, edo partaidetza dueneko inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren kudeaketan eragin handia egitea ahalbidetzen badio, kontuan hartuta urriaren 19ko 1362/2007 Errege Dekretuaren (zeinak Balore-merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legea garatzen baitu merkatu erregulatu batean edo Europar Batasuneko beste merkatu erregulatu batean negoziagarritzat onartzen diren balioak dauzkaten gardentasun-betekizunei dagokienez) 26. eta 27. artikuluetan ezarritako boto-eskubideak zenbatzeari eta eransteari buruzko baldintzak.»

Hogeita bederati. Aldatu egiten da 175. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batean partaidetza handi bat zuzenki zein zeharka, bere kabuz edo beste batzuekin hitzartuta, eskuratzea edo zuzenki zein zeharka horretan duen partaidetza handitzea erabaki duen pertsona fisiko edo juridiko orok —aurrerantzean, eskuratzaille potentziala—, baldin eta horren bidez lortutako boto-eskubidea edo kapitala % 20, % 30 edo % 50etik gorakoa bada, edo eskuratzearen ondorioz —aurrerantzean, proposatutako eskuratzea— inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa kontrolatzeko aukera badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko dio alde zuzenetik.»

Jakinarazpen horretan, adieraziko du proposatutako eskuratzearen zenbatekoa, eta erantsiko du Batzordearen 2017ko uztailaren 11ko 2017/1946 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren arabera adierazitako informazio guztia (Batzordearen 2017ko uztailaren 11ko 2017/1946 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, zeinak osatzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/39/EE eta 2014/65/EB Zuzentarauak, erregulazio-arau teknikoek dagokienez, eskuratzaille potentzialak inbertsio-enpresa batean partaidetza kualifikatu bat eskuratzeko proposamen baten jakinarazpenean erantsi behar duten informazioaren zerrenda zehatza ezartzeko helburuarekin). Informazio horrek ebaluaziorako egokia eta proportzionala izan beharko du, eskuratzaille potentzialaren eta proposatutako eskuratzearen ezaugarrien arabera.»

Hogeita hamar. Aldatu egiten da 176. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«176. artikulua. *Proposatutako eskuratzearen ebaluazioa.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, eskuratzea proposatzen duen inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren kudeaketa on eta zuzurra bermatzeko, eta eskuratzaille potentzialak haren gainean izan dezakeen eraginari erreparatuta, ebaluatuko du eskuratzaille hori egokia den eta proposatutako eskuratzek sendotasun finantzarioa duen, Batzordearen 2016ko uztailaren 14ko 2017/1946 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 9. artikuluan jasotako irizpideei jarraituz.

2. Erregelamendu bidez garatuko da artikulua honetan jasotako prozedura, barne hartuta ebaluazio-irizpideak, ebaluazioa egiteko epea eta zer arrazoiengatik aurka egin dezakeen, hala badagokio, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak.»

Hogeita hamaika. Aldatu egiten da 177. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«177. artikulua. *Agintari gainbegiraleen arteko lankidetz*a.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, 176.1 artikuluan aipatutako ebaluazioa egitean, Espainian eta Europar Batasuneko beste estatu kideetan finantza-erakundeak gainbegiratzeko ardura duten agintariei kontsultatuko die, erregelamendu bidez xedatzen den eran.»

Hogeita hamabi. Aldatu egiten da V. tituluaren V. kapitulua; eta honela geratzen da idatzita:

«V. KAPITULUA

Egokitasuna, gobernu korporatiboa eta informazio-betekizunak.

182. artikulua. *Gobernu korporatiboaren sistemak.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek gobernu korporatiboko prozedura sendoak izan beharko dituzte; besteak beste, erakunde-egitura argia, egokia eta proportzioskoa, jardueren izaeraren, eskalaren eta konplexutasunaren arabera, eta erantzukizun-ildo koherenteak, gardenak eta ondo definituak dituena.

Ondorio horietarako, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresako administrazio-organoak erakundea gobernatzeko sistema definitu beharko du. Sistema horrek erakundearen kudeaketa eraginkor eta zuhurra bermatu behar du; erakundean eginkizunak egoki banatu behar ditu; interes-gatazkak saihestu behar ditu, eta merkatuaren osotasuna eta bezeroen interesa sustatu behar ditu. Sistema horrek honako printzipio hauei jarraitu behar die, gutxienez:

a) Erakundearen ardura orokorra hartzea, eta haren helburu estrategikoak, arrisku-estrategia eta barne-gobernua onestea eta aplikatzen direla zaintzea administrazio-organoaren zeregina izango da.

b) Administrazio-organoak kontabilitate- eta finantza-informazioen sistemen osotasuna bermatuko du, finantzen eta eragiketen kontrola barnean hartuta, bai eta aplikatu beharreko legeria ere.

c) Administrazio-organoak gainbegiratu beharko ditu informazioa hedatzeko prozesua eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresari buruzko jakinarazpenak ere.

d) Administrazio-organoaren erantzukizuna izango da goi-zuzendaritzaren gainbegiratze eraginkorra bermatzea.

e) Administrazio-organoko lehendakariak ezingo du aldi berean kontseilari delegatuaren kargua izan, erakundeak justifikatutako eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimendutako kasuetan izan ezik.

2. Aurreko apartatuan jasotako gobernu korporatiboaren sistemak, halaber, bermatu beharko du inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren administrazio-organoak honako hauek definitzen, onesten eta gainbegiratzen dituela:

a) Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak eta zerbitzu osagarriak emateko enpresaren antolamendua, barne hartuta langileei eskatu beharreko ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia, eta enpresaren jarduerak gauzatzeko aplikatzekoak diren xedapenak, baliabideak eta prozedurak, betiere aintzat hartuta haren jardueren izaera, eskala eta konplexutasuna, eta bete behar dituen betekizun guztiak.

b) Eskaintzen dituen zerbitzu, jarduera, produktu eta eragiketei dagokien estrategia, enpresak duen arriskuarekiko tolerantziaren arabera, eta horiek eskaintzen zaien enpresako bezeroen ezaugarri eta beharren arabera, erresistentzia-probak egitea barne, hala badagokio.

c) Enpresa-jokabide arduratsua, bezeroei tratamendu zuzena ematea eta horiekiko harremanetan interes-gatazkak saihestea sustatzen dituen ordainsarien politika, bezeroei zerbitzuak ematean parte hartzen duten pertsoneri dagokienez.

3. Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dituzten gainerako erakundeen kasuan, titulu honetan xedatutakoaren arabera, erakunde-egitura argia, egokia eta proportzioskoa eduki beharko dute, ematen dituzten zerbitzuen eta jardueren izaeraren, eskalaren eta konplexutasunaren arabera.

183. artikulua. *Gobernu korporatiboaren aldian behingo kontrola eta ebaluazioa.*

1. Administrazio-organismoak aldian behin kontrolatuko eta ebaluatuko du inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak eta zerbitzu osagarriak ematean enpresaren helburu estrategikoak egokiak diren eta aplikatzen diren, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren gobernu korporatiboaren sistema eraginkorra den, eta bezeroei zerbitzuak ematearekin lotutako estrategiak egokiak diren; eta, hutsunerik egonez gero, horiek konpontzeko behar diren neurriak hartuko ditu.

Beti ere, administrazio-organismoaren erantzukizunaren eta gainbegiratzearen printzipioek eta kontabilitate- eta finantza-informazioko sistemen osotasunaren printzipioak gidatuko dute gobernu korporatiboaren sistema.

2. Administrazio-organoko kideek sarbide egokia izango dute zuzendaritzaren erabakitze-prozesua gainbegiratzeko eta kontrolatzeko behar diren informazio eta dokumentuetara.

3. Inbertsio-zerbitzuetako eta jardueretako enpresek webgune bat izango dute, kapitulu honetan aurreikusitako informazio publikoa hedatzeko eta gobernu korporatiboko betebeharrak nola betetzen dituzten jakinarazteko.

184. artikulua. *Administrazio-organismoaren eskakizun kolektiboak.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen administrazio-organismoak, kolektiboki, ezagutza, gaitasun eta esperientzia nahikoak izan beharko ditu ulertzeko inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen jarduerak eta arrisku nagusiak, eta bermatzeko administrazio-organismoak benetako gaitasuna duela erakundearen onerako erabakiak era independente eta autonomoan hartzeko.

2. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek behar adinako giza eta finantza-baliabide bideratuko dituzte administrazio-organoko kideen integrazio eta prestakuntzarako.

3. Erregelamendu bidez garatuko dira aurreko apartatueta jasotako kontzeptuak.

184. bis artikulua. *Kargudunak hautatzeko eta ebaluatzeko egokitasun-politika.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresetako administrazio-organoko eta goi-zuzendaritzako kideek honako egokitasun-eskakizun hauek bete behar dituzte une oro:

- a) Zintzotasun, onestasan eta zuzentasun egiaztatuak izan behar dituzte.
- b) Behar adinako ezagutza, gaitasun eta esperientzia izan behar dituzte.
- c) Ideia-independentziaz jokatu behar dute.
- d) Erakundearen gobernu ona gauzatzeko modua izan behar dute.

Eskakizun horiek exijituko zaizkie, halaber, administrazio-organismoetan pertsona juridikoak ordezkatzen dituzten pertsona fisikoei, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 236.5. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2. Artikulu honen 1. apartatuaren b) eta d) letretan jasotako eskakizunak baloratzerakoan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aintzat hartuko ditu inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren tamaina, barne-antolaketa,

jardueren nolakotasuna, eskala eta konplexutasuna, eta zer eginkizun betetzen dituzten pertsona horiek inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresari dagokionez.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko da nola aplikatuko zaizkien aurreko apartatuetan jasotako eskakizunak finantza-aholkularitzako enpresei.

185. artikulua. *Kargudunak hautatzea eta ebaluatzea.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek zaindu beharko dute, betiere, lege honetan jasotako egokitasun-eskakizunak betetzen direla. Horretarako, beren tamainarako, barne-antolaketaarako, jardueren nolakotasunerako, eskalarako eta konplexutasunerako egokiak diren baldintzetan, unitate eta barne-prozedura egokiak izan behar dituzte aurreko artikuluan ezarritako egokitasun-eskakizunen pean dauden karguak beteko dituzten pertsonak hautatzeko, haien jarraipena egiteko, ondorengotza-plana eta kargudunak berriro hautatzeko, artikulua honetan ezarritakoaren arabera.

2. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egingo dute aurreko apartatuan aipatutako kargudunen egokitasun-balioespina, erregelamendu bidez xedatzen diren baldintzetan.

3. Zintzotasunaren, onestasunaren eta zuzentasunaren, jakintzaren, gaitasunaren, esperientziaren, ideia-independentziaren eta gobernu onaren eskakizunak bete ezean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak honetarako aukera izango du:

a) Baimena baliogabetzeko, salbuespen gisa, lege honen 160. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

b) Pertsona aldi baterako edo behin betiko uztea eskatzeko, edo zintzotasuna, onestasuna eta zuzentasuna, edo ezagutza, gaitasun zein esperientzia egokiak, edo ideia-independentzia edo gobernu ona gauzatzeko gaitasuna falta direla identifikatutako kasuetan gabeziak zuzentzea eskatzeko.

Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak eskakizun horiek betetzen ez baditu Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak horretarako adierazitako epean, dagokion karguduna aldi baterako edo behin betiko kargutik kentzea erabaki dezake erakunde horrek, lege honen 311. artikuluan jasotako prozedurari jarraituz.

4. Nolanahi ere, administrazio-organok zaindu beharko du kideak hautatzeko prozedurek esperientzien eta ezagutzen aniztasunaren alde egiten dutela, kontseilarien artean emakumeak aukeratzea errazten dutela, eta emakume kopuru orekatua dagoela administrazio-organoko kideen artean, eta oro har, diskriminazioaren bat sor dezakeen joera oker inpliziturik ez dutela.

Erregelamendu bidez garatuko da aniztasunaren kontzeptua apartatu honetan xedatutakoa betetzearen ondorioetarako.

185. bis artikulua. *Egokitasun-eskakizunak interpretatzeko irizpideak.*

1. Joko da titulu honetan eskatzen den zintzotasuna, onestasuna eta zuzentasuna dutela inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren kudeaketa on eta zuhurra egiteko gaitasunari buruzko zalantzarik sortzen ez duen jokabide pertsonal, komertzial eta profesionala azaldu duten pertsonak.

Zintzotasuna, onestasuna eta zuzentasuna dauden ala ez baloratzeko aintzat hartu beharko da eskura dagoen informazio guztia, erregelamenduz ezarritako parametroen arabera. Dena dela, informazio horrek barnean hartu behar ditu delitu edo faltengatik ezarritako kondenak eta administrazioko arau-hausteengatik ezarritako zehapenak.

2. Joko da inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresetan eginkizunak betetzeko titulu honetan eskatzen diren ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia egokiak dituztela maila eta soslai egokiko prestakuntza duten pertsonak, bereziki,

baloreen eta finantza-zerbitzuen arloan, eta aurreko okupazioetan esperientzia praktikoa denbora nahikoaz eskuratu dutenek.

3. Administrazio-organoko kideek titulu honetan eskatzen den ondo gobernatzeko jarrera eta gaitasuna ote duten ebaluatzeko, aintzat hartuko dira hirugarrenetan bidezkoak ez diren eraginak sortuko dituzten interes-gatazka potentzialak, eta dagozkien eginkizunak betetzeko denbora nahikoa emateko gaitasuna.

Erregelamendu bidez garatuko da denbora nahikoaren kontzeptua apartatu honetan xedatutakoa betetzearen ondorioetarako.

186. artikulua. *Administrazio-organoko kideek jokatzeko irizpideak.*

Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresetako administrazio-organoko kide bakoitzak onesttasunez, zuzentasunez eta ideia-independentziaz jokatu du, eta benetan ebaluatu eta, hala badagokio, auzitan jarriko ditu goi-zuzendaritzaren erabakiak, eta benetan zainduko eta kontrolatuko du goi-zuzendaritzaren erabakitze-prozesua.

187. artikulua. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamendua bete behar duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak.*

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 4.1.2.c) artikuluan aipatzen ez diren inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresei, bai eta haien erakunde nagusiei ere, hala badagokio, kapitulu honetan jasotakoa aplikatuko zaie, honako berezitasun hauekin:

a) Enpresa horiek barruan dauden talde kontsolidagarriei ere aplikatuko zaie 182.1 artikuluan xedatutakoa, hartara enpresa nagusiek eta filialek eduki behar dituzten artikulua horretan ezarritako sistema, prozedura eta mekanismoak koherenteak izateko eta ondo integratuta egoteko, eta gainbegiratzeko helburuetarako behar diren datu eta informazio guztiak eman ahal izateko.

b) 1. apartatuan aipatutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa kontrolatzen duen erakunde nagusien administrazio-organoko eta goi-zuzendaritzako kideei ere aplikatuko zaie 184. bis artikuluan xedatutakoa, baldin eta zorroko finantza-sozietatea bada edo zorroko finantza-sozietate mistoa bada kontrola duen erakunde hori.

2. 184. bis.1 artikulua a) eta b) letretan xedatutakoa aplikatuko zaie barne-kontrolako eginkizunen arduradunei, finantza-zuzendariei eta arriskuan oinarritutako ikuspegi baten arabera artikulua honen 1. apartatuan aipatutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen, edo, hala badagokio, artikulua honen b) letrean aipatutako erakunde nagusien jarduera egunero gauzatzeko giltzarrizkotzat jo diren beste lanpostu batzuei.

188. artikulua. *Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa nabarmenak.*

1. 187.1 artikuluan aipatutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, nabarmenak badira, izendapen-batzorde bat eratu beharko dute, erakundean eginkizun exekutiborik betetzen ez duten administrazio-organoko kide batzuek osatuta. Izendapen-batzordeak ordezkapen orekatuko helburu bat ezarriko du administrazio-organon ordezkari gutxien dituen sexuarentzat, eta helburu hori lortzeko jarraibideak emango ditu.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehaztuko du inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa nabarmenen administrazio-organoko edo goi-zuzendaritzako kideek zenbat kargu izan dezaketenez aldi berean, kontuan harturik erakundearen egoera bereziak eta haren jardueren nolakotasuna, tamaina eta konplexutasuna.

Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa nabarmenetan eginkizun exekutiboak dituzten administrazio-organoko eta goi-zuzendaritzako kideek ezin izango dute aldi berean bete ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 26. artikuluan kreditu-erakundeetarako ezarritako kargu kopurua baino gehiago.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimena eman ahalko die aurreko apartatuan aipatutako kargudunei exekutiboa ez den kargu gehigarri bat betetzeko, baldin eta irizten badio horrek eragozten ez dioela inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresako bere jarduerak behar bezala betetzea. Baimen hori Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari jakinarazi beharko zaio.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabaki dezake izendapen-batzordea eta ordainsari-batzordea eratu behar dituen inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa nabarmen batek batera eratu ditzakeela izendapen-batzordea eta ordainsari-batzordea, kontuan hartuta enpresaren tamaina, barne-antolaketa, jardueren nolakotasuna, eragina edo konplexutasun txikia, edo batzorde horietako bat, edo biak, eratzeko betebeharretik salbuetsita dagoela.

5. Erregelamendu bidez ezarriko da inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak nabarmenak diren, honako irizpide hauen arabera:

- a) Aktibo-partiden guztizkoaren gutxieneko zenbatekoa.
- b) Urteko negozio-bolumenaren guztizkoaren gutxieneko zenbatekoa.
- c) Ekitaldian enplegatutako batez besteko gutxieneko langile kopurua.

189. artikulua. *Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen ordainsari-politikak.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek erakundearen arriskuaren kudeaketa eta gerta litezkeen interes-gatazkak (batez ere bezeroei dagokienez) kontuan hartuko dituen ordainsari-politika bat izan behar dute.

2. Ordainsarien politika erabakiko da ekainaren 26ko 10/2014 Legeak 33. artikuluan ezarritako printzipio orokorren arabera.

3. Ordainsarien elementu aldakorrei dagokienez, ekainaren 26ko 10/2014 Legeak 34. artikuluan ezarritako printzipioak aplikatuko dira.

4. Finantza-laguntza publikoa jasotzen duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen kasuan, ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 33. artikuluan ezarritako arauak aplikatzeaz gainera, aintzat hartuko dira lege horren 35. artikuluan eta dagokion garapen-araudian kreditu-erakundeentzat ezarritakoa, beharrezkoak izan daitezkeen egokitzapenak eginda, erakundearen izaeraren ondorioz.

5. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari aurkeztuko diote ordainsarien arloko betebeharrak betetzeko horrek eskatzen dien informazio guztia.

6. Aurreko apartatueta xedatutakoa ez zaie aplikatuko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 4.1.2.c) artikuluan aipatutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresei.

7. Halaber, aurreko apartatueta xedatutakoa ez zaie aplikatuko bakarrik 140. artikuluan jasotako zerbitzuetakoren bat emateko baimena duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresei.

189. bis artikulua. *Ordainsari-politika eta arriskuaren kudeaketa.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, jardueren izaeraren, eskalaren eta konplexutasunaren araberrako baldintzetan, arriskuaren kudeaketa sendo eta eraginkorra sustatzearekin bateragarriak diren ordainsari-politikak izango dituzte.

2. Ordainsari-politika beraren arrisku-profilean nabarmen eragiten duten jarduera profesionalak dituzten enplegatu-kategoriei aplikatuko zaie, taldeari, sozietate nagusiari edo filialari dagokienez. Bereziki, honako hauei: goi-

zuzendaritzako kideei, arriskuak inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren gain hartzen dituzten enplegatuei, kontrol-eginkizunak betetzen dituztenei, goi-zuzendaritzako kideen ordainsari-baremoan sartzen den ordainsari globala jasotzen duten langileei eta, arriskuak hartzeaz gainera, arrisku-profilean eragin garrantzitsua duten jarduera profesionalak dituzten enplegatuei.

3. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, une oro, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren eskura izango dute zerrenda eguneratu bat, zeinean zehaztuta egongo baita bere arrisku-profilean eragin nabarmena duten enplegatu-kategoriak.

189. ter artikulua. *Ordainsari-politika eta interes-gatazken kudeaketa.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek ordainsari-politika eta -jardunbideak definitu eta aplikatuko dituzte bezeroei zerbitzuak ematean interes-gatazka saihesteko, Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan xedatutakoari jarraituz.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehaztu ahal izango du zer irizpide hartuko diren kontuan inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak ematen dituen inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematean zuzeneko nahiz zeharkako eragina duten pertsonen ordainsari-politikak eta -jardunbideak definitzeko, bezeroei zerbitzuak ematean interes-gatazka saihesteko.»

Hogeita hamahiru. Gehitu egiten zaio 1. atal berri bat V. tituluaren VI. kapitulari, zeinak 190.etik 192. bisera bitarteko artikulua hartuko baititu; izenburu hau izango du:

«1. atala. *Finantza-izaerako betekizunak*»

Hogeita hamalau. Gehitu egiten da 190. bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«190. bis artikulua. *Kapital-koltxoien betekizun konbinatua.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek bete beharko dute betiere kapital-koltxoien eskakizun konbinatua, kapitala gordetzeko koltxoi bat izateko eginbidea betetzeko beharrezkoa den 1. mailako kapital osoa dela ulertuta, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, gainerako koltxoiak izan beharko ditu, erregelamendu bidez ezartzen den eran.

Betebehar hau beteko da ezertan eragotzi gabe Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 92. artikuluan ezarritako baliabide propioen eskakizunak, eta, orobat, ezertan eragotzi gabe 261. artikuluan ezarritakoari jarraituz Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eska ditzakeen baliabideak.

2. Erregelamenduz garatuko da artikulua honetan ezarritakoa, bereziki, aplikazio ezaren kasuak eta beren tamainaren edo ematen duten zerbitzuaren ondorioz inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako zenbait enpresari aplikatzeko zaizkien berezitasunak, eta enpresa taldeei aplikatzearen ondoriozko berezitasunak.»

Hogeita hamabost. Gehitu egiten da 192. bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«192. bis artikulua. *Arriskuaren kudeaketa eta arriskuen komitea.*

1. Administrazio-organoa da inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek bere gain hartzen dituen arriskuen erantzulea. Arriskuen kudeaketari buruz duen erantzukizuna dela eta, betebehar hauek izango ditu administrazio-organoak:

- a) Arriskuei lotutako gorabeherak aintzat hartzeari denbora nahikoa ematea.
- b) Aldian-aldian onestea eta berrikustea arriskuak hartzeko, kudeatzeko, gainbegiratzeko eta murrizteko estrategiak eta politikak.

2. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek arrisku-batzorde bat eratu beharko dute. Erregelamendu bidez jasoko dira arrisku-batzordea eratzeko betebeharraren salbuespenak.

3. Erregelamendu bidez garatuko da artikulua honetan jasotako, eta beste betekizun batzuk ezarri ahal izango dira inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak arriskuak egokiro kudeatzen dituela bermatzeko.»

Hogeita hamasei. Gehitu egiten zaizkio 2., 3., 4. eta 5. atalak V. tituluaren VI. kapituluari, zeinek 193.etik 197.era bitarteko artikulua hartuko baitituzte, eta honako antolaketa eta eduki hauek izango dituzte:

«2. atala. *Barne-antolaketako eta funtzionamenduko betekizun orokorrak*

193. artikulua. *Barne-antolaketako betekizunak.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek beren jardueran errespetatuko dituzte lege honetan eta bera garatzeko arauetan eta Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 21.era 43.era bitarteko artikuluetan eta aplikatu beharreko gainerako legeriaren ezarritako gobernu korporatiboko arauak eta barne-antolaketako betekizunak.

2. Erregelamendu bidez garatuko dira inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen barne-antolaketako betekizunak; honako alderdi hauek hartu beharko dituzte gutxienez:

a) Enpresak eta haren zuzendari, enplegatu eta agente lotetsiek lege honek ezartzen dizkien betebeharrak eta pertsona horien eragiketa pertsonalei aplikatu beharreko arauak betetzen dituztela bermatzeko egokiak eta nahikoak diren politikak eta prozedurak.

b) 208. bis artikuluan definitutako interes-gatazkek bezeroen interesei kalte egitea saihesteko arrazoizko neurri guztiak hartzeko administrazio- eta antolamendu-neurri eraginkorrak.

c) Merkaturatu edo bezeroei banatu aurretik finantza-tresna bakoitza eta dauden tresnen egokitzapen nabarmen bakoitza onesteko prozesu bat, bezeroei saltzeko finantza-tresnak diseinatzen dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen kasuan.

d) Mekanismo egokiak informazio egokia lortzeko finantza-tresnei eta produktua onesteko prozesuari buruz, finantza-tresnarako definitu den xede-merkatua barne, eta ulertzeko tresna bakoitzaren ezaugarriak eta identifikatutako xede-merkatua, haiek diseinatu ez dituzten finantza-tresnak merkaturatzen dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen kasuan.

e) Lege honen 194. artikuluan zehaztutako baldintzetan egiten dituzten zerbitzu, jarduera eta eragiketa guztien erregistroaren kudeaketa.

f) Bezeroen jabetza-eskubideak babesteko behar diren neurriak, bezeroen finantza-tresnak bere esku badituzte.

g) Aplikatu behar zaien inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen kasuan, berreskuratzeko plan bat, Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsiaraztearen ekainaren 18ko 11/2015 Legean jasotako moduan.

h) Segurtasun-mekanismo sendoak, informazio-sistemen segurtasuna eta autentifikazioa bermatzeko, datuak hondatzeko eta baimenik gabeko sarbideak izateko arriskua ahalik eta gehien murrizteko eta informazio-ihesak saihesteko, une oro datuen konfidentzialtasunari eutsita.

3. Halaber, inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten erakundeek honako hauek hartu eta eduki behar dituzte:

a) Inbertsio-zerbitzuen eta -jardueren jarraitutasuna eta erregulartasuna bermatzeko arrazoizko neurriak.

b) Administrazio- eta kontularitza-prozedura egokiak, barne-kontrolako mekanismoak, arriskua ebaluatzeko teknika eraginkorrak eta sistema informatikoak kontrolatzeko eta babesteko mekanismo eraginkorrak.

c) Aplikatu behar zaien inbertsio-zerbitzuetako enpresek berreskurapen-plan bat egin eta eguneratuta eduki behar dute, ekainaren 18ko 11/2015 Legean jasotako moduan.

d) Baldin eta bezeroen funtsak eskura badituzte, inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten erakundeek behar diren neurriak hartuko dituzte bezeroen eskubideak babesteko. Erakundeek ezingo dituzte, beren kabuz, bezeroen funtsak erabili, erregelamendu bidez ezarritako ohiz kanpoko kasu batzuetan izan ezik, eta betiere bezeroaren berariazko baimenarekin. Erakundearen barne-erregistroek aukera eman behar dute bezero bakoitzaren funtsen posizioa jakiteko, une oro eta atzerapenik gabe, eta batez ere enpresaren kaudimen eza gertatuz gero.

e) Baldin eta hirugarren baten esku uzten badituzte bezeroentzako zerbitzu jarraitua eta egokia emateko eta inbertsio-jarduerak era jarraituan eta egokian gauzatzeko funtsezkoak diren eginkizun operatiboak, arrazoizko neurriak hartuko dituzte arrisku operatibo bidegabea gehitu ez dadin.

4. Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dituzten kreditu-erakundeek errespetatu behar dituzte aurreko apartatuan jasotako barne-antolaketako betekizunak, erregelamendu bidez zehaztutako zehaztapenekin, eta Espainiako Bankuari dagozkio betekizun horiek gainbegiratzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko ahalmenak. Aipatu erakundeei ez zaie aplikatuko beren kabuz bezeroen funtsak erabiltzeko debekua, aurreko d) letran ezarrita dagoena.

5. Erregelamendu bidez arautuko da titulartasun-aldaketa dakarten finantza-bermeko akordioak egitea, eta bermeak eratzea edo finantza-tresnen gaineko edo bezeroen funtsen gaineko kredituak konpentsatzeko akordioak sinatzea.

6. Baloreen erakunde gordailuzain baten konkurtso-prozedura hasi ondoren, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, ezertan eragotzi gabe Espainiako Bankuaren eta BBOFaren eskumenak, erabaki dezake gordailuan dauden bezeroen baloreak berehala, eta inbertitzailearentzako kosturik eragin gabe, lekualdatzea jarduera hori garatzeko gaitutako beste erakunde batera, bai eta aktibo horiek hirugarren erakunde batean egonda ere, gordailu-zerbitzua ematen duen erakundearen izenean. Ondorio horietarako, bai epaile eskudunak, bai konkurtso-prozedurako organoek, baloreak jasoko dituen erakundeari erraztuko diote lekualdaketa egiteko agiriak eskuratzea, edota kontabilitate- eta informatika-erregistroetara sartzea. Konkurtso-prozedura bat egoteak ez du eragotziko bezeroari helaraztea konpentsazio-, likidazio- eta erregistro-sistemaren arauen arabera erositako baloreak edo eskubide ekonomikoak baliatuzetik edo baloreen salmentatik heldu den eskudirua.

7. Erregelamendu bidez garatuko da artikulua honetan ezarritakoa, eta, bereziki, ezarriko dira artikulua honetan aipatutako prozeduren, erregistroen eta neurrien edukia eta betekizunak, eta ezarriko da barne-antolaketako zer betekizun exiji dakizkiekeen pertsona fisikoak diren finantza-aholkularitzako enpresei.

194. artikulua. *Erregistroak.*

1. Egiten dituzten zerbitzuen, jardueren eta eragiketen erregistroa eramango dute inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek. Erregistro hori nahikoa izan beharko da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratze-eginkizunak egin ditzan eta hartu beharreko betearazpen-neurriak aplikatu ditzan eta, bereziki, egiazta dezan inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak bete dituenetz

bere betebeharrak guztiak, bezeroekikoak edo bezero potentzialekikoak eta merkatuaren osotasunarekikoak barne.

2. 1. apartatua aipatutako erregistroak barne hartuko ditu inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren jarduerarekin lotutako telefonozko elkarrizketak eta komunikazio elektronikoak grabatzea. Erregelamendu bidez garatuko da artikulu honetan ezarritako betebeharrak, eta honako alderdi hauek hartuko ditu, gutxienez:

a) Bezeroekiko zer telefono-elkarrizketen eta komunikazio elektronikoaren mota erregistratu beharko diren.

b) Komunikazioak edo telefonozko elkarrizketak grabatuko direla bezeroei jakinarazi beharra.

c) Zenbait zerbitzuren inguruko komunikazioak grabatuko direla jakinarazi ez dien bezeroekin inbertsio-jarduerak edo haiei inbertsio-zerbitzuak telefono bidez emateko debekua.

d) Bezeroek aginduak beste zenbait kanalez komunikatzeko aukera izatea, baldin eta komunikazioak euskarri iraunkorrean egin badaitezke.

e) Erregistratu edo kopiatu ezin diren komunikazioak saihesteko arazoizko neurriak hartzea.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera gordetako erregistroak bezeroen esku jarriko dira haiek hala eskatuz gero, eta bost urtez kontserbatuko dira, eta, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak hala eskatzen badu, zazpi urtera arteko epeaz.

3. atala. *Negoiazio algoritmikoan jarduten duten enpresen barne-antolaketako eta funtzionamenduko betekizunak*

195. artikulua. *Negoiazio algoritmikoa.*

1. Negoiazio algoritmikoan jarduten duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek honako hauek ezarri beharko dituzte:

a) Beren jardueretarako eta efektiboetarako egokiak diren arrisku-sistemak eta -kontrolak, hala bermatzeko beren negoiazio-sistemak sendoak direla, ahalmen nahikoa dutela, behar diren atalasetara eta mugetara egokitzen direla, eta agindu okerrak bidaltzea edo negoiazio-egoeretan anomaliak eragiteko edo errazteko moduan funtzionatzea mugatzen edo eragozten dutela.

b) Arrisku-sistema eta -kontrol eraginkorrak bermatzeko negoiazio-sistemak ezin izango direla erabili Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamenduaren edo lotura dueneko negoiazio-zentroaren arauen kontrako inongo helburutarako.

c) Mekanismo eraginkorrak bermatzeko jarduerak jarraituko dutela negoiazio-sistemaren disfuntzioa gertatuz gero.

Halaber, segurtatuko dute beren sistemak oso-osorik probatu eta gainbegiratu direla, apartatu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituztela bermatzeko.

2. Erregelamendu bidez garatuko dira artikulu honetan ezarritako betebeharrak, eta honako hauek hartuko dituzte barne, besteak beste:

a) Jarduera hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari edo beste agintari gainbegirale batzuei jakinarazteko betebeharrak.

b) Espainian baimendutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresei beren jarduerari buruzko informazioa eman dezaten exijitzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak dituen ahalmenak.

c) Apartatu honetan aipatutako alderdiei buruzko erregistroak gordetzeko betebeharrak.

d) Maiztasun handiko negoziazio algoritmikoko teknikak erabiltzen dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek beren aginduen erregistroak edukitzeko betebeharra.

195. bis artikulua. *Negoziazio algoritmikoa merkatua sortzeko estrategia gisa.*

1. Artikulu honetan eta abenduaren 29ko 21/2017 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, joko da merkatua sortzeko estrategia bat aplikatzen ari dela negoziazio algoritmikoa erabiltzen duen inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa, baldin eta, bere kontura negoziatzean, bere estrategiak (negoziazio-zentro bateko edo batzuetako partaide den aldetik) barne hartzen badu antzeko tamainakoak eta prezio lehiakorreko erosketa- eta salmenta-kotizazio irmoak aldi berean iragartzea finantza-tresna baterako zein batzuetarako, negoziazio-zentro bakar batean zein zenbait negoziazio-zentrotan, eta, hala, likidezia ematen badio merkatuari erregulartasunez eta maiztasunez.

2. Merkatua sortzeko estrategia bat aplikatzeko negoziazio algoritmikoan jarduten duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek honako betebeharrak dituzte, kasuan kasuko merkatuaren likidezia, eskala eta nolakotasuna eta negoziatutako tresnaren ezaugarrien arabera:

a) Merkatua sortzeko jarduera horiek egin behar dituzte jarraitutasunez negoziazio-zentroaren ordutegiaren parte jakin batean, salbuespenezko egoeretan izan ezik, negoziazio-zentroari likidezia era erregularrez eta aurreikusteko moduan emateko.

b) Negoziazio-zentroarekin akordio loteslea sinatu behar dute, eta horretan zehaztu behar dira, gutxienez, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren betebeharrak, a) letran xedatutakoari jarraituz.

c) Sistema eta kontrol eraginkorrak izan behar dituzte, b) letran aipatutako akordioaren arabera dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

3. Batzordearen 2016ko ekainaren 13ko 2017/578 (EB) Erregelamendu Eskuordetuak (zeinak osatu egiten baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa, merkatua sortzeko akordio eta planei dagozkien betekizunak zehazten dituzten erregulazio-arau teknikoiei dagokienez) arautuko du inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak zer egoeratan duen merkatura sartzeko betebeharra aurreko apartatuan aipatutako akordioa sinatuta, eta zer eduki izan behar duen akordioak.

4. 2.a) apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, salbuespenezko egoeratzat joko dira Batzordearen 2016ko ekainaren 13ko 2017/578 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan jasotakoak.

4. atala. *Zuzeneko sarbide elektronikoa ematen duten edo kide konpentsatzaile gisa jarduten duten enpresen barne-antolaketako eta funtzionamenduko betekizunak*

196. artikulua. *Zuzeneko sarbide elektronikoa.*

1. Negoziazio-zentro baterako zuzeneko sarbide elektronikoa ematen duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa guztiek sistema eta kontrol eraginkorrak ezarri behar dituzte hau bermatzeko:

a) Zerbitzua erabiltzen duten bezeroen egokitasunaren ebaluazioa eta berrikuspena gauzatu behar dute.

b) Bezeroek ezin izango dituzte negoziatorako eta krediturako aurretik ezarritako atalaseak.

c) Zerbitzua erabiltzen duten pertsonen negoziazioa behar bezala gainbegiratu da.

d) Arrisku-kontrol egokiak egon behar dira eragozteko negoziazio-enpresari berari arriskuak sortzea, negoziazio-egoeren anomaliak eragiteko edo errazteko moduan funtzionatzea, edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamendua edo negoziazio-zentroaren urratzea.

2. Debekatuta egongo da negoziazio-zentro baterako zuzeneko sarbide elektronikoa, baldin eta betetzen ez badira aurreko apartatuan aurreikusitako kontrolak.

3. Zuzeneko sarbide elektronikoa ematen duen inbertsio-zerbitzuetako enpresak erantzukizuna izango du zerbitzu hori erabiltzen duten bezeroek lege honetan ezarritako betekizunak eta negoziazio-zentroko arauak betetzen dituztela bermatzeko. Eragiketak gainbegiratu beharko ditu detektatzeko arau horiek hausten diren edo merkatuaren abusua ekar dezaketen eta agintari eskudunari jakinarazi behar zaion negoziazio- edo jarduketa-egoeretan anomaliarik dagoen.

4. Inbertsio-zerbitzuetako enpresak zainduko du enpresaren eta bezeroaren artean akordio loteslea sinatzen dela zerbitzua ematetik eratoritzen diren oinarritzko eskubide eta betebeharrak buruz, eta, akordioaren esparruan, lege honen arabera erantzukizunari eusten diola inbertsio-zerbitzuetako enpresak.

5. Erregelamendu bidez garatu ahal izango da artikulua honetan jasotakoa, honako alderdi hauek barne, besteak beste:

a) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eta beste agintari eskudunei jakinarazteko betebeharrak.

b) Jarduera horri buruzko informazioa eskatzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak duen ahalmena.

c) Jarduera horri buruzko erregistroak kontserbatzen direla.

196. bis artikulua. *Kide konpentsatzaile orokor gisa jarduten duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak.*

1. Beste pertsona batzuentzat kide konpentsatzaile orokor gisa jarduten duten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek sistema eta kontrol eraginkorrak ezarri behar dituzte bermatzeko konpentsazio-zerbitzuak bakarrik aplikatzen zaizkiela egokiak diren eta irizpide argi batzuei jarraitzen dieten pertsonari, eta pertsona horiei betekizun egokiak ezartzen zaizkiela haientzako eta merkatuarentzako arriskuak murrizteko. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek zainduko dute idatzizko akordio loteslea sinatzen dela beren eta pertsonen artean, zerbitzua ematetik eratorritako oinarritzko eskubideen eta betebeharren gainean.

2. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek artikulua honetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, Batzordearen 2016ko uztailaren 19ko 2017/589 (EB) Erregelamendu Eskuordetuari jarraituz.

5. atala. *Arau-hausteak jakinarazteko prozedurak*

197. artikulua. *Arau-hausteen jakinarazpena.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, merkatua zuzentzen duten erakundeek, inbertsio-zerbitzuekin eta -jarduerekin edo jarduera eta zerbitzu osagarriekin lotura duten kreditu-erakundeek eta hirugarren herrialdeetako enpresen sukurtsalek prozedura egokiak izan behar dituzte beren langileek barne-mailako balizko edo benetako arau-hausteak jakinarazteko, berariazko kanal independente eta autonomo baten bidez.

2. Prozedura horiek konfidentzialtasuna bermatu beharko dute, bai arau-hausteei buruzko informazioa ematen duen pertsonari dagokionez, bai arau-haustearen ustezko erantzule diren pertsona fisikoei dagokienez.

3. Halaber, bermatu behar da erakundearen egindako arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten enplegatuei babesa ematen zaiela, errepresaliak, diskriminazioak eta beste edonolako tratu bidegabeak direla eta.»

Hogeita hamazazpi. Gehitu egiten da V. bis titulua, honako titulu honekin eta artikulua hauekin:

«V. bis TITULUA

Datu-hornidurako zerbitzuak

I. KAPITULUA

Datu-hornidurako zerbitzuak baimentzeko prozedurak

197. bis artikulua. *Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen motak eta jardueraren erreserba.*

1. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek emango dituzte datu-hornidurako zerbitzuak.

2. Hona hemen datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen motak, eta horietako bakoitzak zer zerbitzu eman ditzakeen:

a) Argitaratze-agente baimenduak (APA): inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen izenean eragiketen txostenak argitaratzeko zerbitzua emateko baimendutako pertsonak dira, 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 20. eta 21. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

b) Informazio kontsolidatuko hornitzaileak (PIC): maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan xedatutakoaren arabera, pertsona hauek baimenduta daude merkatu arautuetan, SNMetan, SOCetan eta baimendutako argitaratze-agenteetan 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 6., 7., 10., 12. eta 13., 20. eta 21. artikuluetan aipatutako finantza-tresnekin egindako eragiketen txostenak biltzeko eta horiek finantza-tresna bakoitzaren prezioei eta bolumenei buruzko datuak ematen dituzten zuzeneko etengabeko datu elektronikoen fluxu batean kontsolidatzeko zerbitzua emateko.

c) Informazio-sistema baimenduak (SIA): lege honetan xedatutakoaren arabera inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen izenean eragiketen xehetasunak agintari eskudunei edo Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari jakinarazteko zerbitzua emateko baimendutako pertsonak dira, 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren esparruan datu-hornidurako zerbitzuak ohiko jarduera edo lanbide gisa emateko, datu-hornidurako zerbitzuen hornitzailearen baimena (APA, PIC edo SIA) lortu behar da lehenago, kapitulu honetan xedatutakoari jarraituz, bai eta horretarako ezarri den Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroan inskribatu ere.

4. Hala ere, informazio kontsolidatuko hornitzaileek baimenpean ez dauden beste zerbitzu batzuk ere eman ditzakete, Batzordearen 2016ko ekainaren 2ko 2017/571 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera (horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentzua osatzen da datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileei aplikatu beharreko baimentzeari, antolaketa-betekizunei eta eragiketarako argitaratzeari buruzko erregulazio-arau teknikoiei dagokienez).

5. Negoziazio-zentro bat kudeatzen duten merkatuaren zuzentze-erakundeek eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, halaber, APA, PIC eta SIA baten datu-hornidurako zerbitzuak kudeatu ahal izango dituzte, baldin eta Balore

Merkatuaren Batzorde Nazionalak egiaztatu badu lehenago titulu honetan xedatutakoa betetzen dutela eta dagokion baimena lortzen badute.

6. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek beren zerbitzuak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratuta eman behar dituzte, eta horrek:

a) Aldian-aldean egiaztatu beharko du titulu honetan xedatutakoa betetzen dutela datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek.

b) Egiaztatu behar du datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek une oro betetzen dituztela titulu honetan ezarritako hasierako baimenaren baldintzak.

197. ter artikulua. *Baimentzea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari dagokio datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen zerbitzua ematea baimentzea.

2. Datu-hornidurako zerbitzua emateko baimenean zehaztuko da zer zerbitzu emateko baimenduta dagoen datu-hornidurako zerbitzuen hornitzailea.

Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileak, bere jarduerak zabaldu nahi baditu datu-hornidurako beste zerbitzu batzuetara, bere baimena zabaltzeko eskaera aurkeztu beharko du.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onetsitako eta errebokatutako baimenak jakinaraziko dizkio Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak emandako baimena baliozkoa izango da Europar Batasun osoan, eta datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileak estatu kideetan eman ahal izango ditu baimendu zaizkion zerbitzuak.

5. Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek zerbitzu horiek eman ahal izango dituzte Espainian, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren alde aurreko baimenik gabe.

6. Europar Batasuneko estatu kideetan baimenduta ez dauden erakundeei kapitulu honetan eta hura garatzeko araudian xedatutako baimentze-prozedura aplikatuko zaie.

197. quater artikulua. *Baimentze-prozedura.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimen-eskaera ebalua dezan eta segurta dezan datu-hornidurako zerbitzuaren baimena eskatzen duenak betetzen dituela titulu honetan eta aplikatzekoa zaion Europar Batasuneko araudian ezarritako betekizun guztiak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari honako informazio hau emango dio eskatzaileak:

a) Jarduera-programa bat; horretan azaldu behar ditu aurreikusitako zerbitzuen xehetasunak eta erakunde-egitura, besteak beste.

b) Batzordearen 2016ko ekainaren 2ko 2017/571 (EB) Erregelamendu Eskuordetuak eskatzen duen informazioa eta dokumentazioa (horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua osatzen da datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileei aplikatu beharreko baimentzeari, antolaketa-betekizunei eta eragiketak argitaratzeari buruzko erregulazio-arau teknikoiei dagokienez).

c) Nor diren administrazio-organoko kide guztiak, bai eta datu-hornidurako zerbitzuen hornitzailearen jarduerak benetan zuzenduko duten pertsona guztiak ere.

d) Batzordearen 2016ko ekainaren 2ko 2017/571 Erregelamendu Eskuordetuan azaldutako betekizunetara egokitzen dela egiaztatzeko behar den beste edozein dokumentu.

2. Eskaera eta horri atxikitako informazio eta dokumentazioa aurkezteko, Batzordearen ekainaren 22ko 2017/1110 (EB) Exekuzio Erregelamenduan ezarritakoari jarraituko zaio; Exekuzio Erregelamendu horren bidez ezartzen dira

datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileak baimentzeko inprimaki-, txantilo- eta prozedura-ereduei eta horiei loturiko jakinarazpenei buruzko gauzatzeko arau teknikoak, 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauari jarraituz.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eskaera ebaluatzen jarraitzeko egoki deritzon beste edozein informazio gehigarri eskatu ahal izango dio eskatzaileari, egiaztatzeko eskatzaileak hasierako baimentzearen unean hartuak dituela titulu honetan eta aplikatzeko zaion Europar Batasunaren araudian xedatutakoaren arabera dituen betebeharrak betetzeko behar diren neurri guztiak.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ez du baimena emango harik eta egiaztatzen duen arte eskatzaileak betetzen dituela lege honetan hura garatzeko araudian eta dagozkion Europar Batasunaren Zuzenbideko xedapenetan jasotako betekizun guztiak.

5. Baimena ematen edo ukatzen deneko ebazpena arrazoitua izango da, eta baimentze-prozedura ebazteko epea sei hilabetekoa izango da, eskaera Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroan erregistratu den unetik edo dokumentazioa osatzen den unetik, hura nahikoa izan ez bada eskaera erregistratu den unean. Epe horretan ebazpen espresurik ez badago, eskaera ezetsizat joko da.

197. quinques artikulua. *Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen erregistroa.*

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaile guztien erregistro bat eratuko du. Erregistroa publikoa izango da; datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileak emateko baimena duen zerbitzuei buruzko informazioa jasoko du, eta aldi behin eguneratu beharko da.

197. sexies artikulua. *Baimena lortzeko eta jarduera egiteko betekizunak.*

Erakundeak datu-hornidurako zerbitzuak emateko baimena lortzeko eta horri eusteko, honako eskakizun hauek bete beharko ditu:

- a) Sozietate anonimoa izan beharko du, eta iraupen mugagabea izan beharko du.
- b) Sozietate-helbidea, eta benetako administrazioa eta zuzendaritza, Espainiako lurraldean eduki behar ditu.
- c) Administrazio-organoa izan behar du, eta haren kideek 198. undecies artikuluan xedatutakoa bete behar dute.
- d) 197. bis.3 artikuluan aipatzen diren baimena lortzeko betekizunak bete behar ditu.
- e) Titulu honen II. kapituluko informazioa hedatzeari, komunikatzeari eta tratatzeari buruzko betekizunak bete behar ditu.
- f) Titulu honen III. kapituluko funtzionamenduko eta barne-antolaketa betekizunak bete behar ditu.

197. septies artikulua. *Baimenak errebokatzea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaile bati emandako baimena errebokatu ahal izango du honako kasu hauetan:

- a) Baldin eta ez badie hasiera ematen baimendutako jarduerari baimena jakinarazi eta hurrengo hamabi hilabeteetan, interesdunari egoztekoa zaion arrazoi bat tarteko.
- b) Baldin eta baimenari espresuki uko egiten badio, alde batera utzita beste erakunde bat bihurtzen den edo desegitea erabakitzen duen.
- c) Baldin eta baimendutako berariazko jarduerak egitez eteten baditu sei hilabetez baino denbora gehiagoz.
- d) Baldin eta geroztik urratzen badu baimena lortzeko betekizunen bat, edozein, salbu eta aipatutako betekizunak direla-eta besterik ezartzen denean.

e) Baldin eta titulu honen II. eta III. kapituluetan ezarritako betebeharren ez-betetze larri eta sistematikoa gertatzen bada.

f) Baldin eta baimena adierazpen faltsuen bidez edo arauz kanpoko beste edozein modutan eskuratu badu.

g) Baldin eta arau-hauste oso astuna egiten badu, lege honen VII. tituluaren jasotakoaren arabera.

2. Baimena errebokatzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera egingo da, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala arduratuko da hura izapidetzeaz eta ebazteaz.

II. KAPITULUA

Informazioa hedatzeari, komunikatzeari eta tratatzeari buruz datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek dituzten betekizunak

197. octies artikulua. *Argitaratze-agente baimenduei (APA) aplikatu behar zaizkien informazioa hedatzeari eta tratatzeari buruzko betekizunak.*

1. APAek politika eta mekanismo egokiak ezarri beharko dituzte eskatutako informazioa publiko egiteko, 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 20. eta 21. artikuluei jarraituz, denbora errealetik teknikoki ahal den hurbilen eta arrazoizko merkataritza-baldintzetan.

2. 1. apartatuan xedatutakoari jarraituz APAek publiko egindako informazioak erregelamendu bidez zehaztuko diren xehetasunak jasoko ditu.

3. Informazioa dohainik emango da APAk argitaratu eta hamabost minutura.

4. APAek efizientziaz eta koherentziaz hedatu behar dute informazio hori, halako moduan non bermatzen den informaziorako irispide azkarra, diskriminaziorik gabeko baldintzetan eta beste iturri batzuetatik informazioarekin kontsolidatzea errazten duen formatu batean, 2017/571 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren III. kapituluaren jasotako arau espezifikoari jarraituz, eta Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 84. artikuluan jasotako baldintzetan; Erregelamendu Eskuordetu horrek osatu egiten du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentaraua, inbertsio-zerbitzuetako enpresen antolaketa-betekizunei eta funtzionamendu-baldintzei dagokienez.

197. nonies artikulua. *Informazio kontsolidatuko hornitzaileei (PIC) aplikatu behar zaizkien informazioa hedatzeari eta tratatzeari buruzko betekizunak.*

1. PICek politika eta mekanismo egokiak ezarri beharko dituzte argitaratutako informazioa 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 6., 10., 20. eta 21. artikuluei jarraituz datu elektronikoen etengabeko fluxu batean kontsolidatzeko eta publikoaren esku jartzeko denbora errealetik teknikoki ahal den hurbilen eta arrazoizko merkataritza-baldintzetan.

2. Informazio horrek erregelamendu bidez zehazten diren xehetasunak jasoko ditu.

3. Informazioa dohainik emango da PICak argitaratu eta hamabost minutura.

4. PICek efizientziaz eta koherentziaz hedatu behar dute informazio hori, halako moduan non informaziorako irispide azkarra bermatzen baita, diskriminaziorik gabeko baldintzetan eta merkaturaren parte hartzen dutenek erraz eskuratzeko eta erabiltzeko formatuetan, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko garapen-arau espezifikoari jarraituz.

197. decies artikulua. *Informazio-sistema baimenduei (SIA) aplikatu behar zaizkien informazioa hedatzeari eta tratatzeari buruzko betekizunak.*

SI Aek politika eta mekanismo egokiak ezarri beharko dituzte eskatutako informazioa 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 26. artikuluari jarraituz komunikatzeko, lehenbailehen, eragiketa egin eta hurrengo egun baliouduna amaitzean, beranduenez.

2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 26. artikuluan ezarritako betekizunen arabera komunikatuko da informazio hori.

III. KAPITULUA

Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen funtzionamenduko eta barne-antolaketako betekizunak

197. undecies artikulua. *Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen administrazio-organuari dagozkion betekizunak.*

1. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzailearen administrazio-organoko kide guztiek une oro izango dituzte zintzotasun egokia eta ezagutza, gaitasun eta esperientzia nahikoak, eta behar adinako denbora emango dute beren zeregina betetzen.

2. Administrazio-organok, kolektiboki, ezagutza, gaitasun eta esperientzia nahikoak izan beharko ditu datu-hornidurako zerbitzuen hornitzailearen jarduerak ulertzeko.

3. Administrazio-organoko kide bakoitzak onesttasunez, zuzentasunez eta independentziaz jokatu du; modu eraginkorrean aurkaratuko ditu, beharrezkoa denean, goi-zuzendaritzaren erabakiak, eta modu eraginkorrean zaindu eta kontrolatuko du zuzendaritzaren erabakiak hartzeko prozesua, beharrezkoa denean.

4. Merkatuaren zuzentze-erakunde batek APA, PIC edo SIA bat kudeatzeko baimena eskatzen badu, eta APAren, PICaren edo SIAren administrazio-organoko kideak merkatu arautuko zuzentze-erakundearen administrazio-organoko kide berberak badira, joko da pertsona horiek betetzen dutela lehenengo apartatuan ezarritako betekizuna.

5. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinaraziko diote nor diren bere administrazio-organoko kide guztiak, eta haren osaerari eragiten dion edozein aldaketaren berri emango dio, eta, horri erantsita, erakundeak aurreko apartatuetan ezarritakoa betetzen duen ebaluatze behar den informazio guztia.

6. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen administrazio-organok gobernu-sistema bat definitu eta aplikatzen dela zainduko dute, zeinak bermatuko baitu erakundea eraginkortasunez eta zuhertasunez kudeatzen dela, erakundeko eginkizun-banaketa eta interes-gatazkak ekiditea barne hartuta, eta merkatuaren osotasuna eta bezeroen interesa sustatu behar ditu.

7. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimena ukatuko du baldin eta bere iritziz datu-hornidurako zerbitzuen hornitzailearen jarduerak benetan zuzenduko duen pertsonak edo zuzenduko duten pertsonak ez badute eta behar adinako zintzotasuna, edo arrazoi objektibo eta frogagarriak badaude pentsatzeko enpresaren zuzendaritzarako proposatutako egitura eta konfigurazioa mehatxua direla hura egokiro eta zuhertasunez kudeatzeko eta zaindu beharreko bezeroen intereserako eta merkatuaren osotasunerako.

8. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aurka egin ahal izan die administrazio-organoko kideen aldaketei edo hurrengo izendapenei, baldin eta arrazoi objektiboak eta frogagarriak badaude pentsatzeko datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileko aldaketa horiek mehatxua direla hura egokiro eta

zuhurtasunez kudeatzeko eta zaindu beharreko bezeroen intereserako eta merkatuaren osotasunerako.

197. duodecies artikulua. *Interes-gatazkak kudeatzeko antolaketa-betekizunak.*

1. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek administrazio-neurri eraginkorrak aplikatu eta mantendu beharko dituzte haren zerbitzuak beren erregelamenduzko betebeharrak betetzeko erabiltzen dituzten bezeroekiko eta datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen datuak eskuratzen dituzten beste erakundeekiko interes-gatazkak saihesteko. Neurri horiek barne hartu beharko dituzte interes-gatazkak, errealak zein potentzialak, detektatzeko, kudeatzeko eta agerian uzteko politika eta prozedurak, 2017/571 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileak diskriminaziorik gabe tratatuko du bildutako informazio guztia, eta eginkizun komertzial ezberdinak bereizteko dispositibo egokiak kudeatu eta mantenduko ditu honako kasu hauetan:

a) Baldin eta APA bat aldi berean merkatuaren zuzentze-erakundea edo inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa ere bada.

b) Baldin eta SIA bat aldi berean merkatuaren zuzentze-erakundea edo inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa ere bada.

c) Baldin eta PIC bat APA batek edo merkatuaren zuzentze-erakunde batek kudeatzen badu.

197. terdecies artikulua. *Sistemen ahalmena, jardueraren jarraipena eta informazioaren kalitatea bermatzeko antolaketa-betekizunak.*

1. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek segurtasun-sistema eta -dispositibo egokiak eta behar bezain sendo erabili behar dituzte zerbitzuak jarraipenez eta erregularitasunez ematen direla bermatzeko, informazioa transmititzeko bitartekoen segurtasuna bermatzeko, datuak hondatzearen eta baimenik gabeko sarbidearen arriskua ahalik eta gehien murrizteko, eta argitaratu aurretik informazio-ihesik ez egoteko.

Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek baliabide egokiak edukiko dituzte, eta erreserbako instalazioak eratuko dituzte, une oro eskaintzeko eta mantentzeko beren zerbitzuak, 2016ko ekainaren 2ko 2017/571 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 7., 8. eta 9. artikuluetan garatutako baldintzetan.

2. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek sistemak eskaini behar dituzte eraginkortasunez kontrolatu ahal izateko txostenen xehetasuna, omisio eta akats nabarmenak detektatzeko eta txosten akastunak berriro eskatzeko eta beste gestio batzuetarako, 2016ko ekainaren 2ko 2017/571 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 10., 11. eta 12. artikuluetan ezartzen denari jarraituz.

197. quaterdecies artikulua. *Eginkizunak kanpora ateratzea kudeatzeko antolaketa-betekizunak.*

1. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaile batek erabakitzen duenean hirugarren batzuek zenbait jarduera bere izenean egin dezaten, lotura estuak dituen enpresak barne, segurtatu behar du hirugarren zerbitzu-hornitzaileak behar adinako gaitasuna eta ahalmena duela jarduera horiek era fidagarrian eta profesionalean gauzatzeko.

2. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek eginkizunak kanporatzearen berri eman behar diote Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari. Eginkizunak kanpora atera aurretik, datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi behar diote zer jarduera aterako diren kanpora, eta zehatuko dute zer giza-baliabide eta baliabide tekniko behar diren jarduera bakoitza egiteko.

3. Jarduerak kanpora ateratzen dituzten datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek 2016ko ekainaren 2ko 2017/571 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 6. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.»

Hogeita hemezortzi. Aldatu egiten da 198. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Inbertsioen berme-funtsa ondare bereizi gisa eratuko da, nortasun juridikorik gabe. Haren ordezkari eta kudeaketa sozietate kudeatzaile bati enkargatuko zaio. Azken horrek sozietate anonimoa izan beharko du, eta haren kapitala atxikitako erakundeen artean banatuko da horiek funtserako ekarpenak egiten dituzten proportzio berean.»

Hogeita hemeretzi. Aldatu egiten da 203. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«203. artikulua. *Bezero motak.*

Titulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek beren bezeroek hiru motatan sailkatuko dituzte: profesionalak, txikizkariak eta kontrako alderdi hautagarriak. Betebehar hori bera aplikatuko zaie inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dituzten gainerako enpresei zerbitzu horiek ematen edo eskaintzen dizkieten bezeroei dagokienez.

Kontrako alderdi hautagarriaren kategoria zerbitzu hauekin baino ezin da aplikatu: aginduak jasotzea eta transmititzea, hirugarrenen kontura aginduak betetzea edo norberaren kontura negoziatzea, eta horiekin zuzenean loturiko zerbitzu osagarriak. Sailkapen hori ezin izango da egin aurreko bezeko beste zerbitzurik ematen denean, hala nola zorroak kudeatzea eta aholkularitza.»

Berrogei. Aldatu egiten da 205. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«205. artikulua. *Bezero profesionalak.*

1. Bezero profesionaltzat hartuko dira behar diren esperientzia, ezagutzak eta kualifikazioa dituztenak beren inbertsio-erabakiak hartzeko eta beren arriskuak zuzen baloratzeko.

2. Erregelamendu bidez zehaztu ahal izango dira zer bezero mota joko diren kasu guztietan bezero profesionaltzat.»

Berrogeita bat. Aldatu egiten da 206. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«206. artikulua. *Bezero profesional gisa tratatzeko eskaera.*

1. Halaber, bezero profesionaltzat joko dira 205. artikuluan sartzen ez diren eta aldeztu aurretik hori eskatzen duten gainerako bezeroak, sektore publikoko erakundeak, toki-erakundeak eta gainerako inbertitzaile txikizkariak barne, baldin eta bezero txikizkarien tratamenduari berariaz uko egiten badiote. Hala eta guztiz ere, inolaz ere ez da ulertuko profesional gisa tratatzea eskatzen duten bezeroek dituzten ezagutzak eta merkatuko esperientzia pareka daitezkeenik 205. artikulua araberako erregelamendu bidez ezarri diren bezero profesionalen kategoriekin.

2. Erregelamendu bidez garatu ahal izango dira aurreko apartatuan jasotako eskaera eta uko egitea onartzeko betekizunak.»

Berrogeita bi. Aldatu egiten da 207. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«207. artikulua. *Eragiketarako kontrako alderdi hautagarriekin.*

1. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honako erakunde hauek hartuko dira kontrako alderdi hautagarritzat:

a) Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak.

- b) Kreditu-erakundeak.
- c) Aseguru- edo berraseguru-erakundeak.
- d) Inbertsio kolektiboko erakundeak eta inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileak.
- e) Arrisku-kapitaleko erakundeak, molde itxikoak diren inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuk eta molde itxiko inbertsio kolektiboko erakundeetako sozietate kudeatzaileak.
- f) Pentsio funtsak eta haien sozietate kudeatzaileak.
- g) Europar Batasuneko legeriak edo estatu kide bateko zuzenbide nazionalak baimendutako edo araututako beste finantza-erakunde batzuk.
- h) Gobernu nazionalak eta beren zerbitzuak, horien barne direla zor publikoa nazio-mailan negoziatzen dutenak, banku zentralak eta nazioz gaindiko erakundeak. Halakotzat hartuko dira orobat hirugarren herrialdeetako eta autonomia-erkidegoetako erakunde baliokideak.

2. Halaber, baldin eta eskatzen bada, kontrako alderdi hautagarritzat hartuko dira Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 71. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten enpresak, eta horrelakoetan kasuan kasuko enpresa kontrako alderdi hautagarri gisa aitortuko da bezero profesionaltzat tratatu daitekeen zerbitzuei edo eragiketei dagokienez soilik. Horren barruan sartzen dira hirugarren herrialdeetako betekizun eta baldintza baliokideak dituzten enpresak.

3. Hirugarrenen konturako aginduak betetzeko, beren kontura negoziatzeko edo aginduak jaso eta transmititzeko baimenduta dauden inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek eragiketa horiek eta haiekin zuzenean lotutako zerbitzu osagarriak egin ahalko dituzte aurreko apartatuetan aipatutako erakundeekin, 208., 208. ter, 209.2, 213., 214., 215., 216., 217., 218., 219.1 eta 2, 220. bisetik 220. sexiesetara bitarteko, 221.1.b) eta 222.etik 224.era bitarteko artikuluetan ezarritako betebeharrak betetzeko beharrik izan gabe, baldin eta aurretiaz erakunde horiei horren berri ematen bazaie eta ez badute berriaz eskatzen artikuluko horiek aplika dakizkiela.

4. Kontrako alderdi hautagarriekiko beren harremanean, onestasunez, inpartzialki eta profesionaltasunez jokatu dute inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek; informazio inpartzial, argi eta ez-engainagarria komunikatu dute, eta kontuan hartuko dituzte kontrako alderdiaren nolakotasuna eta jardura.

5. 1. apartatuan aipatutako erakundeen kasuan, haiek kontrako alderdi hautagarri gisa sailkatuta egotea ulertuko da ezertan eragotzi gabe erakunde horiek, dela oro har, dela eragiketa bakoitzerako, bezerotzat hartzea eskatzeko eskubidea; izan ere, kasu horretan, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresarekiko harremana 3. apartatuan xedatutakoari lotuta egongo da. Eskaerak Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 71. artikuluan xedatutakoari jarraituko dio.

6. 2. apartatuan aipatutako enpresen kasuan, haiek kontrako alderdi hautagarri gisa sailkatzeko, beharrezkoa izango da inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak esanbidezko berrespena lortzea enpresak kontrako alderdi hautagarri gisa tratatua izatea onartzeari buruz, dela oro har, dela eragiketa bakoitzerako. Berrespen hori lortzeko prozedurek Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 71. artikuluan xedatutakoari jarraituko diote.

7. Eragiketa Europar Batasuneko kide den beste estatu batean helbidea duen enpresa batekiko egiten denean, estatu horretako legeriak enpresa dela-eta egiten duen sailkapena errespetatu beharko du.»

Berrogeita hiru. Aldatu egiten zaio izena VII. tituluaren I. kapituluaren 2. atalari, zeina 208. eta 208. bis artikuluek osatuko baitute, eta honela geratzen da idatzita:

«2. atala. *Jarduketako betebeharrak*»

Berrogeita lau. Aldatu egiten da 208. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«208. artikulua. *Arretaz eta gardentasunez jokatzeko betebeharra.*

Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek onestasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jokatuko dute, beren bezeroen interesik onenerako, eta, bereziki, beteko dituzte atal honetan eta 3., 4., 5., 6. eta 7. ataletan ezarritako printzipioak, bezeroei inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak, eta, hala badagokio, zerbitzu osagarriak, ematen dizkietenean.»

Berrogeita bost. Gehitu egiten da 208. bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«208. bis artikulua. *Interes-gatazkak.*

1. 193. artikuluan xedatutakoari jarraituz, inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dituzten enpresak antolatu behar dira, eta neurriak hartu behar dituzte bezeroen eta enpresaren edo taldearen beraren arteko interes-gatazkak saihesteko, detektatzeko eta kudeatzeko.

2. Erregelamendu bidez garatu ahal izango da artikulua honetan jasotakoa, eta, gutxienez, zehaztuko da zer parterean artean sor daitezkeen interes-gatazkak, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak aurreko apartatuari jarraituz hartutako neurriei buruz informatzeko zer betebeharrak dituen, eta zer bitartekoren bidez eman behar duen informazio hori.»

Berrogeita sei. Aldatu egiten zaio izena VII. tituluaren I. kapituluaren 3. atalari, zeinaren barruan sartuko baita 208. ter artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. atala. *Finantza-zerbitzuen zaintza eta kontrola*»

Berrogeita zazpi. Gehitu egiten da 208. ter artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«208. ter artikulua. *Finantza-produktuen diseinua eta merkaturatzea.*

1. Bezeroei saltzeko finantza-tresnak diseinatzen dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek bermatu behar dute tresna horiek definituta daudela azken bezeroen xede-merkatu baten beharrei erantzuteko, dagokion bezeroen kategoriaren barruan.

Halaber, bermatu behar dute finantza-tresnak banatzeko estrategia bateragarria dela ezarritako xede-merkatuarekin, eta arrazoizko neurriak hartu behar dituzte tresna ezarritako xede-merkatuan banatzen dela bermatzeko.

2. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek ulertu behar dituzten eskaintzen edo gomendatzen dituzten finantza-tresnen ezaugarriak; baloratu behar dute horiek bateragarriak diren inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak ematen dizkien bezeroen beharrek, aurreko apartatuan definitutako xede-merkatua ere kontuan harturik, eta bermatu behar dute bezeroaren intereserako denean baino ez direla eskaintzen edo merkaturatzen finantza-tresnak.

3. Erregelamendu bidez garatuko dira finantza-tresnak ekoizten eta banatzen dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresetarako artikulua honetan jasotako finantza-produktuen zaintza eta kontrolako betebeharrak. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehaztu ahal izango du zer prozedura eta faktore hartu behar diren kontuan finantza-tresnen xede-merkatua zehazteko, eta erakundeek zer prozesu eta sistema ezarri behar dituzten zentzuz bermatzeko produktuak identifikatutako xede-merkatuari banatzen zaizkiola.»

Berrogeita zortzi. Sortu egiten da 4. atala VII. tituluaren I. kapituluan, zeina 209.etik 211.era bitarteko artikuluek osatuko baitute, eta honela geratzen da idatzita:

«4. atala. Informatzeko eginbeharrak»

Berrogeita bederatzia. Aldatu egiten da 209. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«209. artikulua. *Informatzeko eginbehar orokorra.*

1. Inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak ematen dituzten erakundeek une oro ondo informatuta izan behar dituzte beren bezeroak, lege honetan, bera garatzeko xedapenetan eta Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan xedatutakoari jarraituz.

2. Bezeroei zuzendutako informazio guztia, bai eta publizitate izaerakoa ere, inpartziala, argia eta ez-engainagarria izango da. Publizitate-komunikazioek halakotzat argiro identifikagarriak izan behar dute.

3. Bezeroei, bezero potentzialak barne, behar adinako aurrerapenarekin emango zaie informazio egokia inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresari buruz, proposatutako finantza-tresnei eta inbertsio-estrategiei buruz, aginduak betetzeko zentzuzko buruz eta horrekin loturiko kostu eta gastu guztiei buruz.

4. Erregelamendu bidez garatuko da artikulua honetan jasotakoa, eta, bereziki, bezeroei eman behar zaien informazioaren edukia.»

Berrogeita hamar. Aldatu egiten da 211. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«211. artikulua. *Emandako zerbitzuari buruzko informazioa emateko eginbeharra.*

Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak emandako zerbitzuari buruzko txosten egokiak emango dizkio bezeroari euskarri iraunkorrean. Txosten horien barruan egongo dira bezeroentzako aldi behingo komunikazioak, kontuan hartuta kasuan kasuko finantza-tresnen mota eta konplexutasuna eta bezeroari emandako zerbitzuaren nolakotasuna, eta horien barruan sartuko dira, hala badagokio, bezeroaren kontura egindako eragiketen eta zerbitzuen kostuak.»

Berrogeita hamaika. Sortu egiten da 5. atala VII. tituluaren I. kapituluan, zeina 2012. etik 217.era bitarteko artikuluek osatuko baitute, eta honela geratzen da idatzita:

«5. atala. Egokitasuna eta komenigarritasuna ebaluatzea»

Berrogeita hamabi. Aldatu egiten dira 212.etik 217.era bitarteko artikuluek, eta honela geratuko dira idatzita:

«212. artikulua. *Erakundeek beren bezeroak ezagutzeko eginbehar orokorra.*

Inbertsio-zerbitzuak eta jarduerak ematen dituzten erakundeek une oro segurtatu beharko dute beren bezeroei buruzko behar den informazio guztia dutela, Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 213.etik 217.era bitarteko artikuluetan eta 54.etik 57.era bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera.

213. artikulua. *Egokitasunaren ebaluazioa.*

1. Inbertsioen arloko edo zorroen kudeaketaren arloko aholku-zerbitzua ematen duenean, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak bezeroei buruz behar duen informazioa lortuko du, eta, hala badagokio, bezero potentzialei buruzkoa, haien egokienak diren eta haien arriskuarekiko tolerantzia-mailara eta galerak jasateko ahalmenera ondoen egokitzen diren inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak eta finantza-tresnak gomendatu ahal izateko.

2. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek inbertsioen arloko aholku-zerbitzua ematen badu eta 219.2 artikulua araberako zerbitzu edo produktu konbinatuen pakete bat gomendatzen badu, zaindu behar du paketea, oro har hartuta, egokia dela bezeroarentzat.

3. Bezero profesionalen kasuan, enpresak ez du jaso beharko bezero profesionalaren kategoria lortu dueneko produktu, eragiketa eta zerbitzuen inguruan bezeroak dituen ezagutzei eta esperientziari buruzko informazioa.

4. Erakundeak aurreko apartatuan aipatutako informazioa lortzen ez duenean, ez dio inbertsio-zerbitzurik eta -jarduerarik edo finantza-tresnarik gomendatuko bezeroari edo balizko bezeroari.

5. Inbertsioen arloko aholku-zerbitzua ematean, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak, eragiketa gauzatu aurretik, egokitasun-adierazpen bat emango dio bezeroari euskarri iraunkorrean; horretan zehaztu beharko da zer aholku-zerbitzu eman zaion, eta zenbateraino datorren bat aholku-zerbitzu hori bezero txikizkariaren lehentasunekin, helburuekin eta beste zenbait ezaugarriekin.

6. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek zorroen kudeaketako zerbitzuak ematen baditu edo bezeroari jakinarazi badio aldi behingo egokitasun-ebaluazioa egingo duela, aldi behingo txostenean jaso behar da inbertsioa bezero txikizkariaren lehentasunari, helburuari eta beste zenbait ezaugarrietara nola egokitzen den azaltzen duen egoera eguneratua.

214. artikulua. *Komenigarritasunaren ebaluazioa.*

1. Inbertsioen arloko aholku-zerbitzuak edo zorroen kudeaketaz besteko zerbitzuak ematen direnean, inbertsio-zerbitzuetako enpresak eskaintako edo eskatutako produktu edo zerbitzu mota zehatzaren inbertsio-arloari buruz duen ezagutza eta bertan izandako esperientziari buruzko informazioa ematea eskatu beharko dio bezeroari, erakundeak inbertsio-zerbitzua edo -produktua bezeroarentzako egokia den ebaluatu ahal izan dezan.

2. 219.2 artikulua araberako zerbitzu eta produktu konbinatuen pakete bat aurreikusten denean, zaindu beharko du paketea bere osotasunean hartuta komenigarria dela bezeroarentzat.

3. Ebaluazioa jasotzen duen dokumentuaren kopia emango dio erakundeak bezeroari, artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4. 1. apartatuan ezarritako informazioa oinarri hartuta, erakundeak inbertsio-produktua edo -zerbitzua bezeroarentzako egokia ez dela uste duenean, ohartarazi egingo du.

5. Bezeroak 1. apartatuan adierazitako informazioa ematen ez duenean edo emandakoa nahikoa ez denean, erakundeak inbertsio-zerbitzua edo -produktua beretzat egokia den edo ez erabakitzeke aukerarik izan ez duela adieraziko dio.

6. Emandako inbertsio-zerbitzua tresna konplexu bati lotuta badago, 217. artikuluan zehaztutakoaren arabera, kontratu-dokumentuak bezeroaren sinaduraz gain, inbertitzailearen idatzizko adierazpen bat ere jasoko du, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehaztutako baldintzetan. Horren bidez, zera adieraziko du inbertitzaileak: produktua komeni ez zaiola adierazi diotela edo ezin izan zaiola artikulua honetako baldintzetan ebaluaziorik egin.

215. artikulua. *Komenigarritasuna ebaluatzeko betebeharren gaineko erregistroa.*

Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dituzten erakundeek une oro eduki behar dute egindako komenigarritasun-ebaluazioen erregistroa, Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 56. artikuluan jasotakoari jarraituz.

216. artikulua. *Komenigarritasunaren ebaluaziotik salbuestea.*

Baldin eta bezeroen aginduak betetzeko edo jaso eta transmititzeko zerbitzua baino ez badu ematen, zerbitzu osagarriak emanda zein eman gabe, bezeroen zorpekoak baimentzeen, maileguen eta kontu korronteen kreditu-mugei buruzkoak ez diren 141.b) artikulua araberako kredituak edo maileguak ematea izan ezik, erakundeak ez du bete beharko 214. artikuluan deskribatutako prozedura, baldin eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

- a) Agindua finantza-tresna ez-konplexuei buruzkoa izatea.
- b) Zerbitzua bezeroaren edo bezero potentzialaren ekimenez ematea.
- c) Erakundeak bezeroa edo bezero potentziala argiro informatu izana ez duela eskainitako finantza-tresnaren edo emandako zerbitzuaren komenigarritasuna ebaluatzeko betebeharririk, eta, horrenbestez, bezeroak ez duela lege honetan ezarritako arauen babesa. Ohartarazpen hori formatu normalizatu batean egin ahal izango da.
- d) 208. bis artikuluan xedatutakoa erakundeak betetzea.

217. artikulua. *Finantza-tresna ez-konplexuak.*

1. Kapitulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek joko dira finantza-tresna ez-konplexutzat:

- a) Merkatu arautu batean, hirugarren herrialde bateko merkatu baliokide batean edo SNM batean negoziazioan onartutako akzioak, baldin eta sozietateen gaineko akzioak badira, salbu eta balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakundeez (OICVM) beste inbertsio kolektiboko erakundeen gaineko akzioak eta deribatuak barne hartzen dituzten akzioak.
- b) Moneta-merkatuko tresnak. Kanpo geratzen dira deribatuak daukatenak eta bezeroari zer arrisku hartzen ari den ulertzea zailtzen dion egitura daukatenak.
- c) Merkatu arautu batean, hirugarren herrialde bateko merkatu baliokide batean —a) letran xedatutakoaren arabera— edo SNM batean negoziazioan onartutako obligazioak eta titulizatutako zorraren beste motak, salbu eta deribatuak daukatenak eta bezeroari zer arrisku hartzen ari den ulertzea zailtzen dion egitura daukatenak.
- d) OICVMen gaineko akzioak eta partaidetzak, salbu eta 583/2010 (EB) Erregelamenduaren 36.1 artikulua bigarren paragrafoan jasotako OICVM egituratuak.
- e) Gordailu egituratuak, salbu eta bezeroari zer arrisku hartzen ari den ulertzea zailtzen dion egitura daukatenak, errendimenduari dagokionez zein produktutik epemuga baino lehenago ateratzearen kostuari dagokionez.

2. Aurreko apartatuan jasotako tresnez gainera, finantza-tresna ez-konplexutzat joko dira Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 57. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

3. Kapitulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek ez dira joko finantza-tresna ez-konplexutzat:

- a) Beste edozein balore negoziagarri eskuratzeko edo saltzeko eskubidea ematen duten edo eskudiruko likidazio baterako eskubidea ematen duten baloreak, erreferentziatzat hartuta balore negoziagarriak, dibisak, interes-tasak edo errendimenduak, lehengaiak, edo bestelako adierazleak edo neurriak.
- b) Eranskinaren d)tik k)ra bitarteko letretan aipatutako finantza-tresnak.
- c) Eranskinaren a).3.) apartuan jasotako finantza-tresnak, baldin eta barne-birkapitalizaziorako pasibo onargarri ere badira ekainaren 18ko 11/2015 Legearen VI. kapituluaren 4. atalean ezarritakoaren arabera.»

Berrogeita hamahiru. Gehitu egiten zaio 6. atala VII. tituluaren I. kapitulari, zeina 218. eta 219. artikuluek osatzen baitute, eta honela geratzen da idatzita:

«6. atala. *Zerbitzuak ematean izan beharreko beste zenbait jokabide-betebehar»*

Berrogeita hamalau. Aldatu egiten dira 218. eta 219. artikulua, eta honela geratuko dira idatzita:

«218. artikulua. *Kontratuen erregistroa.*

Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek erregistro bat eratu behar dute, eta horretan jaso behar dituzte enpresaren eta bezeroaren funtsezko betebeharrak eta eskubideak eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak bezeroari inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak zer baldintzatan emango dizkion idatziz eta paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan ezartzen direneko akordioak.

Akordio horien edukiak Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 58. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.

219. artikulua. *Inbertsio-zerbitzuak finantza-produktu baten zati gisa edo lotetsiko kreditu edo salmenta baten aldez aurreko baldintza gisa.*

1. Informazio-betekizunei buruzko kreditu-erakundeen eta kontsumorako kredituen gaineko beste xedapen batzuk aplikatzen zaizkion finantza-produktu baten barruan inbertsio-zerbitzu bat eskaintzen bada, zerbitzu horrek ez ditu bete beharko lege honen 209. artikuluan ezarritako betekizunak.

2. Beste zerbitzu edo produktu batekin batera pakete baten barruan edo akordio edo pakete beraren baldintza gisa inbertsio-zerbitzu bat eskaintzen bada, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak jakinaraziko dio bezeroari ea bereiz erosi daitezkeen paketeko osagaiak, eta bereizita emango dizkio osagai bakoitzaren kostu eta kargen egiaztagiriak.

Baldin eta bezero txikizkariari eskainitako akordio edo pakete horri loturiko arriskuak eta bereizi hartuta horren osagaiei loturiko arriskuak ezberdinak badira, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak akordioaren edo paketearen osagai bakoitzaren deskribapen egokia emango dio, eta azalduko dio nola aldatzen dituen arriskuak haien arteko elkarreraginak.

3. Baldin eta bizitegi-erabilerako ondasun higiezinaren gaineko kreditu-kontratu bat Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 4ko 2014/17/EB Zuzentaraua aplikatzeko araudian ezarritako kontsumitzaileen kaudimena ebaluatzeari buruzko xedapenei lotua badago (zuzentarau hori da bizitegi-erabilerako ondasun higiezinarako kontsumitzaileekin egindako kreditu-kontratuei buruzkoa, eta horren bidez aldatu dira 2008/48/EE eta 2013/36/EB Zuzentarauak eta 1093/2010 (EB) Erregelamendua), eta kreditua amortizatze, birfinantzatzeko edo ordaintzeko aldez aurreko baldintza badu kontsumitzaile horri inbertsio-zerbitzu bat ematea, eta inbertsio-zerbitzu hori lotua badago kreditu-kontratu finantzatzeko berme gisa berriaz jaulkitako hipoteka-betebeharrekin, eta horren baldintza berberetan ematen bada, zerbitzu horrek ez ditu bete beharko 209., 213., 214.5, 216., 217., 218., 219.3 eta 220. sexies artikuluetan ezarritako betekizunak.»

Berrogeita hamabost. Gehitu egiten zaio 7. atala VII. tituluaren I. kapituluari, zeina 220. bisetik 220. sexiesetara bitarteko artikulua berriek osatuko baitute, eta honako titulu eta eduki hauek izango ditu:

«7. atala. *Ordainketak eta ordainsariak zerbitzuak ematean*

220. bis artikulua. *Ordainsaria eta interes-gatazka.*

Bezeroei inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dizkieten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek segurtatuko dute ez dutela erabiltzen beren langileen errendimendua ordaintzeko edo ebaluatzeko bezeroen interes onenean jokatzeko duten betebeharrarekin gatazkan dagoen modurik. Bereziki, ez dute ezarriko ordainsarietako, salmenta-helburuetako edo bestelako inongo sistemarik, langileak bultza ditzakeenik finantza-tresna jakin bat bezero txikizkariari gomendatzera bezeroaren beharretara hobeto egokitzen den beste finantza-tresnaren bat eskaini badiezaioke inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak.

220. ter artikulua. *Aholkularitza independentea.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek bezeroei jakinarazteko inbertsio arloko aholkularitza-zerbitzua independentziaz ematen dutela, honako betekizun hauek bete behar dituzte ezinbestean:

a) Merkatuan eskuragarri dauden finantza-tresnen sorta behar beste dibertsifikatua (motari zein jaulkitzaileei edo hornitzaileei dagokienez) ebaluatu behar dute, hartara bermatzeko bezeroaren inbertsio-helburuak egokiro bete daitezkeela; eta ezin dira honako hauek emandako edo eskainitako finantza-tresnetara:

1.–Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak berak edo berarekin lotura estuak dituzten erakundeak.

2.–Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak lotura juridikoak edo ekonomikoak dituen beste erakunde batzuek, hala nola kontratu-harremanak, baldin eta lotura horiek murriz badezakete emandako aholkularitzaren independentzia.

b) Ez dute onartu eta atxiki behar hirugarren batek edo hirugarren baten kontura jokatzeko duen pertsona batek emandako ordainsaririk, komisiorik edo diruzko zein ez-diruzko beste edozein onura bezeroei zerbitzua ematearekin lotutakorik.

c) Argi jakinarazi behar dizkiote bezeroari berari emandako zerbitzuaren kalitatea handitzeko balio dezaketen ez-diruzko onura txikiak, baldin eta horien eskala eta nolakotasuna direla-eta ezin jo badaiteke eragiten diotenik inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak bezeroen interes onenaren alde jokatzeko betebeharra betetzeari; onura horiek, halaber, aurreko letra xedatutakotik salbuetsita egongo dira.

2. Erregelamendu bidez garatuko da aurreko apartatuan jasotako ordainsariak, komisioak edo diruzko zein ez-diruzko beste edozein onura jasotzeko debekua, eta zer onura jotzen diren ez-diruzko onura txikitat.

220. quater artikulua. *Independentzia zorroen kudeaketa diskrezionalan.*

1. Zorroen kudeaketako zerbitzua ematen duenean, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak ez du onartu eta atxikiko hirugarren batek edo hirugarren baten kontura jokatzeko duen pertsona batek emandako ordainsaririk, komisiorik edo diruzko zein ez-diruzko beste edozein onura bezeroei zerbitzua ematearekin lotutakorik.

2. Argi jakinaraziko zaizkio bezeroari, eta aurreko apartatuan xedatutakotik kanpo utziko dira, bezeroari emandako zerbitzuaren kalitatea handitzeko balio dezaketen ez-diruzko onura txikiak, baldin eta horien eskala eta nolakotasuna direla-eta ezin jo badaiteke eragiten diotenik inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak bezeroen interes onenaren alde jokatzeko betebeharra betetzeari.

3. Erregelamendu bidez garatuko da 1. apartatuan jasotako ordainsariak, komisioak edo diruzko zein ez-diruzko beste edozein onura jasotzeko debekua.

220. quinquies artikulua. *Pizgarriak jasotzea.*

1. Ez da inolako kasutan joko inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak betetzen dituela 208. eta 208. bis artikuluetan ezarritako betebeharrak, baldin eta bezeroa ez den edo bezeroaren izenean jarduten duen pertsona ez den hirugarren batengandik edo hirugarren bati ordaintzen edo kobratzen badituzte ordainsariak edo komisioak, edo ematen edo jasotzen badute ez-diruzko edozein onura inbertsio-zerbitzuren bat edo zerbitzu osagarriren bat emateari loturik, salbu eta ordainketa edo onura hori:

a) Bezeroari ematen zaion zerbitzuaren kalitatea hobetzeko pentsatua bada.

b) Ez badu oztopatzen onestasunez, inpartzialtasunez, profesionaltasunez eta bezeroen interesik onenaren alde jarduteko inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak duen betebeharra betetzea.

2. Aurreko apartatuan aipatutako ordainketen edo onuren izaera eta zenbatekoa, edo, zenbatekoa zehaztu ezin denean, hura kalkulatzeko metodoa, osorik, zehaztasunez eta ulertzeko moduan azaldu behar zaizkio bezeroari, kasuan kasuko inbertsio-zerbitzua edo zerbitzu osagarria eman aurretik. Hala dagokionean, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak bezeroari informazioa emango dio inbertsio-zerbitzua edo zerbitzu osagarria emateagatik jasotako ordainsariak, komisioak edo diruzko onurak bezeroari transferitzeko mekanismoei buruz.

3. Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematea ahalbidetzen duten edo horretarako beharrezkoak diren ordainketa edo onurak (hala nola zaintza-gastuak, likidazio- eta truke-gastuak, tasa arautzaileak edo aholkularitza juridikoko gastuak), baldin eta beren izaeraren ondorioz ezin badira gatazkan egon inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak onestasunez, inpartzialtasunez, profesionaltasunez eta bezeroen interesik onenaren alde jarduteko betebeharrarekin, ez dituzte bete beharko lehenengo apartatuan jasotako betekizunak.

4. Gobernuak, edo hark esanbidez gaituz gero, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, garatuko du artikulua honetan xedatutakoa. Bereziki, 1. apartatuan aipatutako betekizunak gertatzen direla jotzen deneko kasuen zerrenda itxi bat ezarri ahal izango dute.

220. sexies artikulua. *Behar adinako ezagutzak eta gaitasunak frogatzea.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari segurtatu eta frogatuko diote, horrek hala eskatuz gero, beraren izenean bezeroei finantza-tresnen, inbertsio-zerbitzu eta -jardueren edo zerbitzu osagarrien gaineko aholkularitza edo informazioa ematen dieten pertsona fisikoek dituztela behar adinako ezagutza eta gaitasunak emateko 208. ter, 209. eta 211.etik 220. quinquiesera bitarteko artikuluen arabera.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bere webgunean argitaratuko ditu Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziak onetsitako gidalerroak, zeinetan zehaztuko baitira aurreko apartatuan jasotako ezagutzak eta gaitasunak ebaluatzeko irizpideak, eta hala badagokio, 270.1 artikuluari jarraituz onetsitako Gida Teknikoak, zeinetan zehazten baita zer irizpide jotzen den egokitze erakundeek frogatzen inbertsio-zerbitzu eta -jardueri buruzko informatzen edo aholkuak ematen dituzten langileek ezagutza eta gaitasun horiek dituztela.»

Berrogeita hamasei. Gehitu egiten zaio 8. atala VII. tituluaren I. kapitulari, zeina 221. etik 224.era bitarteko artikuluek osatuko baitute, eta honako izenburu eta eduki hau izango du:

«8. atala. *Bezeroen aginduak kudeatu eta betetzea*»

Berrogeita hamazazpi. Aldatu egiten da 221. artikulua, eta honela geratuko da idatzita:

«221. artikulua. *Aginduak kudeatu eta betetzeari buruzko betebeharrak.*

1. Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dituzten pertsonak edo erakundeek bezeroen aginduak betetzen dituztenean, dela modu independentean, dela beste batekin batera, honako hau bete beharko dute:

a) Beren bezeroen eragiketarako emaitzarik onena lortzeko behar diren neurri guztiak hartu behar dituzte, kontuan hartuta prezioa, kostuak, betetzearen eta likidazioaren arintasuna eta probabilitatea, bolumena, eragiketaren izaera eta agindua betetzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein elementu.

b) Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 67.etik 70.era bitarteko artikuluetan jasotakoaren arabera aginduak kudeatzeko prozedurak eta sistemak eduki behar dituzte, aginduak era puntual, bidezko eta arinean betetzeko eta gero esleitzeko, halako moduz non ez baita bezerorik kaltetuko eragiketak haietako zenbaitentzat egiten direnean edo norberaren kontura jokatzan denean. Prozedura edo sistema horiek aukera emango dute bezeroen aginduak betetzeko, baldin eta baliokideak badira, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak jasotako uneari erreparatuta.

c) Neurriak hartu behar dituzte bezeroen prezio mugatuko aginduak al bait azkarren betetzea errazteko, merkatuaren une hartako egoeretan berehala betetzen ez diren eta merkatu arautu batean negoziatzeko onartu diren edo negoziazio-zentro batean negoziatzen diren akzioen aldean.

2. Atal honetan jasotakoa Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuari jarraituz aplikatuko da (erregelamendu horrek osatu egiten du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen antolaketa-betekizunei, funtzionamendu-baldintzei eta zuzentarau horren ondorioetarako definitutako baldintzei dagokienez).

3. Erregelamendu bidez garatu ahal izango da artikulua honetan jasotakoa.»

Berrogeita hemezortzi. Gehitu egiten da 221. bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«221. bis artikulua. *Aginduak negoziazio-zentroetan betetzea.*

1. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek ez dute jasoko interes-gatazken edo pizgarrien arloan 208.etik 208. terrera bitarteko artikuluetan, 209. artikuluan, 220. bisetik 220. sexiesera bitarteko artikuluetan eta 221. artikuluan ezarritako betekizunak urratzen dituen inolako ordainsaririk, deskonturik edo ez-diruzko onurarik, bezeroen aginduak negoziazio- edo exekuzio-zentro jakin batera bideratzearen truke.

2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 23. eta 28. artikuluetan jasotako negoziazio-betebeharrari lotutako finantza-tresnetarako, negoziazio-zentro eta barneratzaile sistemako bakoitzak, eta gainerako finantza-tresnetarako, exekuzio-zentro bakoitzak, publikoaren eskura jarriko ditu zentro horretako operazioen betetzearen kalitateari buruzko datuak, inolako kosturik gabe eta gutxienez urtean behin, Batzordearen 2016ko ekainaren 8ko 2017/575 (EB) Erregelamendu

Eskuordetuari jarraituz (erregelamendu horrek osatu egiten du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua, finantza-tresnen merkaturerako buruzkoa, exekuzio-zentroek operazioen betetzearen kalitateari buruz argitaratu behar dituzten datuei aplikatu beharreko erregulatzeko arau teknikoiei dagokienez). Aldian behingo txostenean jasoko dira finantza-tresna bakoitzaren eragiketarako betetzeko prezioari, kostuei, abiadurari eta probabilitateari buruzko datu xehatuak.

3. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek bezeroari jakinarazi beharko diote, eragiketa egin ondoren, zer zentrotan bete den agindua.»

Berrogeita hemeretzi. Aldatu egiten da 222. artikulua, eta honela geratuko da idatzita:

«222. artikulua. *Aginduak betetzeko politikari buruz informatzeko betebeharra.*

1. Erakundeak bere bezeroei informazioa eman beharko die aginduak betetzeko daukan politikari buruz, eta beharrezkoa izango da bezeroaren adostasuna lortzea haien aplikatu baino lehen. Informazio horretan argi azalduko da, behar adinako xehetasunaz eta bezeroek erraz ulertzeko moduan, nola beteko dituen enpresak bezeroarentzako aginduak. Eskerak Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan xedatutakoari jarraituko dio.

2. Politika horrek aukera ematen badu erakundeak aginduak bete ditzen negoziazio-zentro batetik kanpo, bezeroek inguruabar hori ezagutu beharko dute, eta alde zuzenetik eta esanbidez beren adostasuna adierazi beharko dute aginduak negoziazio-zentro batetik kanpo bete baino lehen. Adostasuna orokorrean edo eragiketa jakin bakoitzerako lortu ahalko da.

3. Erakundeak modua izan behar du bezeroei frogatzeko, haien hala eskatuz gero, beren aginduak bete direla enpresak aginduak betetzeko duen politikari jarraituz, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari frogatzeko, hark hala eskatuz gero, 221.etik 224.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa bete duela.»

Hirurogei. Gehitu egiten da 222. bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«222. bis artikulua. *Exekuzio-zentro nagusiei buruz urtero informatzeko betebeharra.*

Bezeroen aginduak betetzen dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, urtero laburtu eta argitaratuko dute, finantza-tresnen mota bakoitzerako, aginduak betetzeko zein bost zentro nagusitan, negoziazio-bolumenari dagokionez, bete zituzten bezeroen aginduak aurreko urtean, eta informazioa emango dute aginduak betetzen lortutako kalitateari buruz.

Informazio horren edukiak eta formatuak Batzordearen 2016ko ekainaren 8ko 2017/576 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan xedatutakoari jarraituko diote.»

Hirurogeita bat. Aldatu egiten dira 223.etik 224.era bitarteko artikulua, eta honela geratuko dira idatzita:

«223. artikulua. *Aginduak betetzeko kasu bereziak.*

1. Bezeroak aginduaren betetzeari buruzko jarraibideak ematen dituztean, enpresak agindua beteko du emandako jarraibide berariazkoari jarraituz.

2. Berariazko jarraibideak eman ez dituzten bezero txikizkarien aginduak direnean, izan daitekeen emaitzarik onena guztizko kontraprestazioaren baldintzetan zehaztuko da; azken hori honako hauek osatuko dute: finantza-tresnaren prezioak eta betetzearekin lotutako kostuek, zeinetan biltzen baitira agindua betetzearekin lotuta bezeroak bere gain hartu dituen gastu guztiak, barne direla exekuzio-zentroaren komisioak, konpentsaziokoak eta likidaziokoak, bai eta agindua betetzean hirugarren ukituei ordaindutako gainerakoak ere.

224. artikulua. *Erakundeek aginduak betetzeko politika gainbegiratzea.*

1. Bezeroen aginduak betetzen dituzten inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek beren sistemen eta aginduak betetzeko beren politikaren eraginkortasuna gainbegiratuko dute, gabeziaren bat gertatuz gero detektatu eta zuzentzeko. Bereziki, aldian behin egiaztatuko dute aginduak betetzeko daukan politikan sartuta dauden exekuzio-zentroek ematen dituzten bezeroentzako emaitzarik onenak, edo aginduak betetzeko sistemak aldatu behar dituen, kontuan harturik, besteak beste, 221. bis.2 eta 222. bis artikuluetan xedatutakoa aplikatuz argitaratutako informazioa.

2. Haiekin lan-harreman egonkorra duten bezeroei jakinaraziko diete sistemetan eta aginduak betetzeko duten politikan egindako edozein aldaketa garrantzitsu.»

Hirurogeita bi. Aldatu egiten da 233. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

Gehitu egiten zaizkio a).8. zenbakia eta l) letra 233.1 artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«8. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileak.»

«l) Kreditu-erakundeak, gordailu egituratuekin loturiko beren salmenta- edo aholkularitza-jarduera egitean.»

Hirurogeita hiru. Aldatu egiten da 234. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«234. artikulua. *Gainbegiratze- eta ikuskatze-ahalmenak.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bere eginkizunak betetzeko behar dituen gainbegiratze- eta ikuskatze-ahalmen guztiak edukiko ditu. Ahalmen horiek honela baliatu ahalko ditu:

a) Zuzenean, hirugarrenen laguntza eskatzeko ahalmena alde batera utzi gabe, 235. artikuluan ezarritako moduan.

b) Beste agintari nazional edo atzerritar batzuekin lankidetzan, lege honetan eta bera garatzeko arauetan ezarritako baldintzetan.

c) Agintari judizial eskudunen eskaeraren bidez.

2. Ordenamendu juridikoan ezarritako moduan eta mugapenekin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren gainbegiratze- eta ikuskatze-ahalmenek honako ahal hauek jasoko dituzte gutxienez:

a) Bere eginkizunak betetzeko garrantzitsua izan daitekeela irizten dion edozein dokumentutarako (dagoen forman dagoela) edo bestelako datutarako sarbidea izatea, eta jasotzea edo eskuratzea horien kopia.

b) Edozein pertsonari (bai eta aztergai diren eragiketak betetzeko edo aginduak transmititzeko edozein urratsetan parte hartu duten pertsoneri ere) errekeritza edo eskatzea informazioa emateko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak arrazoiz finkatzen duen epean, eta, beharrezkoa bada, pertsona bati hitzordua eman eta deklarazioa hartzea.

c) Ikuskapenak edo aurrez aurreko ikerketak egitea edozein bulego edo egoitzatan.

d) Datuen Babeserako Lege Organikoaren hemezortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, beste bitarteko batzuetatik ezin izan badu lortu gainbegiratzeko edo ikuskatzeko bere eginkizunak egiteko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak publikoaren eskura dauden komunikazio elektronikoak ematen dituzten operadoreengandik eta informazioaren gizarteko zerbitzuen hornitzaileengandik jaso ahal izango dituzte haren edukia ez bezalakoak diren eta eginkizun horiek egiteko ezinbestekoak diren hornitzaile horiek emandako

komunikazio elektronikoei edo informazioaren gizarteko zerbitzuari buruz haiek dauzkaten datuak.

Datuen Babeserako Lege Organikoaren hemezortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, datu horiek emateko, aldez aurretik lortu behar da arau prozesalen araberrako baimen judiziala.

Halaber, Datuen Babeserako Lege Organikoaren hemezortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, apartatu honetan ezarritakotik kanpo geratzen dira operadoreek Komunikazio elektronikoetako eta komunikazio-sare publikoetako datuak kontserbatzeari buruzko urriaren 18ko 25/2007 Legean ezarritako betebeharrak betetzeko helburu bakarrarekin tratatzen dituzten trafiko-datuak.

Horretarako, oinarrizko eskubideak murriztea badakar, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren organo eskudunak administrazioarekiko auzien epaitegi zentralari eskatu beharko dio dagokion baimen judiziala, eta horrek berrogeita zortzi orduko epean ebatziko du gehienez ere.

- e) Aktiboak enbargatzeko edo izozteko eskatzea.
- f) Lanbide-jardueren aritzeko aldi baterako debekua eskatzea.
- g) Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresetako eta 233.1.a) artikulua 1., 2. eta 8. zenbakietan aipatutako erakundeetako auditoreei exijitzea beren eginkizunetan zihardutela lortutako edozein informazio.
- h) Edozein pertsonari errekeritzea edo eskatzea informazioa eta dagokion dokumentazioa eman ditzala lehengaien gaineko deribatu baten bidez egindako posizio edo esposizio baten bolumenari eta helburuari buruz eta azpiko merkatuko aktibo eta pasiboari buruz.
- i) Exijitzea behin-behineko zein behin betiko geldi dadin Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamenduaren, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren edo lege honen edo bera garatzeko xedapenen kontrakotzat jotzen duen edozein jardunbide edo jokabide, eta saihestea hura errepikatzea.
- j) Era guztietako neurriak hartzea gainbegiratu beharreko pertsonen eta erakundeek aplikatu beharreko arauak eta xedapenak, edo zuzentzeko egindako eskaerak, betetzen dituztela segurtatzeko; hartarako, pertsona eta erakunde horiei, banaka edo taldeka, aditu independenteen, auditoreen edota barne-kontrolerako edo araudia betetzeko organoen txostenak aurkezteko eskatu ahalko zaie.
- k) Erabakitzea pertsona fisikoek edo juridikoek balore-merkatuan egin ditzaketen eragiketa edo jardueren mota edo bolumena eten edo muga dadila.
- l) Erabakitzea finantza-tresna bat etetea edo negoziatuztik kanpo uztea, merkatu arautu batean edo beste negoziazio-sistemaren batean.
- m) Edozein pertsonari eskatzea neurriak har ditzala posizio edo esposizio baten bolumena murrizteko.
- n) Gai batzuk igortzea, zigor-prozedura aplikatu dakien.
- ñ) Lehengaien gaineko deribatuen kontratu bat sinatzeko edozein pertsonaren ahalmena murriztea, horren barruan hartuta edozein unetan pertsona batek eduki ditzakeen posizioen tamainaren mugak sartzea, 85. artikuluari jarraituz.
- o) Abisuak argitaratzea.
- p) Finantza-tresnen edo gordailu egituratuen merkaturatzea edo salmenta etetea, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 40., 41. edo 42. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badira.
- q) Finantza-tresnen edo gordailu egituratuen merkaturatzea edo salmenta etetea, baldin eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek ez badu garatu edo aplikatu produktuak onesteko prozesu eraginkorrik edo bestela urratu badu lege honetan edo bera garatzeko arauetan xedatutakoa.

r) Exijitzea pertsona fisiko bat inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren edo merkatuaren zuzentze-erakundearen administrazio-organotik kentzeko.

s) Auditoreei edo adituei baimena ematea egiaztapenak edo ikerketak egiteko.

t) 122.2 artikulua aipatzen duen aldizkako informazioa egiaztatzeko eginkizunaz baliatuta, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak honako hauek egin ahalko ditu:

1. Baloreak Europar Batasunean helbideratutako edozein merkatu araututan negoziatzeko onartuta dituzten jaulkitzaileen kontu-auditoreei eskatzea, idatzizko errekerimendua eginda, behar diren informazio edo dokumentuak, uztailaren 20ko 22/2015 Legean ezarritakoari jarraituz.

Baldin eta kontu-auditoreek agerrarazten badituzte artikulua honetan ezarritakoari jarraituz Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eskatutako informazioak, jokabide hori ez da sekretu-eginbeharraren ez-betetzetzat hartuko.

2. Baloreak Europar Batasunean helbideratutako edozein merkatu araututan negoziatzeko onartuta dituzten jaulkitzaileei eskatzea argitara eman ditzatela aldizkako informazioaren informazio gehigarriak, berdinkatzeak, zuzenketak edo, kasua bada, birformulatzeak.

u) Informazioa lortzea, bere langileen bitartez, gainbegiraturako erakundeek balore-merkatuei eragiten dieten arauak zer mailatan betetzen dituzten jakiteko, baina Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalako langileak direla jakinarazi gabe, eta, bereziki, horien finantza-produktuak nola merkaturatzen ari diren; halaber, erakunde horiek darabiltzaten jardunbide onei eta txarrei buruzko informazioa lortzea.

v) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamenduaren 19.1 artikuluan zerrendatutako pertsonen eta erakundeen idatziz edo ahoz errekerimendua egitea berehala argitara eman dezaten egokitzen jotzen duen informazioa, balore-merkatuarekin zerikusia duten edo hartan eragina izan dezaketen beren jardueren buruzkoa. Betebeharra dutenek zuzenean egiten ez badute, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak berak egingo du.

w) Kautelaz etetea eskuratutako akzioei lotutako boto-eskubideaz baliatzea, harik eta 125. artikuluan ezarritako informazio-betebeharrak bete direla egiaztatzen den arte, zehapen-espeditente bat irekitzeko unean edo hura izapidetzen den bitartean.

x) Lehengaien gaineko deribatuei dagokienez, lotura duten eskudiruko merkatuetan parte hartzen dutenei informazioa eskatzea inprimaki normalizatuen bidez, eragiketei buruzko txostenak jasotzea eta zuzeneko sarbidea izatea operadoreen sistemetara.

y) Publikoari informazioa egokiro ematen zaiola bermatzeko behar diren neurri guztiak hartzea, besteak beste, argitaratutako informazio faltsu edo engainagarria zuzenduz, eta igorleari edo informazio faltsu edo engainagarria argitaratu edo hedatu duen beste norbaiti eskatuz zuzenketa argitara dezala.

3. Gainbegiratze- edo ikuskatze-ahalmenak jasotzen dituzten pertsonen aurka eginez gero edo aurka egiteko arriskua egonez gero, oinarritzko eskubideak murriztea badakar, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren organo eskudunak administrazioarekiko auzien epaitegi zentraleri eskatu beharko die dagokion baimen judiziala, eta horiek bost eguneko epean ebatziko du gehienez ere.

4. Egiaztatze- eta ikerketa-jarduketak, eta horien barruan deklarazioa hartzea, honela garatu ahalko dira, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalako zerbitzuek hautatu bezala:

a) Ikuskatutako erakundearen edo pertsonaren edota horien ordezkariaren edozein bulego, langela edo egoitzatan.

b) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren edo Administrazioiko beste erakunde batzuen lokaletan beraietan.

Egiaztapeneko eta ikerketako jardunak a) letran aipatutako tokietan egiten direnean, bertako lanaldia errespetatu beharko da, baina bi aldeak ados jarriz gero, beste ordu eta egun batzuetan ere jardun ahalko da.

5. 2. apartatuaren e), f), i), j), k), l), m), ñ), o), q), r), s), u), w) eta y) letretan aipatutako neurriak behin-behineko neurri gisa hartu ahal izango dira zehapen-espeditente bat izapidetzen den bitartean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 56. artikuluan xedatutakoari jarraituz, emango den ebazpenaren eraginkortasuna edo prozedura egokiro gauzatzen dela bermatzeko, arau-haustearen ondorioek mantentzea eta interes orokorren exijentziak saihesteko, edo zuhurtziazko gainbegiratzeko edo jokabide-gainbegiratzeko neurri gisa, bere gainbegiratzehalmena behar bezala baliatzen duela, inbertitzaileak eraginkortasunez babestuta daudela edo balore-merkatuak ondo funtzionatzen duela bermatzeko; eta mantenduko dira haiek eragin dituen arazoak irauten duen bitartean.

6. 2. apartatuaren e), f), i), k) eta t) letretan jasotako neurriak Espainiako Bankuaren gainbegiratzearen pean dauden erakundeen gainean egiten direnean, dela zehapen prozedura baten barneko kautelazko izaerarekin, dela zehapen-ahalaz baliatzeaz kanpo, aurrez jakinarazi beharko zaizkio aipatutako erakundeari.

Halaber, 2.e) apartatuan jasotako neurriak direnean, aginduzkoa izango da erakunde horren alde aurretiko txostena.

7. 2. apartatuaren e), f), i), k) eta t) letretan jasotako neurriak Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren gainbegiratzearen pean dauden erakundeen gainean egiten direnean, dela zehapen prozedura baten barneko kautelazko izaerarekin, dela zehapen-ahalaz baliatzeaz kanpo, aurrez jakinarazi beharko zaizkio erakunde horri.

Halaber, 2.e) apartatuan jasotako neurriak direnean, aginduzkoa izango da erakunde horren alde aurretiko txostena.

8. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, lege honetan jasotako gainbegiratzehalmenak baliatuz, lege honetan eta bera garatzeko xedapenetan jasotako informazio eta neurriak bitarteko elektronikoki bidez jakinarazi eta eskatu diezazkieke honako hauei: sozietate jaulkitzaileetan dituzten partaidetza handien berri eman behar duten akziodunei, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresei eta inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak emateko baimena duten gainerako erakundeei (haien agenteak barne), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 Erregelamenduaren 19. artikulua aipatzen dituen zuzendariak, 233.1 artikulua a) letrako 1.tik 5.era bitarteko zenbakietan eta 8. zenbakian, c) letrako 1.tik 3.era bitarteko zenbakietan eta h) letran zerrendatutako pertsona eta erakundeei, eta datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileei. Halaber, pertsona horiei eskatu diezazkieke igorri behar dizkioten informazioak eta dokumentuak bitarteko elektronikoki bidez helaraz diezazkiotela.

Aipatutako erakundeek, horretarako jarritako epean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eskatutako baliabide teknikoak gaitu beharko dituzte, jakinarazpen elektronikoen sistemak eraginkorrak izan daitezen, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jakinarazpenak egiteko sistema elektronikoki (zeinak urriaren 1eko 39/2015 Legearen printzipio eta bermeak errespetatuko baititu) aukera eman beharko du egiaztatze zein egunetan eta ordutan jarri den interesdunaren esku jakinarazpenak xede duen egintza, eta, bestetik, interesduna noiz sartu den edukian; izan ere, momentu horretatik aurrera, jakinarazpena egintzat joko da legezko ondorio guztietarako.

Jakinarazpenaren xede den egitatea eskuragarri jarri dela jasota dagoenean, edukia ikustera sartu gabe hamar egun natural iraganez gero, ulertuko da

jakinarazpena errefusatutzat jo dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.5 artikuluan ezarritako ondorioekin.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren Erregistro Elektronikoa onartu ahal izango ditu agiri elektronikoa normalizatuak, erregistroa sortzeko arauak ezarritakoaren arabera zehazten diren zerbitzuei, prozedurei eta izapideei dagozkienak, aldeztu aurretik ezarritako formatuen arabera beteak.

9. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalako langile baimenduek beren gainbegiratze- eta ikuskatze-funtzioetan egiaztatzen dituzten egitateek frogabalia izango dute, interesatutako pertsonak edo erakundeek beren eskubideen edo interesen alde adieraz edo erakuts ditzaketen frogari kalterik egin gabe.

10. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aplikatzeak diren arauak ez betetzearen ondorioz hartutako edozein neurri eman ahalko du argitara, salbu eta haiek hedatzeak arrisku larri jartzen baditu balore-merkatuak, edo neurri kanpoko kaltea eragiten badie ukitutako pertsonari.

11. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala agintari eskuduna izango da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko martxoaren 14ko 236/2012 (EB) Erregelamenduan (epe laburrerako salmentak eta ez-ordaintzeak estaltzeko permuten alderdi batzuei buruzkoa) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko uztailaren 4ko 648/2012 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren ondorioetarako, eta eskuordetuta edo beste agintari eskudun batzuekin lankidetzan esleitzen zaizkion eginkizun eta zereginak betetzeko behar dituen artikulua honetan jasotako ahalmenak izango ditu.

Espainiako Bankuak eta Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari berehala jakinaraziko diote Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko uztailaren 4ko 648/2012 (EB) Erregelamenduen 11.3 eta 11.4 artikuluetan ezarritako betebeharren edozein ez-betetze, edo betebeharrak horiek ez direla beteko pentsarazten duten zantzu oinarriak daudela adieraziko diote.

12. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak beren eginkizunak betetzean bildutako datu pertsonalak irispidean izatea, tratatzea eta ematea datu pertsonalak babesteko araudian babestuta dago, interes publikoko eginkizun bat betetzeko egiten baita, hari emandako ahal publikoak baliatzean. Datuak soilik erabiliko dira aipatutako ahal baliatzeko, lege honetan ezarritako baldintzetan.

Datu pertsonalak babesteko araudian araututa dauden interesdunen eskubideak mugatuta egongo dira, araudi horretan xedatutakoari jarraituz, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bere gainbegirale- eta ikuskatze-jarduketak ondo gauzatzeko beharrezko deritzon denboraz.

13. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala izango da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamendua aplikatzeko agintari eskuduna. Horretarako, eta aurreko apartatuetan ezarritakoa eragotzi gabe, bete ahal izango ditu erregelamendua agintari eskudunari aitortzen dizkien ahalmen guzti-guztiak, besteak beste, erregelamenduen 23.1 artikuluan aipatutako edozein moduren bidez 23.2 artikuluan berariaz jasotakoak, bai eta 13. eta 19.9 artikuluetan emandakoak ere.»

Hirurogeita lau. Gehitu egiten zaizkio j bis), q), r) eta s) letrak 238. artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«j bis) Espainiako kontratazio-sistema antolatuen (SOC) erregistro bat.»

«q) Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen erregistro bat.

r) Gobernu korporatiboari buruzko informazioaren eta xedapen arauemaileak betetzeko sozietate jaulkitzaileek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari helarazi behar dizkioten eta aurreko erregistroetan definituta ez dauden beste informazio batzuen erregistro bat.

s) Lege honetan xedatutakoaren arabera Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onetsitako akzioak erosteko eskaintza publikoen liburuxken erregistro

bat, bai eta akzioak erosteko eskaintza publikoak formulatzearen salbuespenena ere.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroetan aldizkako informazioa eta informazio-liburuxketakoa sartzeak soilik ekarriko du halakoen edukia finkatzen duten arauetan eskatutako informazio guztia biltzen dutelako aitortpena, eta inolaz ere ez du berekin ekarriko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak haietan erantzukizuna izatea, haietan jasotako informazioan egiazkoa izan ezean.

Bestalde, f) letran ezarritako erregistro ofizialak mekanismo zentralizat hartuko da artikulua honetan aipatzen den informazioa biltzeari begira, betiere erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.»

Hirurogeita bost. Aldatu egiten da 244. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«244. artikulua. *Europar Batasuneko beste agintari gainbegirale batzuekiko lankidetzak.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala lankidetzan ariko da Europar Batasuneko beste agintari eskudun batzuekin, lege honetan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako eginkizunak betetzeko behar den guztietan, eta, horretarako, lege honek eta 2009ko irailaren 16ko 1060/2009 (EE) Erregelamenduak ematen dizkion ahalmen guztiak baliatuko ditu.

2. Halaber, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak laguntza emango die Europar Batasuneko beste agintari eskudunei. Bereziki, informazioa trukatu du; ikertze- edo gainbegiratze-jardueretan jardungo du elkarlanean, eta diruzko zehapenak kobratzea errazteko lankidetzan arituko da.»

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak elkarlan-helburuetarako erabil ditzake bere botereak; bai eta ikertutako jokabidea Espainian indarrean den araudian arauhauste ez den kasuetan ere.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak elkarlanean jardungo du Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzarekin. Zehazki, behar den informazio guztia helaraziko dio luzapenik gabe, hark 2010eko azaroaren 24ko 1095/2010 (EB) Erregelamenduaren 35. artikulua araberako esleitu dizkieten funtzioak bete ditzan.

4. Bere zehapen- eta ikerketa-ahalmenez baliatzean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak lankidetzan jardungo du Europar Batasuneko beste agintari eskudun batzuekin, bermatze aldera zehapen edo neurriek sor ditzatela nahi diren emaitzak, eta bere jarduketa beste agintari batzuekin koordinatuko da mugaz gaineko kasuak direnean.

5. Isurtze-eskubideei dagokienez, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala lankidetzan arituko da Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoarekin, eskudiruko merkatuak gainbegiratzearen arloko erakunde publiko eskudunekin, Isurpen-Eskubideen Erregistro Nazionalarekin eta martxoaren 9ko 1/2005 Legea (berotegi-efektuko gasen isurpen-eskubideen merkataritza-araubidea arautzekoa) betetzen dela gainbegiratzearen ardura duten beste erakunde publiko batzuekin, isurtze-eskubideen merkatuen ikuspegi orokorra bermatzeko.

6. Nekazaritzako lehengaien gaineko deribatuei dagokienez, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak informazioa emango du, eta lankidetzan jardungo du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1308/2013 (EB) Erregelamenduaren araberako (zeinak Nekazaritzako produktuen merkatu antolakunde erkidea sortzen baitu eta 922/72 (EEE), 234/79 (EEE), 1037/2001 (EE) eta 1234/2007 (EE) Erregelamenduak indargabetzen baititu) nekazaritza-merkatu fisikoak gainbegiratzearen, kudeatzearen eta arautzearen arloko erakunde publiko autonomiko eskudunekin.»

Hirurogeita sei. Aldatu egiten da 245. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak berehala emango die eskatzen dioten eta beren funtzioak betetzeko behar duten informazioa Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzari, Europako Banku Agintaritzari, Aseguruaren eta Erretiro Planen Europako Agintaritzari, eta Europar Batasuneko beste estatu kideetako agintari eskudunei.»

Hirurogeita zazpi. Gehitu egiten da 245. bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«245. bis artikulua. *Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari eta agintari eskudunei datuak jakinaraztea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzari eta gainerako agintari eskudunei jakinaraziko dizkie honako hauei buruzko datu xehatuak:

a) 234.2.m) artikuluari jarraituz posizio edo esposizio baten bolumena murrizteko exigentzia guztiak.

b) 85. artikuluari jarraituz finantza-tresna bat kontratatzeke pertsonak duten ahalmenari ezarritako muga guztiak.

2. Jakinarazpenak jasoko ditu, hala badagokio, 234.2.h) artikulua araberako errekerimenduaren edo eskaeraren datu xehatuak, nori zuzendu zaion eta zergatik barne, eta 234.2.ñ) artikuluari jarraituz ezarritako mugen irismena, barne hartuta nor ukitu duen, zer finantza-tresna mota den, une oro pertsonak har ditzakeen posizioen bolumenaren atalaseak eta 85. artikulua araberako zer salbuespen aplikatu daitezkeen eta haien zergatiak.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gutxienez indarrean sartu baino 24 ordu lehenago jakinaraziko ditu hartutako neurri edo ekintzak. Salbuespenezko egoerak direla eta, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ezin izango balu epe horretan egin jakinarazpena, aurrerapen txikiagoz egin ahal izango du.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak artikulua honetan jasotakoaren moduko jakinarazpenen bat jasotzen duenean, 234.2 artikulua m) eta ñ) letren araberako neurriak hartu ahal izango ditu, baldin eta badaki neurria beharrezkoa delako beste agintari eskudunen baten helburua lortzeko. Halaber, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak apartatu honen araberako jakinarazpenak egingo ditu, neurrien bat hartzeko asmoa badu.

5. 1. apartatuaren araberako hartutako ekintza bat handizkako energia-produktuei buruzkoa bada, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Energia Erregulatzailen Lankidetzaren Agentziari ere helaraziko dio jakinarazpena (Energia Erregulatzailen Lankidetzaren Agentzia sortzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 713/2009 (EE) Erregelamenduari jarraituz eratu da Energia Erregulatzailen Lankidetzaren Agentzia).»

Hirurogeita zortzi. Gehitu egiten zaizkio beste hiru letra —e), f) eta g)— eta azken paragrafo bat 247. artikulua 3. apartatuan, eta honela geratzen dira idatzita:

«e) Isurtze-eskubideen merkatuen eragiketarako egiten dituzten pertsonak gainbegiratzea, finantza-merkatuen eta eskudiru-merkatuen ikuspegi orokorra bermatzeko.

f) Nekazaritzako lehengaien gaineko deribatuen merkatuen eragiketarako egiten dituzten pertsonak gainbegiratzea, finantza-merkatuen eta eskudiru-merkatuen ikuspegi orokorra bermatzeko.

g) Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen, kreditu-erakundearen, aseguru- edo berraseguru-erakundearen eta beste zenbait finantza-erakundearen nahitaezko kontu-auditoretzak egiteko ardura duten pertsonak gainbegiratzea.»

«Apartatu honetan aipatutako lankidetzak-akordioek aurreko apartatuetan adierazitako betekizunak bete beharko dituzte.»

Hirurogeita bederatzi. Aldatu egiten da 248. artikulua 1. apartatua, eta gehitu egiten zaizkio lau letra berri —o), p), q) eta r)— 4. apartatuari; honela geratzen dira idatzita:

«1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak edo beste agintari eskudun batzuek lege honetan edo beste legeren batean edo Europako araudian jasotako gainbegiratzearekin eta ikuskatzearekin loturiko beren eginkizunetan dihardutela jasotzen dituzten informazio edo datu konfidentzialak, ezingo zaizkie eman inongo pertsonari edo agintariri. Izaera erreserbatu hori amaituko da interesdunek jendaurrean azaltzen dituztenean hari dagozkion gertaerak.

Artikulu honetan xedatutakoa eta zigor- edo zerga-zuzenbidean jasotako kasuak ezertan eragotzi gabe, bere eginkizunetan dihardutela jasotzen duen inongo informazio konfidentzialik ezingo zaie zabaldu inolako pertsonari edo agintariri, ez bada modu orokor eta kolektiboan, halako moduz non eragotziko baita informazio horrek zehazki identifikatzea aipagai dituen inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak, merkatuen zuzentze-erakundeak, merkatu arautuak edo beste edozein pertsona.»

«o) Isurtze-eskubideei dagokienez Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak indarrean dagoen araudia betez Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoari, eskudirumerkatuak eta enkante-merkatu gainbegiratzearen arloan eskudun diren erakunde publikoei, Isurpen-Eskubideen Erregistro Nazionalari eta martxoaren 9ko 1/2005 Legearen arabera (zeinak arautzen baitu berotegi efektuko gasak aineratzeko eskubideen salerosketa-erregimena) gainbegiratzearen ardura duten beste erakunde batzuei ematen dien informazioa.

p) Nekazaritzako lehengaien gaineko deribatuei dagokienez Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1308/2013 (EB) Erregelamenduaren arabera nekazaritza-merkatu fisikoak gainbegiratzearen, kudeatzearen eta arautzearen arloan eskumena duten erakunde publiko autonomikoei ematen dien informazioa.

q) Bere eginkizunak gauzatzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak lege honen arabera Europar Batasuneko beste agintari eskudun batzuei eman behar dizkien informazioak.

r) 247. artikuluan aipatutako lankidetzako eta informazioa trukatzeko akordioen arabera Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Europar Batasuneko kideak ez diren estatuetakoa agintari eskudunei, edo estatu horietako beste agintari, erakunde edo pertsona fisiko zein juridiko batzuei ematen dizkien informazioak.»

Hirurogeita hamar. Honela geratzen da idatzita 249. artikulua:

«249. artikulua. *Lankidetzari edo informazio-trukeari ezezkoa ematea.*

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak soilik kasu hauetan uko egin diezaiolke elkarlan-eskaera bat bideratzeari ikerketa batean, «in situ» egiaztapen batean edo gainbegiratze batean, 253.4tik 6ra bitarteko artikulua arabera, edota informazioa trukatzeari, 245.1etik 5era bitarteko eta 253.1 artikuluen arabera:

a) Prozedura judizial bat abiarazi denean egitate berengatik eta pertsona beren aurka.

b) Jadanik ebazpen judizial irmo bat eman denean pertsona berei eta egitate berei dagokienez.

Ukoaren kasuan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak behar bezala jakinaraziko die eskaera egin duen agintari eskudunari eta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzari, hartaz ahalik eta informaziorik gehien ematen duela.»

Hirurogeita hamaika. Aldatu egiten da 252. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak harrerako estatu kideko agintari eskudunarekiko lankidetzaren mekanismo egokiak ezarriko ditu, baldin eta negoziazio-zentroren batek Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan ezarri baditu zentro horretarako urrutiko sarbidea eta zentroaren eragiketak ahalbidetzen dituzten mekanismoak, eta harrerako estatu kideko balore-merkatuen egoeraren ondorioz negoziazio-zentroak garrantzia nabarmena hartu badu estatu horretako merkatuen funtzionamendurako eta inbertitzaileen babeserako.

2. Halaber, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Europar Batasuneko beste estatu kide bateko negoziazio-zentroaren eskumena duen agintariak lankidetzaren mekanismo egokiak ezarriko dituzte, baldin eta zentro horrek Espainiako lurraldean ezarri baditu zentro horretarako urrutiko sarbidea eta Espainian egindako eragiketak bermatzeko mekanismoak, eta Espainiako balore-merkatuen egoeraren ondorioz garrantzia nabarmena hartu badute Espainiako merkatuen funtzionamendurako eta inbertitzaileen babeserako.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kasu hauetan ulertuko da eragiketek funtsezko garrantzia dutela baldin eta betetzen bada Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 90. artikuluan xedatutakoa (erregelamendu horrek osatu egiten du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua, inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresen antolaketa-betekizunei, funtzionamendu-baldintzei eta zuzentarau horren ondorioetarako definitutako baldintzei dagokienez).»

Hirurogeita hamabi. Aldatu egiten da 253. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«253. artikulua. *Lankidetzaren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren gaietan.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako agintari eskudunei jakinarazi ahal izango die Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentaraua transposizioz jasotzen duten arau nazionaletan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduan araututako gaiekin loturiko informazioa.

Kasu horietan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak adierazi beharko du ea informazio hori soilik zabaldu daitekeen berak esanbidezko baimena emanda.

Halaber, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak beste estatu kide batzuetako agintari eskudunen informazioa jasotzen duenean eta agintari horiek adierazi dutenean informazio hori soilik beren esanbidezko baimenarekin zabal daitekeela, Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalak informazio hori soilik erabili beharko du agintaritzaren berak baimendutako xedeetarako.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako agintari eskudunei egindako informazio-eskaera baztertu badute edo erantzunik eman ez badiote, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak jakinaraziko dio Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari; eta horrek jokatu ahal izango du 1095/2010 (EB) Erregelamenduaren 19. artikulua ematen dizkion ahalmenak baliatuz, ezertan eragotzi gabe 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren 83. artikuluan informazio-eskaerak baztertzeko jasotzen diren aukerak eta 1095/2010.2 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluan jasotako neurriak hartzeko Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziak duen ahalmena.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak susmo oinarriduna badu Europar Batasuneko beste estatu kide bateko lurraldean berak gainbegiratzen ez dituen erakunde batzuk 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentaraua transposizioz jasotzen duten xedapen nazionalen aurkako edo Europako Parlamentuaren eta

Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren aurkako jarduerak ari direla egiten edo egin dituztela, ahalik eta modurik zehatzenean jakinaraziko die estatu kide horretako agintari eskudunari eta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzari. Jakinarazpen horrek ez du ezertan eragotziko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabil ditzakeen eskumenak.

3. Era berean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak jakinarazpen bat jasoz gero Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko agintari eskudunetik, eta hark susmo sendoa badu berak gainbegiratzen ez dituen erakunde batzuk lege honen eta lege hau garatzeko xedapenen aurkako jarduerak ari direla egiten edo egin dituztela Espainiako lurraldean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egoera hori zuzentzeko egoki diren neurriak hartu beharko ditu. Horren gain, bere esku-hartzearen emaitza jakinaraziko die agintari eskudun berriemaileari eta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintzari, eta, ahal duen heinean, tarteko aurrerapen garrantzitsuak ere bai.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Europar Batasuneko beste agintari eskudun batzuen laguntza eska dezake gainbegiratze-jarduera batean, edo «in situ» egiaztatze baterako, edo 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentaraua transposizioz jasotzen dituzten arau nazionaletan araututako edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1060/2009 (EE) Erregelamenduarekin lotutako gaien inguruko ikerketaren bat egiteko.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egindako laguntza-eskaera baztertu badute edo erantzunik eman ez badiote, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak jakinaraziko dio Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari; eta horrek jokatu ahal izango du 1095/2010 (EB) Erregelamenduaren 19. artikulua ematen dizkion ahalmenak baliatuz, ezertan eragotzi gabe 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren 83. artikuluan informazio-eskaerak ezesteko jasotzen diren aukerak eta 1095/2010 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluan jasotako neurriak hartzeko Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziak duen ahalmena.

5. Baldin eta beste estatu kide batean baimendutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresak badira, eta merkatu arautu bateko urruneko kideak badira, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak haiengana zuzenean jo ahal izango du, eta, kasu horretan, behar bezala jakinaraziko dio hori urruneko kidearen jatorriko estatu kideko agintari eskudunari.

6. Baldin eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eskaera bat jasotzen badu «in situ» egiaztatzeren edo ikerketaren bat egiteko, bere eskumenen esparruan hauetako bat egingo du:

- a) Berak egingo du egiaztatzea edo ikerketa.
- b) Eskaera aurkeztu duten agintariei utziko die haiek egin dezaten.
- c) Auditore edo aditu batzuek egin dezaten utziko du.»

Hirurogeita hamahiru. Gehitu egiten zaizkio d) eta e) letrak 271.4 artikuluari:

«d) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamendua.

e) Balore-merkatuaren antolamenduko eta diziplinako Europako arauak garatzeko edo betearazteko Europako Batzordeak hartuko dituen erregelamendu eskuordetuak edo exekuzio-erregelamenduak.»

Hirurogeita hamalau. Honela geratzen da idatzita 275. artikulua:

«275. artikulua. *Zehapenak bete beharra.*

Lege honetan xedatutakoaren arabera zehapenak ezartzen dituzten ebazpenak exekutiboak izango dira administrazio-bideari amaiera ematen badiote. Betetzekoak ez diren bitartean eraginkortasuna bermatzeko, hala badagokio, behar diren zuhertasunetzko xedapenak jasoko dira ebazpenetan.»

Hirurogeita hamabost. Gehitu egiten zaio IV bis kapitulua, zeinak «Arau-haustea jakinaraztea» izena baitu, X. tituluari; 276. bis artikulutik 276. sexies artikulura bitartekoek osatzen dute, eta honela geratzen dira idatzita:

«IV. BIS KAPITULUA

Arau-haustea komunikatzea

276. bis artikulua. *Arau-haustea komunikatzeko kanalak eta motak.*

1. Lege honetan edo azaroaren 4ko 35/2003 Legean jasotako arau-hauste bat agian dela edo benetan egin dela dakien edonork Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi diezaioke, artikulua honetan ezarritako eran eta bermekin.

2. Honela egin ahal izango dira komunikazioak:

- a) Idatziz, formatu elektronikoa edo paperean.
- b) Ahoz, telefonoz (grabatu liteke).
- c) Aurrez aurreko bilera batean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionaleko langile espezializatuekin.
- d) Ekonomia eta Enpresa Ministerioko titularrak ezartzen duen beste edozein modutan.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak behar diren kanalak, bitarteko teknikoak eta langileak jarriko ditu 1. apartatuan aipatutako komunikazioak modurik eraginkorrenean jaso eta kudeatzeko, eta, hartara, jasotako informazioak al bait erabilgarriena izan dadin arau-haustea detektatzeko eta tratatzeko. Informazioa aurkezten den modura egokituko dira kanalak.

4. Komunikazioa jaso aurretik, edo, beranduenez, hura jasotzean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak honako hau emango dio komunikatzaileari:

a) Arau-haustea komunikatzeari buruzko oinarrizko informazioa, horren barruan sartuta, bereziki, anonimotasunaren aukera eta identitatea babesteko neurriak, bere burua identifikatu nahi izanez gero.

b) Jasotako informazioaren idatzizko hartu-agiria; informazioa eman duen pertsonak aukeratu duen posta-helbidera edo helbide elektronikora igorriko zaio, salbu eta berak esanbidez eskatzen badu hori ez egiteko, edo hartu-agiriak arriskuan jartzen badu haren identitatea babestea.

276. ter artikulua. *Komunikazioaren gutxienezko edukia.*

1. Aurreko apartatuan aipatutako komunikazioak anonimoak izan ahalko dira, edo egin dituen pertsonaren identifikazioa jaso dezakete. Nolanahi ere, egitateko elementuak jaso beharko dituzte, arau-haustea egin izanaren susmo oinarritun bat gutxienez ondorioztatzen dutenak, zentzuz ondorioztatu ere.

2. Informazioa jaso eta 20 eguneko epean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabakiko du oinarrituna den ala ez arau-hauste egin delako susmoa. Oinarrituna ez bada, informazioa bidali duen pertsonari eskatuko dio edukia argitzeko, edo informazio gehiagorekin osa dezala, hura lortzeko arrazoizko epe baten barruan.

3. Argitzeko edo informazio gehiago emateko ezarri den epea igarota, susmo oinarrituna dagoela ezin izan bada egiaztatu, horren berri emango zaio informazioa bidali duen pertsonari, eta arrazoiak azalduko zaizkio.

4. Edonola ere, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak informazioa bidali duen pertsonari jakinaraziko dio komunikatutako egitateen ondorioz zehatze-prozedurarik hasi dela, hala izan bada, edo Espainiako zein Espainiatik kanpoko beste agintari batzuei helarazi zaiela.

5. Komunikazio anonimoa egin duen pertsonarekiko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren errekerimenduak eta komunikazioak egiteko, anonimotasuna gordeko da une oro, pertsona horrek esanbidez kontrakoa erabaki ezean.

276. quater artikulua. *Konfidentzialtasun-bermeak.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erregistro bat edukiko du 276. bis.3 artikuluan aipatutako kanaletatik jasotako informazio guztiarekin. Jasotako informazioaren erabateko konfidentzialtasuna bermatuko du erregistroak, eta horretara komunikazio horien tratamenduaren eta kudeaketaren arduraren dute langileek baino ez dute izango sarbidea.

Jasotako komunikazioek ez dute froga-baliorik izango, eta ezin izango zaizkie zuzenean erantsi eginbide judizial edo administratiboei.

2. Komunikazioaren edozein transmisio egitean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren barnera zein kanpora, ez dira agertuko komunikatzailearen datu pertsonalak, horiek jakinak izanez gero, ez eta komunikazioan ageri diren pertsonenak ere, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Ustez arau-haustea egin duen pertsonaren datu pertsonalak, baldin eta beharrezkoak badira aurretiazko jarduketak egiteko, administrazio-prozedura zehatzaile bat edo prozedura judizial bat hasteko, instruitzeko eta ebazteko; edozein kasutan ere, datu horiek organo eskudunak ikertzen edo zehatzen dituen pertsonen babes-maila baliokidea izango dute.

b) Komunikatzailearen datu pertsonalak, ezagunak izanez gero eta ordena penaleko organo judizial eskudun batek esanbidez eskatuz gero zigor-arloko ikerketa edo prozesu baten eginbideak egitean, baldin eta prozesu horretarako ezinbesteko elementua bada.

c) Europar Batasunaren esparruko agintari nazional eskudunen pareko diren agintariek behar dituzten eta komunikazioan ageri diren datu pertsonal guztiak; aldez aurretik bete beharko dira aplikatzekoak diren arau nazionaletan edo Europar Batasuneko edo hirugarren estatuetakoa arauetan ezarritako betekizunak, eta datu pertsonalen konfidentzialtasunaren babes-mailak Espainian indarrean dagoenaren baliokidea izan behar du betiere.

276. quinquies artikulua. *Lan- eta kontratu-esparruetako babesak.*

1. 276. bis.1 artikulua aipatzen dituen arau-hausteetako bat komunikatzea:

a) Ez da izango informazioa zabaltzeko murriztapenen urratzea edo ez-betetzea, murriztapenak kontratu bidez edo edozein lege-, erregelamendu- edo administrazio-xedapenen bidez ezarri direla ere, eta komunikatzaileari, berari estuki loturiko pertsonari, berak administratzen dituen sozietatei edo benetako titularra den sozietatei eragiten dietela ere.

b) Ez da izango komunikatzailearen lan-araudiaren arau-haustea, eta enplegatzaileak ezin izango dio tratu bidegaberik edo baztertzailerik eman komunikazioaren ondorioz.

c) Ez inolako konpentsaziorako edo kalte-ordainerako eskubiderik sortuko komunikatzaileak zerbitzuak ematen dizkion enpresaren alde edo beste hirugarren baten alde, nahiz eta enpresa horrekin edo hirugarren batekin hitzartu aurretiazko komunikazioaren betebeharra.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehaztasunez eta praktikan bide eta prozedura horiek erraz erabiltzeko moduan jakinaraziko dio komunikatzaileari zer errekurtso-bide eta prozedura dituen zuzenbidean aurreko apartatuan aurreikusitako egoeraren baten ondorioz sor litezkeen kalteen aurrean babesteko. Halaber, benetako laguntza emango dio komunikatzaileari, bere eskubideak jakinaraziz, eta salatzailea delako egiaztatzea emango dio, behar izanez gero, lan-

jurisdikzioaren aurrean erabil dezan. Orobat, behar diren baliabideak jarriko ditu hala behar duen komunikatzaileari laguntzeko komunikazioaren ondorioko arriskuen aurrean, horien barne hartuta, bereziki, helarazi dion komunikazioa egin izanaren, haren edukiaren eta balio materialaren egiaztagiria.

276. sexies artikulua. *Ekonomia eta Enpresa Ministerioko titularrak gaitzea.*

Ekonomia eta Enpresa Ministerioko titularrak, eta berak esanbidez gaituz gero, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, honako hau egin ahal izango du:

1. Ezarri ahal izango du Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bere webgunean arau-haustek argitaratu behar duen informazioaren edukia.

2. Garatu ahal izango du komunikazioak jasotzeko eta izapidetzeko jarraitu beharreko prozedura espezifikoa, bai eta 276. bis.4 artikulua arabera komunikatzaileari eman beharreko oinarriko informazioaren edukia ere.

3. Ezarri ahal izango ditu komunikazioak jasotzeko kanalen ezaugarriak eta betekizunak, haien independentzia, segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko.

4. Ezarri ahal izango ditu aurreko artikuluetan aipatutako komunikazio-sistemaren eraginkortasuna ebaluatzeko irizpideak, epeak eta adierazleak.»

Hirurogeita hamasei. Aldatu egiten da 278. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«278. artikulua. *Jarduera-erreserba eta behar diren baimenak lortzeko betebeharra ez betetzearen ondoriozko arau-haustek.*

Honako ekintza edo ez-egite hauek arau-hauste oso astunak izango dira:

1. 233.1.a).1 eta 2 artikuluan aipatutako erakundeek edo inbertsioetarako funts-bermeen sozietate kudeatzaileek baimenik gabeko jarduerak edo, oro har, haien xede sozialaz bestekoak egitea, noizbehinka edo kasu banaketan gertatzen denean izan ezik.

2. 144., 145., 146., 147. eta 197. bis artikuluetan ezarritako jarduera-erreserba ez betetzea, baita baimenduta ez dituzten jarduerak egitea inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek, datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileek edo beste edozein pertsona fisikok edo juridikok, eta inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek edo haren agenteek ez betetzea 146. eta 147. artikuluen babesean ezartzen diren arauak.

3. 233.1.a) artikulua 1., 2. eta 3. zenbakietan zerrendatutako erakundeek ez betetzea haiek baimentzearekin, haien estatutu edo erregelamenduak onartzearekin edo haiei aurka ez egitearekin, edo aurreko araubidearen mende dagoen eta lege honetan, lege hau garatzeko arauetan edo Europar Batasuneko zuzenbidean aurreikusita dagoen beste edozein gairekin lotutako betebeharrak.»

4. Bigarren mailako merkatu ofizial bat, negozioazio-sistema aldeaniztun bat edo baloreak edo kontrakontu zentralako erakundeak erregistratzeko, konpentsatzeko edo likidatzeko sistema bat ezartzea lege honetan ezarritako baimenetatik edozein lortu gabe.

5. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek eta seigarren xedapen gehigarrian aipatutako erakundeek ez betetzea beren baimen-araubidea.

6. Inbertsio-zerbitzuetako enpresa gisa jarduteko baimena adierazpen faltsuen bidez edo beste bitarteko irregularren bat baliatuta lortzea.

7. Datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaile gisa jarduteko baimena adierazpen faltsuen bidez edo beste bitarteko irregularren bat baliatuta lortzea.

8. Espainian baimendutako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak edo zerbitzu osagarriak Europar Batasuneko beste estatu kide batean zerbitzuak aske emateko araubidean ematea Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari 166. artikuluan aipatutako komunikazioak helarazi gabe.

9. Espainiako inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek Europar Batasuneko beste estatu kide batean sukurtsal bat jartzea, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari 165.1 artikuluan aipatutako jakinarazpenak helarazi gabe.»

Hirurogeita hamazazpi. 281. artikuluari 8. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«8. Espainiako lurraldean dauden kontrako alderdien sistema zentralek eta konpentsazio- eta likidazio-sistemek behin baino gehiagotan eta larriki ez betetzea Europar Batasuneko beste estatu kideren bateko inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek eta kreditu-erakundeek 113. artikuluan jasotako baldintzetan beraietarako sarbidea izateko eskubidea aitortzea.»

Hirurogeita hemezortzi. Gehitu egiten zaizkio beste lau apartatu (9., 10., 11. eta 12.a) 282. artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«9. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek eta negoziazio-zentro bat kudeatzen duten zuzentze-erakundeek ez betetzea (ez noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan) lehengaien gaineko deribatuetako posizio garbi baten bolumenari 85. artikuluari jarraituz ezarritako posizio-mugak.

10. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek eta negoziazio-zentro bat kudeatzen duten zuzentze-erakundeek ez betetzea (ez noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan) 86.etik 90.era bitarteko artikuluetan ezarritako komunikatzeko eta sailkatzeko betebeharrak.

11. Ez betetzea (ez noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan) Batzordearen 2016ko ekainaren 13ko 2017/577 Erregelamendu Eskuordetuan (zeinak finantzatresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 600/2014 (EB) Erregelamendua osatzen baitu bolumena mugatzeko mekanismoari aplikatzekoak zaizkion erregulazio-arau teknikoei eta gardentasunerako eta beste kalkulu batzuetarako informazioari dagokienez) APAei eta PICei ezartzen zaizkien informatzeko, datuak igortzeko eta kontserbatzeko, bolumena mugatzeko mekanismoaren ondorioetarako informatzeko, eta deribatuak negoziatzeko betebeharra.

12. Ez betetzea merkatuaren gardentasuna eta osotasuna arrisku larrian jarri direnean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 22.2 artikuluan APAek eta PICek gardentasunerako eta beste kalkulu batzuetarako informazioari buruzko datuak biltegitazeari buruz ezarritako betebeharrak.»

Hirurogeita hemeretzi. Aldatu egiten da 238. artikuluen 3. apartatua aldatu egiten da, eta 12. eta 13. apartatuak gehitzen dira; honela geratzen dira idatzita:

«3. Inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak ematen dituztenek behin baino gehiagotan eta larriki ez betetzea 182. artikuluan jasotako gobernu korporatiboko betebeharrak, 185. artikuluan jasotako administrazio-organoko eta goi-zuzendaritzako kideak eta parekoak aukeratzeko eta ebaluatzeko betebeharrak, 193. artikuluan jasotako antolaketa-betekizunak, inbertsio-zerbitzuetako beste enpresa baten bidez zerbitzuak ematearen arloan 220. artikuluan ezarritako betebeharrak eta ordainsarien arloan 220. bis artikuluan ezarritako betebeharrak.»

«12. Inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten enpresek larriki ez betetzea 208. bis.1 artikuluan jasotako prozedurak, politikak edo neurriak edukitzeko betebeharra, edo horiek falta izatea edo ez egotea; edo ez betetzea (ez noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan) produktuen diseinuari eta banaketari buruz 208. ter artikuluan ezarritako betebeharrak.

13. Datu-hornidurako zerbitzuak ematen dituztenek behin baino gehiagotan eta larriki ez betetzea 198. octiesetik 198. deciesera bitarteko artikuluetan ezarritako

datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen funtzionamenduko eta barne-antolaketako betebeharrak.»

Laurogei. Beste bi apartatu gehitzen dira (4.a eta 5.a) 284. artikuluan, eta honela geratzen dira idatzita:

«4. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek ez betetzea (ez noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan) onestasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jokatzeko betebeharrak, kontrako alderdi hautagarriekiko beren harremanetan informazio inpartzial, argia eta ez-engainagarria komunikatzeko betebeharra, 207.2 artikuluan xedatutakoa betetzen duen enpresak kontrako alderdi hautagarri gisa tratatua izatea onartzen duelako (oro har zein eragiketa bakoitzerako) esanbidezko berrespena lortzeko betebeharra, 207.5 eta 207.6 artikuluetan ezarritakoak.

5. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek ez betetzea (ez noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan) 220 terretik 220 sexiesera bitarteko artikuluetan ezarritako beren betebeharrak.»

Laurogeita bat. Aldatu egiten da 291. artikulua 4. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten pertsonak, noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan, baimenik ez duten jarduerak egitea, eta noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek edo haren agenteek ez betetzea 146. eta 147. artikuluen babesean ezartzen diren arauak.»

Laurogeita bi. Gehitu egiten zaio 6. apartatua 294. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«6. Espainiako lurraldean dauden kontrako alderdien sistema zentralak eta konpentsazio- eta likidazio-sistemak ez betetzea Europar Batasuneko beste estatu kideren bateko inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek eta kreditu-erakundeek 113. artikuluan jasotako baldintzetan beraietarako sarbidea izateko eskubidea aitortzea, arau-hauste oso astuna ez denean.»

Laurogeita hiru. Gehitu egiten zaizkio 8., 9. eta 10. apartatuak 295. bis artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«8. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek eta negozioazio-zentro bat kudeatzen duten zuzentze-erakundeek ez betetzea noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan lehengaien gaineko deribatuetako posizio garbi baten bolumenari 85. artikuluari jarraituz ezarritako posizio-mugak.

9. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek eta negozioazio-zentro bat kudeatzen duten zuzentze-erakundeek ez betetzea 86.etik 90.era bitarteko artikuluetan ezarritako komunikatzeko eta sailkatzeko betebeharrak, arau-hauste oso astuna ez denean.

10. Ez betetzea noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan Batzordearen 2016ko ekainaren 13ko 2017/577 Erregelamendu Eskuordetuan APAei eta PICei ezartzen zaizkien informatzeko, datuak igortzeko eta kontserbatzeko, bolumena mugatzeko mekanismoaren ondorioetarako informatzeko, eta deribatuak negoziatzeko betebeharra.»

Laurogeita lau. Aldatu egiten da 296. artikulua 5. apartatua, eta 12., 13., 14. eta 15. apartatuak gehitzen zaizkio; honela geratzen dira idatzita:

«5. Inbertsio-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dituztenek ez betetzea 182. artikuluan jasotako gobernu korporatiboko betebeharrak, 185. artikuluan jasotako

administrazio-organoko eta goi-zuzendaritzako kideak eta parekoak aukeratzeko eta ebaluatzeko betebeharrak, 193. artikuluan jasotako antolaketa-betekizunak, inbertsio-zerbitzuetako beste enpresa baten bidez zerbitzuak ematearen arloan 220. artikuluan jasotako betebeharrak eta ordainsarien arloan 220. bis artikuluan jasotako betebeharrak.»

«12. Inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten enpresek ez betetzea 208. bis.1 artikuluan jasotako prozedurak, politikak edo neurriak edukitzeko betebeharra, edo horiek falta izatea edo ez egotea; edo ez betetzea noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan produktuen diseinuari eta banaketari buruz 208. ter artikuluan ezarritako betebeharrak.

13. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresek ez betetzea noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan onesttasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jokatzeko betebeharrak, kontrako alderdi hautagarriekiko beren harremanetan informazio inpartzial, argia eta ez-engainagarria komunikatzeko betebeharra, enpresak kontrako alderdi hautagarri gisa tratatua izatea onartzen duelako (oro har edo eragiketa bakoitzerako) esanbidezko berrespena lortzeko betebeharra, 207.5 eta 207.6 artikuluetan ezarritakoak.

14. Inbertsio-zerbitzuak ematen dituztenek noizbehinkako kasuetan edo kasu solteetan ez betetzea 208.etik 216.era bitarteko artikuluetan, 218. artikuluan eta 220.etik 224.era bitarteko artikuluetan ezarritako betebeharrak, arauak eta mugak.

15. Datu-hornidurako zerbitzuak ematen dituztenek ez betetzea 198. octiesetik 198. deciesera bitarteko artikuluetan ezarritako datu-hornidurako zerbitzuen hornitzaileen funtzionamenduko eta barne-antolaketakoko betebeharrak.»

Laurogeita bost. Aldatu egiten dira 302. artikulua 1. eta 8. apartatuak, eta 7 apartatu berri (9.etik 16.era bitartekoak) gehitzen zaizkio; honela geratzen dira idatzita:

«1. Honako zenbateko hauetatik handienara bitarteko isuna:

– Arau-hauste diren egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekin gordinaren edo saihestutako galeraren boskoitza.

– Arau-haustea egin duen erakundearen baliabideen ehuneko bost.

– Arau-haustean guztira erabilitako funtsen ehuneko bost, funtsak propioak nahiz besterenak izan.

– Erakunde arau-hauslearen urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko hamar, administrazio-organoko onartuta dauzkan eta eskura dauden azken kontuei jarraituz. Baldin eta erakunde arau-hauslea enpresa nagusi bat edo finantzen egoera-orri bateratuak egin behar dituen enpresa nagusi baten filiala bada, aplikatzekoa den urteko guztizko negozio-bolumena eskura dauden azken finantzen egoera-orri bateratuetan ageri dena izango da.

– 5.000.000 euro.

Ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduan jasotako arauak betetzen ez dituzten inbertsio-zerbitzuetako enpresei, edo 275.4.a) artikuluan aipatutako arau-hauste oso astunak egiten dituztenei ezarriko zaien isuna honako hauetatik handienara bitarteko zenbatekoa izango du:

– Arau-hauste diren egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekin gordinaren boskoitza.

– Urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko 10era bitarte, barne hartuta jasoko diren interesetatik eta pareko diru-sarreretatik sortutako diru-sarrera gordinak, akzioen eta errenta finkoko edo aldakorreko beste balore batzuen etekinak, eta erakundeak aurreko ekitaldian sortutako komisioak edo artekaritzak, ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 316. artikuluari jarraituz.

– Arau-haustea egin duen erakundearen baliabide propioak.

- Arau-haustean guztira erabilia funtsen ehuneko bost, funtsak propioak nahiz besterenak izan.
- 10.000.000 euro.

Zenbaki honek xede duen enpresa, hain zuzen, filiala izanez gero, dagozkion diru-sarrera gordinak izango dira haren enpresa nagusiaren aurreko ekitaldiko kontu bateratuetatik ateratzen direnak.

Baloreen gordailuzain zentralen eta 2014ko uztailaren 23ko 909/2014 (EB) Erregelamenduaren 54.2.b) artikulua aipatzen dituen kreditu-erakunde izendatuen kasuan, 288.1 eta 3 artikuluan aipatzen diren arau-hauste oso astunak egin badituzte, ezarriko zaien isuna, gutxienez ere, arau-hauste diren egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekin gordinaren zenbatekoaren bi halako, baldin eta hura zehatz badaiteke, eta, gehienez ere, honako zenbateko hauetatik handienara bitarte:

- Arau-hauste diren egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekin gordinaren boskoitza.
- Erakunde arau-hauslearen urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko hamar, zuzendaritza-organoak onartuta dauzkan eta eskura dituen azken kontuei jarraituz.
- Arau-haustean guztira erabilia funtsen ehuneko bost, funtsak propioak nahiz besterenak izan.
- 20.000.000 euro.

– Baldin eta erakunde arau-hauslea enpresa nagusi bat edo finantzen egoera-orri bateratuak egin behar dituen enpresa nagusi baten filiala bada, aplikatzekoa den urteko guztizko negozio-bolumena eskura dauden azken finantzen egoera-orri bateratuetan ageri dena izango da.

118. artikulutik 126. artikulura bitarte jasota dauden eta arau-hauste oso astuna diren betebeharren ez-betetzeen kasuan, honako isun hau ezarriko da:

i) Pertsona juridikoen kasuan, zenbatekoa honako hauetatik handienara bitartekoa izango da:

- 10.000.000 euro edo guztizko urteko negozio-bolumenaren ehuneko bost, eskura dauden azken urteko kontu onartuen arabera. Pertsona juridikoa enpresa nagusi bat bada edo merkataritza-araudiaren arabera finantza-kontu bateratuak eduki behar dituen enpresa nagusi baten filiala bada, kontuan hartu beharreko guztizko negozio-bolumena izango da edo guztizko urteko negozio-bolumena edo kasuan kasuko diru-sarrera mota, aplikatzekoa den kontabilitateari buruzko araudiaren arabera, azken enpresa nagusiak onartutako eta eskuragarri dagoen urteko kontu bateratu berrienari begiratuta.
- Ez-betetzeari esker lortutako etekinen edo saihestutako galeren kopuruaren bi halako, halakoak zehazterik badago.

ii) Pertsona fisikoen kasuan, honako zenbateko hauen artetik handienara bitarteko zenbatekoa izango du: 2.000.000 euro, edo ez-betetzeari esker lortutako mozkinen edo saihestutako galeren zenbatekoaren bikoitza, baldin eta zenbateko hori zehazterik badago.»

«8. Arau-hauslea edozein finantza-erakundetan betetzen duen administrazio- edo zuzendaritza-kargutik kentzea eta 233.1 artikulua a) letran eta c) letraren 2., 4. eta 5. zenbakietan aipatutako edozein erakundetan administrazio- edo zuzendaritza-karguak betetzeko hamar urterako desgaitzea, gehienez ere.»

«9. Arau-haustearen bidez lortutako etekinak edo saihestutako galerak itzultzea, zenbatekoa zehaztu badaiteke.

10. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren baimena errebokatzea edo etetea, hamar urtez, gehienez.

11. Gehienez hamar urtez norberaren kontura negoziatzea debekatzea inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresan administrazio- edo zuzendaritza-erantzukizunak dituzten pertsona guztiei eta arau-haustearen erantzuletzat jotzen den beste edozein pertsona fisikori.

12. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresetan administrazio- edo zuzendaritza karguak betetzeko desgaitzea hamar urtez gehienez, edo behin betiko, arau-hausteak behin baino gehiagotan egin badira.

13. Estatuko Aldizkari Ofizialean publikoki kargu-hartzea, nor den erantzulea eta zer arau-hauste den zehaztuta.

14. Halaber, 325.2 artikuluan aurreikusitako jarduera-erreserba ez betetzea izanez gero, arau-hausleari ezarriko zaio 1.a) apartatuan jasotako zehapena; kasu horretan, etekin gordintzat hartuko dira arau-hausleak gordetako jardueraren garapenean lortutako diru-sarrerak, eta isuna 600.000 eurokoa izango da gutxienez.

15. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek partaidetza eskuratzuz gero, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala aurka agertu arren, ezar daitekeen beste edozein zehapenez gainera, boto-eskubideen erabilera etetea erabakiko da, edo emandako botoen deuseztasuna edo baliogabetzeko aukera.

16. 277.1.b) artikuluan azaltzen diren pertsonak egindako arau-hausteen kasuan, zehapenak 319. artikuluan eta 363.era 365.era bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera ezarriko dira, ezertan eragotzi gabe Europar Batasuneko beste agintaritzak eskudun batzuek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren irailaren 16ko 1060/2009 (EE) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera zehapenak jartzeko duten gaitasuna.»

Laurogeita sei. Aldatu egiten dira 303. artikuluen 1. eta 4. apartatuak, eta 7 apartatu berri (5.etik 11.era bitartekoak) gehitzen zaizkio; honela geratzen dira idatzita:

«1. Honako zenbateko hauetatik handienara bitarteko isuna:

– Arau-hauste diren egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekin gordinaren hirukoitza.

– Arau-haustea egin duen erakundearen baliabideen ehuneko bi.

– Arau-haustean guztira erabilia funtsen ehuneko bi, funtsak propioak nahiz besterenak izan.

– 300.000 euro.

Ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduan jasotako arauak betetzen ez dituzten inbertsio-zerbitzuetako enpresei, edo 275.4.a) artikuluan aipatutako arau-hauste astunak egiten dituztenei ezarriko zaien isuna honako zenbateko hauetatik handienara bitartekoa izango da:

– Arau-hauste diren egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekin gordinaren bikoitza.

– Urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko bostera bitarte, jasoko diren interesetatik eta pareko diru-sarreretatik sortutako diru-sarrera gordinak, akzioen eta errenta finkoko edo aldakorreko beste balore batzuen etekinak, eta erakundeak aurreko ekitaldian sortutako komisioak edo artekaritzak barnean hartuta, ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 316. artikuluari jarraituz.

– Arau-haustean guztira erabilia funtsen ehuneko bi, funtsak propioak nahiz besterenak izan.

– 5.000.000 euro.

Zenbaki honek xede duen enpresa, hain zuzen, enpresa nagusi baten filiala izanez gero, dagozkion diru-sarrera gordinak izango dira enpresa nagusiaren aurreko ekitaldiko kontu bateratuetatik ateratzen direnak.

Baloreen gordailuzain zentralen eta 2014ko uztailaren 23ko 909/2014 (EB) Erregelamenduaren 54.2.b) artikulua aipatzen dituen kreditu-erakunde izendatuen kasuan, 298.3 eta 298.4 artikuluan aipatzen diren arau-hauste astunak egin badituzte, ezarriko zaien isuna, gutxienez ere, arau-hauste diren egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekin gordinaren zenbatekoaren bi halako, baldin eta hura zehatz badaiteke, eta, gehienez ere, honako zenbateko hauetatik handienera bitarte:

- Arau-hauste diren egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekinaren bikoitza.
- Erakunde arau-hauslearen urteko guztizko negozio-bolumenaren ehuneko bost, zuzendaritza-organoak onartuta eta eskura dauzkan azken kontuei jarraituz.
- Arau-haustean guztira erabilia funtsen ehuneko bi, funtsak propioak nahiz besterenak izan.
- 10.000.000 euro.

Erakunde arau-hauslea enpresa nagusia edo enpresa nagusiaren filiala baldin bada, eta finantza-egoera kontsolidatuak egin behar baditu, aplikatu beharreko urteko guztizko negozio-bolumentzat hartuko da eskura dauden azken finantza-egoera kontsolidatuetan agertzen dena.»

«4. Arau-hausleak finantza-erakunde batean betetzen duen administrazio- edo zuzendaritza-kargutik kentzea urtebetez, gehienez jota.»

«5. Arau-haustearen bidez lortutako etekinak edo saihestutako galerak itzultzea, zenbatekoa zehaztu badaiteke.

6. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresaren baimena errebokatzea edo etetea, bost urtez, gehienez.

7. Gehienez bost urtez norberaren kontura negoziatzea debekatzea inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresan administrazio- edo zuzendaritza-erantzukizunak dituzten pertsona guztiei eta arau-haustearen erantzuletzat jotzen den beste edozein pertsona fisikori.

8. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresetan administrazio- edo zuzendaritza-karguak betetzeko desgaitzea zazpi urtez gehienez, edo hamar urtez, arau-hausteak behin baino gehiagotan egin badira.

9. Estatuko Aldizkari Ofizialean publikoki kargu-hartzea, nor den erantzulea eta zer arau-haustea den zehaztuta, 313. ter artikuluan xedatutakoari jarraituz.

10. 278.2 artikuluan aurreikusitako arau-hausteak eragingo du, nolahi ere, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroetan ordezkari edo ahaldu gisa inskribatuta egotea indargabetzea.

11. Inbertsio-zerbitzuetako eta -jardueretako enpresa batek partaidetza handia eskuratuz gero, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala aurka agertu arren, ezar daitekeen beste edozein zehapenez gainera, boto-eskubideen erabilera etetea erabakiko da, edo emandako botoen deuseztasuna edo baliogabetzeko aukera.»

Laurogeita zazpi. Aldatu egiten da 310.1 artikulua c) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Arau-haustearen erantzule den pertsona fisikoaren edo juridikoaren finantza-sendotasuna, pertsona juridiko erantzulearen negozio-bolumena edo pertsona fisikoaren urteko diru-sarrerak eta aktibo garbiak aintzat hartuta, beste elementu objektibagarri batzuen artean.»

Laurogeita zortzi. Aldatu egiten da 313. artikulua 1. apartatua, eta 1. bis apartatua gehitzen da; honela geratzen dira idatzita:

«1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak urtero emango dio Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari lege honetako betebeharrak ez betetzeagatik egindako arau-hausteen informazio multzokatua, bai eta ezarritako zehapenen eta administrazio-neurriena ere, ikerketa-izaeradunena izan ezik.»

«1. bis. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari jakinaraziko dizkio ezarri diren baina 313. ter.3.c) artikuluan ezarritakoaren babesean argitaratu ez diren administrazio-zehapen eta -neurri guztiak, ikerketa-izaeradunena izan ezik, bai eta haiekin loturiko errekurtsioak eta horien emaitzak ere.»

Laurogeita bederlatzi. Gehitu egiten da 313. bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«313. bis artikulua. *Kondena-epai penalez informatzea eta haiek jakinaraztea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak jakinaraziko dizkio Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari Zigor Kodearen 282. bis, 284. eta 285. artikuluetan tipifikatutako delituekin loturik dauden eta baloreei edo finantza-produktuei eragiten dieten kondena-epai judizial irmoak.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak urtero emango dio Baloreen eta Merkatuaren Europako Agentziari honako informazio hau multzokatuta eta anonimizatuta:

a) Aurreko paragrafoak aipatutako epaiak.

b) Lege honen 250. artikuluan ezarritakoaren bidez edo berak salaketa jarri duelako ezagutzen dituen eta aurreko apartatuan ezarri diren delituei dagokienez, egintza batek garrantzi penala duen ikertzeko fiskaltzak abiarazitako ikerketa-eginbideak eta instruitze fasean edo ahozko epaiketako fasean dauden prozesu judizialak.»

Laurogeita hamar. Gehitu egiten zaio IX. kapitulua VIII. tituluari, eta honako artikulua hauek izango ditu:

«IX. KAPITULUA

Zehapenak argitara ematea

313. ter artikulua. *Zehapenak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren webgunean argitaratzea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bere webgune ofizialean argitara emango du, dagokion erregistroaren bidez, eta justifikazio gabeko atzerapenik gabe, zehapena ezartzea dakarren edozein erabaki, zehatutako pertsonen jakinarazi ondoren. Horrez gainera, eteteko, kargua uzteko, eta kargua utzi eta desgaitzeko zehapenak betetzekoak direnean, jasoko dira, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan.

2. Zehapenak argitaratzean, gutxienez, arau-haustearen motari eta izaerari buruzko informazioa emango da, bai eta haren erantzukizuna duten pertsonen identitatea ere.

3. Aurreko apartatuan jasotakoari dagokionez, baldin Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak uste badu zehapenaren hartzaile den pertsona juridikoaren identitatea edo zehatutako pertsona fisikoaren datu pertsonalak argitaratzea neurritz kanpokoak izan daitekeela edo neurritz kanpoko kaltea eragin diezaiekeela zigortutako erakundeei edo pertsona fisikoei, kaltea neur daitekeen heinean, edo datu horiek argitaratzeak arriskuan jar dezakeela abian den ikerketaren bat edo finantza-merkatuen egonkortasuna, salbuespenez, neurri hauetakoren bat har dezake:

a) Argitalpena atzeratzea harik eta atzeratze horretarako arrazoiak desagertzen diren arte.

b) Era anonimoan argitaratzea ezarritako zehapena, argitalpenak bermatzen duenean kasuan kasuko datu pertsonalak eraginkortasunez babestea. Kasu

horretan, bidezko datuen argitalpena arrazoizko epe batez geroratu ahalko da, baldin eta aurreikusten bada desagertuko direla aldi horretan zehar anonimotasuna babesten duen argitalpen bat justifikatzen duten arrazoiak.

c) Ez argitaratzea inola ezarritako zehapena, baldin eta uste badu a) eta b) letretan ezarritako moduetan argitaratzea ez dela nahikoa hau bermatzeko:

1.–Finantza-merkatuen egonkortasuna ez direla arriskuan jartzen.

2.–Argitaratzearen proportzionaltasuna garrantzi txikiagokotzat jotzen diren neurrien aldean.

4. Aurreko apartatueta ezarritako argitaratze-araubidea ere aplikatuko zaie 234.5 artikuluan jasotakoaren arabera zehapen-prozedura baten barruan Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak hartzen dituen behin-behineko neurriei ere.

Artikulu honetan araututako argitaratze-betebeharra ez zaie aplikatuko ikerketa-izaerako neurriak ezartzeko erabakiei.

5. Zehapen edo neurri bat ezartzeko erabakiaren kontrako errekurtsoa jartzen denean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak informazio hori berehala argitaratuko du informazio hori bere webgune ofizialean, bai eta errekurtsoaren inguruko geroko informazioa guztia ere. Halaber, zehapen edo neurri bat ezartzeko lehenago hartutako erabakiren bat baliogabetzen edo barkatzen duten erabaki guztiak ere argitaratuko dira.

6. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aurreko apartatueta aipatutako informazio guztia bost urtez edukiko du bere webgunean, gutxienez.

313. quater artikulua. *Zehapenak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara ematea.*

Arau-hauste astun eta oso astunengatiko zehapenak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, administrazio-bidean irmoak izan ondoren; argitaratze horri ere aplikatu behar zaio 313. ter artikulua 2. eta 3. apartatueta xedatutakoa.

313. quinques artikulua. *Zehapen-prozedurak hasteko erabakiak argitara ematea.*

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak argitara eman ahal izango ditu zehapen-espeditenteei hasiera emateko erabakiak, interesdunei horien berri eman ondoren eta, hala badagokio, horien edukiaren alderdi konfidentzialez ebatzi eta gero. Horrez gain, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3.a) artikuluan xedatutako datu pertsonalak aurretik disoziatu egingo dira, arau-hausleen izenak izan ezik. Argitaratzea erabakitzeko orduan, behar beste arrazoituta neurtuko dira interes publikoa —balore-merkatuen gardentasun eta funtzionamendu hobean, oro har, izan ditzakeen aldeko eraginak aintzat hartuta— eta inbertitzailearen babesa zein arau-hausleei eragindako kaltea.

313. sexes artikulua. *Zehapenak batzar nagusiari komunikatzea.*

Pertsona juridikoei Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ezarritako zehapen betearazleak komunikatu egin behar dira egitekoa den batzar nagusiaren edo organo baliokidearen hurrengo bileran.»

Laurogeita hamaika. Gehitu egiten da eranskin bat, eta honela idatzita geratzen da:

«ERANSKINA

Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren esparruan sartzen diren finantza-tresnak

a) Balore negoziagarriak. Halakotzat joko dira ondare-dukia duen edozein eskubide, edozein izendapen duela ere, baldin eta bere konfigurazio juridikoagatik eta transmisio-araubideagatik berarekin trafiko orokorra eta inbertsonala egin

badaiteke finantza-merkatu batean; horien barruan daude honako balore-kategoria hauek, ordainketa-tresnak izan ezik:

1.–Sozietateen akzioak eta sozietateen akzioekin pareka daitezkeen beste balore batzuk, eta gordailuzain-ordainagiriak.

2.–Bonoak, obligazioak eta zor titulizatuko beste era batzuk, barne hartuta balore horiek ordeztzen dituzten gordailuzain-ordainagiriak.

Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, akzioen ordezeko baloretzat ulertuko dira kapital-merkatuan negoziagarri diren, egoiliar ez den jaulkitzaile baten baloreen jabetza ordezkatzan duten eta egoiliar ez den jaulkitzailearen baloreetatik aparte merkatu arautu batean negoziatzeko onar daitezkeen eta negozia daitezkeen baloreak.

3.–Balore negoziagarri horiek eskuratzeko edo saltzeko eskubidea ematen duten edo eskudiruko likidazio baterako eskubidea ematen duten gainerako baloreak, zeina finkatzen baita balore negoziagarriak, dibisak, interes-tasak edo errendimenduak, lehengaiak, edo bestelako adierazle edo neurriak erreferentziatzen hartuta.

b) Diru-merkatuetako tresnak. Halakotzat joko dira diru-merkatuan negoziatu ohi diren tresna-kategoriak, Altxorraren letrak eta efektu komertzialak kasu, ordainketa-tresnak izan ezik.

c) Inbertsio kolektiboko erakundeen eta arrisku-kapitaleko erakundeen eta molde itxiko inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetza eta akzioak.

d) Aukera-kontratuak, gerokoak, trukatzek (swaps), eperako interes-tasei buruzko akordioak eta baloreekin, dibisekin, interes-tasekin nahiz errendimenduekin, isurketa-eskubideekin edo bestelako finantza-tresna deribatuekin, finantza-adierazleekin edo fisikoki emanda zein eskudirutan likidatu daitezkeen finantza-neurriekin lotutako deribatuen bestelako kontratuak.

e) Aukera kontratuak, gerokoak, trukatzek (swaps), eperako kontratuak eta eskudirutan likidatu behar diren edo alderdietako batek hala erabakita (ez-betetzear edo kontratua hutsaltzea dakarten bestelako gertakariez beste arrazoiengatik) eskudirutan likidatu daitezkeen lehengaiekin loturiko deribatu-kontratuak.

f) Aukera kontratuak, gerokoak, trukatzek (swaps), eta fisikoki emanda likidatu daitezkeen lehengaiekin lotutako deribatuen bestelako kontratuak, baldin eta merkatu arautu batean, negoziazio-sistema aldeaniztun (SMN) batean edo kontratazio-sistema antolatua (SOC) batean negoziatzen badira, salbu eta SOC batean negoziatzen diren eta fisikoki emanda likidatu behar diren handizkako produktu energetikoei dagokienez (1227/2011 (EB) Erregelamenduaren 2. artikulua 4. apartatuko definizioaren arabera).

g) Aukera-kontratuak, gerokoak, trukatzek (swaps), eperako akordioak eta aurreko apartatuan aipatu ez diren, helburu komertzialetarako ez diren, beste zenbait finantza-tresna deribatuen ezaugarriak dituzten eta fisikoki emanda likidatu daitezkeen lehengaiekin lotutako deribatuen bestelako kontratuak.

h) Kreditu-arriskuaren transferentziarako finantza-tresna deribatuak.

i) Diferentzien arabeko finantza-kontratuak.

j) Aukera-kontratuak, gerokoak, trukatzek (swaps), eperako akordioak eta eskudirutan likidatu behar diren edo alderdietako batek hala erabakita (ez-betetzear edo kontratua hutsaltzea dakarten bestelako gertakariez beste arrazoiengatik) eskudirutan likidatu daitezkeen klima-aldagaiekin, garraio-gastuekin edo inflazio-tasekin edo bestelako estatistika ekonomiko ofizialekin lotutako deribatuen bestelako kontratuak, bai eta eranskin honetan aipatu ez diren aktibo, obligazio, adierazle eta neurriekin lotutako beste edozein kontratu deribatu ere, baldin eta bestelako finantza-tresna deribatuen ezaugarriak badituzte, kontuan hartuta, besteak beste, merkatu erregulatu batean edo SOC edo SNM batean negoziatzen diren.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauko (zeinak Europako Erkidegoan berotegi-efektuko gasak igortzeko

eskubideen merkataritzarako erregimena ezartzen baitu eta aldatzen baitu Kontseiluaren 96/61/EE Zuzentaraua) betekizunen arabera onetsitako unitateak diren isurtze-eskubideak.»

Lehen xedapen gehigarria. *Definizioak.*

Errege lege-dekretu honetan jasotako kontzeptuen norainokoa zehazteko, kontuan hartuko dira 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauak eta hura garatzen duten arauak dakartzaten definizioak.

Bigarren xedapen gehigarria. *Kontsumoaren arloko auzien ebazpen alternatiboa.*

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erreklamazio-zerbitzuak (finantza-sistemaren erreforma-neurriei buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legearen 30. artikuluan arautua) jardungo du balore-merkatuaren esparruko auzien ebazpen alternatiboko erakunde gisa, harik eta finantza-sektoreko kontsumoaren arloko auziak ebazteko agintari eskudun bakarra eratzen den arte (hori jasota dago azaroaren 2ko 7/2017 Legean, zeinak Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 2013/11/EB Zuzentaraua —kontsumo-arloko auzietarako ordezko konponbideei buruzkoa—).

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indarrik gabe geratzen dira errege lege-dekretu honetan ezarritakoaren aurkako xedapenak.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluen 6., 11. eta 13. zenbakietan xedatutakoarekin bat dago emanda; horiek Estatuari esleitzen dizkiote honako gai hauen gaineko eskumen eskusiboak, hurrenez hurren: merkataritzako legeria; kreditua, banka eta aseguruak arautzeko oinarriak; eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa.

Azken xedapenetako bigarrena. *Europar Batasunaren zuzenbidea txertatzea.*

Errege lege-dekretu honen bidez, honako hauek txertatu dira partzialki:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentaraua, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa, zeinak aldatzen baititu 2002/92/EE Zuzentaraua eta 2011/61/EB Zuzentaraua.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko ekainaren 23ko 2016/1034 Zuzentaraua, zeinak 2014/65/EB Zuzentaraua aldatzen baitu, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa.

c) Batzordearen 2016ko apirilaren 7ko 2017/593/EB Eskuordetutako Zuzentaraua, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua osatzen baitu, bezeroak jabe diren funtsen eta finantza-tresnen babesari, produktuen gobernanzaren arloko betebeharrari, eta ordainsariak, komisioak edo bestelako diruzko zein ez-diruzko onurak emateari edo jasotzeari aplikatu beharreko arauari dagokienez.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Ekonomia eta Enpresa Ministerioko titularrak gaitzea.*

Ekonomia eta Enpresa Ministerioko titularrak gaitzen da agindu bidez prozedura bat ezartzeko, azaroaren 22ko 44/2002 Legean eta azaroaren 2ko 7/2017 Legean jasotako erreklamazioak izapidetzea bateratzeko dena.

Azken xedapenetako laugarrena. *Erregelamendu bidezko garapena.*

Gobernuak beharrezkoak diren erregelamendu-arauak eman ditzake errege lege-dekretu honetan xedatutakoa garatzeko.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Indarrean jartzea.*

1. Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2. Salbuespenez, aldaketak garatzen dituen errege-dekretua indarrean jartzen denean jarriko dira indarrean 146., 147., 148., 149.2ren bigarren paragrafoa, 149.3, 152., 153., 151., 160., 161., 164., 165., 166., 167., 168., 169., 170., 171., 172., 173., 176., 177., 193., 194., 195., 196., 205. eta 207. artikuluen aldaketak.

234.2.d) eta 234.12 artikuluetan xedatutakoa ez da aplikatzekoa izango harik eta Datuak Babesteko Lege Organikoaren aldaketa onetsi eta beraren hemezortzigarren xedapen gehigarria indarrean jarri arte.

Madriren, 2018ko irailaren 28an.

FELIPE e.

Gobernuko jarduneko presidentea,
CARMEN CALVO POYATO